PABLO SASTRE

Elurretan hotsak

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2004 Pablo Sastre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2004ko urria
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

1
METALA

Pertsonaiak:

MANDI, pareta egilea.
JABI, bere konpañeroa.
PIKUTA, eskobazalea.
KAKO, pasteleroa.
YAGO, bajan istripuagatik.
AXPE, Goiherriko enpresa batekoa.
JOXEMARI, Unbakoa.
IÑAKI, Unbako enkargatua.
JOSETXO (Piperra), Unbako nagusia.
NAIA, tabernari gaztea.
LAXARO, aseguru saltzailea.
ANE, banatzailea.
BELA, pobre bat.
GARRO, zabor-biltzaile bat.

Motxo esnezalea, une batez Tapax, bi Bulgariar, Hesi paratzaileak, Unbako Manu, Gari, Luzio; poligonoko Langileak, Jendea kalean.

«Goiz-goizetik zaudek argi gabe hauek!»

Masailak gorrituak, zabor eskorga kale erdian plantatu zuen Pikutak, behin eta berriz eta gogotik elurra zanpatu zuen.

Adreilu metaren ondoan Jabi, makurtuta, begi bat itxi eta bestearekin paretaren zuzentasuna konprobatzen ari zen.

Haren alboan Mandi moko-meharrak, gorro beltza buruan, hormigoneraren azpitik pale hautsi bat atera eta egur pilara botaz, zigarroa eskuan, samin antza, begi bizi:

«Arrebarenean ere bai eta me caguen dios, konjeladorea zizez beteta zaukaat!» Zigarro mutxikina apuratu zuen. «Etxera joango nauk, igual.»

«Ya! Zuek ere alperrik.»

«Pareta ostia hau. Gaurko bukatu behar zela. Astelehenean pintoreek etorri behar dutela eta, gaurko bukatu behar zela.»

«Hi: hau oker-okerra zagok,» esan zuen Jabik.

«Joiok mailuarekin, zuzenduko duk,» esan zuen Pikutak.

«Atzo goizean, segitu zuen Mandik, gosaltzeko garaian, nagusia etorri duk eta: ‘Lasaai!’ Jarri diagu eguerdi bitartean ladrillo ilara bat, honek bazian apuro pixka bat, bazkalondoan berriz etorri duk nagusia, eta: ‘Ari al zarete, ari al zarete?’ ‘Ari gara, ari gara.’ ‘Ondo ari zarete, ondo ari zarete.’ Gero, iluntzean, presaka etorri duk, eta: ‘Biharko behar dik’.»

«Ba, gaurko ezingo dik, esan zuen Jabik; ez badugu masa pasteran egiten... Regla ere, berak eraman zian atzo.»

«Gaur gainera, masa emateko gaizki, esan zuen Mandik; printzatu egingo baita.»

Gozotegi-labetik, laneko arropaz, Kako luzea atera zen; buruaz kasu egin, eskuak igurtzi, irribarre egin zien.

«Zer. Su festa dugu?»

«Hombre. Zuek ere, festa.»

«Labe zaharrean ari gaituk. Anton zaharrak ez dik galdu nahi eguna.»

«Galdu? Me caguen dios. Galduko nikek.»

Jabi sua pizteko lanetan, Mandi, eskuak sakeletan, petral antza zegoen.

«Aberia ostia hau... Martxa honetan, galduko dituk, galduko direnez, nire pago zizak.»

«Seietan deitu omen ditek konpainiara, esan zuen Kakok; nonbait ezin helduz zabiltzak horiek.»

«Hori, esan zuen Pikutak, horko koadroren batekoa izango duk igual.»

«Ez diat uste, esan zuen Kakok. Koadro horretan Lete ibili duk polimetroarekin eta, hor ez duk indarrik behinik behin.»

«Hori jenerala duk, esan zuen Mandik; hori, hango kaxetan igual... Hor atzean, Iberdrolak bazian, ba, kaxeta lehenago.»

«Hik jakingo duk: hi ez al hintzen haiekin ibili...?»

«Bai. Hori kaxetan edo, hor nonbait kable eroriren bat...»

«Zera. Kableak lurpetik joango dituk hor.»

«Ez: hor poste zaharrak gelditu dituk...» Jabiri: «Hi: joango al gara bistazo bat ematera?»

Jabik, egur puxka bat sutara botaz:

«Ni ez behintzat; joan nahi baduk hi.»

«Igual bai, e...» Eskuak sakeletan beti, harakoa egin zuen Mandik. «Ti-ta: oraintxe natorrek.»

«Eskutsik al hoa?»

«Zer den ere... Ikusiko diat!»

«Hi. Galdu gabe, aditzen!»

«Lasai. Horraxe; joan eta etorri.»

Jabik poltsatik fianbrera atera zuen eta, Mandiri Pikutak:

«Hi! Hirea ere jango dik honek!»

Sagar txiki bat atera zuen sakelatik Mandik, argi pindarra begietan, irribarre luze batez, hura gora bota, aire joko bat egin zuen.

«Horrekin ez haiz urrutira joango!... Hau duk azienda, hau.»

Elurrez elur, patxada onean bazihoala Mandi, kantoi batetik, besoa igeltsuan bilduta, musu-belarriak ilun, Yago azaldu zen.

«Nora doa hori?» galdetu zuen, zakar antza.

«Perretxikotara!»

Zahatoa ere atera zuen Jabik.

«Aupa hi.» Pikutak heldu zion aurrena.

«Zer esan didate, gauean lapurrak ibili direla edo...»

«Bai, esan zuen Kakok; Jasan sartu omen dituk, eta kajan ziren diruak eraman. Kristalerian ere sartu omen dituk, eta dena txikituta utzi.»

Jabik besaurrea seinalatu zuen.

«Zera, esan zuen Kakok; hori farlopa, nik uste.» Isilaldi txiki baten ondotik:

«Farlopa, esan zuen Pikutak, mozkin ederrekoa duk; kolpe batean, lau bost kilo ekarri, bizimodu ederra.»

«Kantidade hori, esan zuen Kakok, poliziek ez dakitela kolokatzea, ez duk oso erraza izango.»

«Dagoen prezioan, konforme nengokek kilo batekin. Zer? Zazpi kilo, bai.»

«Ba, ba,» esan zuen Yagok; isilune baten ondotik, suari begira: «Nik beti esan izan diat, bankua askoz egokiagoa dela.»

«Zera, esan zuen Pikutak; minutu pare batean, han dituk txapelekoak eta.»

«Horixe ez. Fulgenciok bere emazteari lepoa moztu zionean bi ordu pasata azaldu zituan... Bentaja batekin: gaur egun, betiko atrako bat, inork ez dik espero.»

Jabik tragua jo zuen eta:

«Denetan, nik uste, gaur egun bahitzea, modukoena duk. Sarritan, alaba biolatzeko mehatxuarekin aski izaten duk, irekitzeko poltsa.»

Yagok, zigarroa pizteko, sutatik egur bat hartu zuen, bueltan Jabiri abantxu gorroa kixkali zion.

«Hi, kaskoa erre gabe niri... Beso sano horrekin nondik nora hoa?»

«Egin zioat Josetxori bisita... La ostia; kontentu zagok hori ere. Jeneradorearekin ari dituk eta, nonbait materiala falta, hortik pasa naizenean, 'hola jasoko diagu Euskadi, hola!' esan eta, gero baten baten ama zerbait kakaztua utzi dik.»

Pikutak, eskorgari helduz:

«Bueno mutilak. Zerbait bizkortu nauk eta, banoak hemendik.»

«Baduk gaur elurra kentzen hik ere lana...»

«Kendu? Ederra zagok.»

Eskorgari bultz, abiatu egin zen geldi-geldia. Istant hartan, zerua argi arrosa batez piztu, mendi mazelan hiru-lau baserri agertu ziren. Honaxeago, lurrun moltso zuriak isurtzen zituen fabrika batek.

«Kateak jarri gabe nora hoa hi!»

«Gabon!» esan zuen Pikutak.

Bi lagun ziren Unba kanpoan: Joxemari handia eta Manu musuokerra; palak zituztela, eskuak gorri-gorri; Joxemarik Manuri begia kiñatu eta:

«Etorri gurekin, Pikuta, eta esaizkiguk nexken ixtorio batzuk.»

«Neskak ezkutatu dituk, mutilak, aurki otsoak ditiagu hemen!» Eskorga elur pilaren kontra utziz: «Zer dugu, jai?»

«Jai?...»

Barruan kolpe batzuk aditu ziren.

«Ekatzak polea, alperretxe horrek!»

Belarritako kaskoak jarrita, tipo bat pasatu zen.

«Hor baten bat umoreko zagok,» esan zuen Pikutak.

«Izorra dadila, esan zuen Joxemarik. Suerte pixka batekin bihar arte lanik ez.»

«He! Horrek zer edo zer asmatuko dik. Hor al dago bera?»

«Ofizinan duk, Hungriako edo, tipo batzuekin.»

«Bulgariakoak, esan zuen Manuk; tipo horiek, Bulgariakoak dituk.»

«Igual ziok, ijitoen erregearen semeak baldin badira ere, Piperrak ederra sakatuko ziek. Putakumea, orain ere zer edo zer makinatzen arituko duk.»

Hartan Iñaki azaldu zen atarian.

«Teeen-te!» esan zuen Joxemarik, burla airean hortz makur saila erakutsiz.

«Ostia, hi. Manu, tornua zain daukak.»

«Hi, esan zuen Joxemarik, Piperrak elurra kentzeko esan ziguk guri.»

«Ikusten diat, bai...» Manuri: «Plantxa noiz atera behar duk?»

«Orain ez behintzat; kenduz gero orain, krak egingo dik.»

«Bitartean, soldea ezak hanka.»

«Guanteak ekarri behar dituk hik, guanteak,» esan zuen Joxemarik lepagogor.

«Hik hirea; eta hi, lijero barrura,» esan eta, barrura egin zuen Iñakik.

«Kasu, muturra hautsi gabe,» esan zuen Manuk isilka, pala nonon utziz.

«Eta, sar ezak gibelekotik hamarreko broka,» Joxemarik; listua bota zuen elurretara, eta: «Guanteak eskatu nizkiola, hilabete abantxu. Caguen dios! Nik ere bazaukaat nire pazientzia.»

«Guanteak eta letxeak, esan zuen Manuk; nik ez diat ibiltzen.»

«Hik matematika jakingo duk baina, egunen batean esku bat errerik lagako duk hor... Ibili hadi guanterik gabe... Txiribiriak eskuz hartu behar dituk eta.»

«Zer dago, kontenedorea beteta?» galdetu zuen Pikutak.

«Hori duk! Eta zinta izorratuta zagok.»

«Tapax zabilek hortik; Burninoxen plantxa bat hartu behar zuela edo...»

«Errebuelta batean tunpateko bat hartuko dik horrek,» esan zuen Manuk.

«Hori bezala,» Joxemarik; berriz ere kaskoak jarritako tipoa pasa zen, eta: «Uuu! Espainiako babaloreen tertulia horietako bat aditzen egongo duk. Kurtsillo bat egiteko eman dik izena: *La influencia de la velocidad en el desgaste de su*

puta madre. Aditu dik, Piperrak jendea kanporatu behar duela eta, hasi dik arrastrea.»

«Kendu, kendu hortik!»

Barrura begiratu zuten. Pieza erraldoi bat zerabilen hortik hara gruak.

«Lau mila kilo, hi; harrobi baterako. Ostia: hemen duk eta.»

Lagunak harat-honat higitu, Pikutak eskorgari heldu zion.

Txaketa beltz karratu txikiekin, elastiko grisa, zapatak, ile motza... Josetxoren atzean, bi bulgariarrak eta beren laguntzailea makina batean ezarrita zegoen pieza bati so gelditu ziren.

«Manu: lotu ezak esparraguekin hori. Joxemari: mandrinoak preparatu behar dituk.»

«Sí señor,» esan zuen Joxemarik, pala pareta kontra utziz.

Josetxok garratz begiratu zion; Iñakiri, hara:

«Deitu al duk kaldereriara?... Eta, zer esan diate?»

«Zortzitan atera direla.»

«Atera direla?? Bagenekian, hori! Orain non diren jakin behar diagu! Deitu berriz ere!» Gruak zerabilen pieza ebitatzearren burua makurtuz,

bulgariarrekin elkartu zen. «Aquí va el motor, azaldu zien, planoa erakutsiz; Manu! Qué es esto? Esto está más kamutsa que la leche.»

Apartetxo gelditu zen bulgariarren laguntzailea, bizar beltzeko mutila. Belauniko, erreminta bila edo, lardaskan zebilen Joxemariri:

«Barkatu. Komuna?»

«E?» Bekain bat goititu, so terriblea eginez: «Komuna? Ostia... Gora joan beharko duk. Tailerrekoa itxita zagok. Esaiok horri.»

Bazetorren, eskuan burdinazko bola bat zerabilela, mutil ongi jantzi, kolore zatarreko bat. Mutilak, ordea, bestera egin zuen. Joxemarik, bulgariarrengatik:

«Zer duk hori, jende handia?»

«Hauek? esan zuen bizarbeltzak; konpradoreak... Gure enpresak lotu ditik hona, eraman dezaten hango lantoki batera makina.»

«Hi nongoa haiz ba?»

«Itesakoa... Ufa! Hotza egiten dik hemen.»

«Harri-txintxar hauek.»

«Bai... Porlanarekin alde ederra duk.»

«Eta gero, kea eta ostia, atea beti irekita behar dik...»

«Gurean aire egokitua jarri zigutek. Eta ondo zagok hori, e, ze, orain atea ireki, orain atea itxi, katarro handiak harrapatzen baitira itxi-ireki horietan.»

«Holakoa goian baditek eta, badakik? ni behintzat ez naik komentzitzen. Behin inor ez zela gora joan eta, sofan lo gelditu ninduan, ba, handik pixka batera, ordubete ere ez, halakoak esnatu naik eta, hi, krixton buruko mina, baina, krixtona e!» Bazetorren bueltan, burdin bola beti eskuan, mutil kolore eskasekoa, eta: «Hi: goiko komuna erabiltzerik bai? Lagunak behar dik.»

«Haizea sartu edo ez dakit zer egin zaion... Ez dabil ondo.»

«Lastima duk, hi: ostatura joan beharko diagu. Horiek ez ditek hire beharrik izango...?»

«Ez noski. Horiek erdaraz zakitek...»

«Nik baino hobekiago, seguru!»

Bazihoazela, bolako mutilak harrituta begiratu zien. Joxemarik Manuri mandrinoak taka utzi eta, isil-isilik atera ziren. Josetxo Iñakiri ari zitzaion:

«Urnietatik ezin dira pasa? Me caguen dios. Deizak Laspiurrera... Astelehenean izango dutela!»

Poligonoko ostatuan, barraz hona, txokoan, Yago beso hautsia; barraz hara, sutan zerbait ari, Naia segaila. Kanpotik elurrak islatzen zuenaz bat, toki estrategikoetan kokatu hiru-lau kandelatako argia. Butanozko estufa... Kafe-makina itzaliaren ondoan, transistore txiki bat piztuta zegoen.

Atea zabaldu, Laxaro agertu zen.

«Kaixo. Egun on!» Egun on, Yagok ere, eta: «Mesedez, beltza! Berezia!»

Espantu pixka batez begiratu zion Yagok; une bateko begirunez Naiak, sukaldetik etorriz; geroxeago, berriz:

«Hombre Laxaro! Ez zaitut ezagutu: 'Mesedez...'«

«Gauza onak, lege onean... Ederki zaudete!»

«Hori da. Zuriari begira.»

«Kandelekin eta... Ipuin zahar bat ematen du honek.» Ardoari biaje bat eman eta: «Ba al dago jateko zerbait?»

«Badago txorizoa... Nahi baduzu salda.»

«Salda? Ogi puxketa batekin, horixe behar dut.» Naiak sukaldera egin eta, Yagori: «Aiba; zer egin duk hor?»

«Lantokiko batek fenwitxarekin... Ez diat esango nolaz izan zen, leher egingo duk eta.»

«Fenwitxarekin besoa; esango nikek. Hankak bai: makina bat hanka... Azkenekoa Billabonako bat: Axier; ezagutuko duk, Lore Tapiarekin ibili zuan aspaldi. Asegurua gurekin eginda zeukaan. Zaragozako tailer batean montaje bat egiten ari zela, holako batek hanka harrapatu zioan: hezurrak maila-maila eginda. Anbulantziak ekarri zian honaino. Berrehun eta gehiago kilometro, eta gero, ospitalean, pentsio konpletoarekin egon zuan astebetez; eta, paperak zioena: laguna ondoko ohean. Lorerekin ez, beste batekin zebilean orduan. Orioko neska batekin zabilek orain.»

«Krixton neskazalea, alegia.»

«Esan nahi diat, alegia, aseguru ona zuela. Eta: aberia handia izan al da?»

«Puxka batekoa: astilla franko eta... Zera, ni zuloan ninduan, makina bati tripak osatzen eta, handik ateratzean, ez nian ikusi bazetorkidala... Azken unean besoarekin burua babestu nuelako, bestela...»

«Baldarra, mutila.»

«Sanopotro bat. Ebentuala; gurekin hirugarren eguna zian... Atx!»

«Orain ere min?»

«Bizkarra ere ez zaukaat oso moduz. Lehenbiziko gauean min izugarriak eta, medikuak lau indizio eman zizkidaan. Herenegun esan zidaan Sebasek, badela nolotila ere.»

«Nolotila, bai. Gure lagun batek hartzen zian hori. Lehengo urtean, obra batean ari zela hirugarren pisutik erori eta kadera txikitu zian. Egin ziotean nolabait konpondu eta kaderaren alde bakoitzean mariposa bana jarri. Orain gau eta egun estututa eraman behar izaten ditik mariposa horiek, bestela ezin dik arnasarik hartu; egunean bitan, berriz, lasatu egin behar izaten ditik, bestela liseriketa txarrak eta, ez baitu libratzen.»

«To! Txungoa behar dik horrek... Ba, atzo ere erori zuan gizajo bat aldamio batetik. La Nava-

len; hogeita bost metrotik erori omen zuan, eta urteak ere halaxe zitian.»

«Lanean hiltzea, petralkeria galanta. Hara, hemen dugu-ta!»

Bazetorren Naia, salda zekarrela. Laxarok, kanpora begira:

«Aizu, aizu. Ze polita dagoen.»

«Ya. Ba, jendea haserre dabil. Lehenago irratiak esan du: Iruñean, kale enkuesta egin dute eta, etxetik ezin atera eta lanera ezin heldu eta, sutan omen dago asko. Pentsatu dut: falta genuena; elurrarekin haserre!»

«Horretan alferrik haserretuko zara,» esan zuen Yagok.

«Ez da hain harritzekoa ere, esan zuen Laxarok. Zergak, ez al ditugu pagatzen? Non dira makinak? Hainbeste adelanto eta, elur pixka batekin, zera... Ez baita, Himalaiakorik ere!»

«Okerrena da argia; hau luzatzen bada... Osaba pasa da lehen; estutu batean, bere zizak ondo ote dauden, begira egon da.»

«Horixe! Bota egin behar. Eta negua, hasi besterik ez omen da egin.»

«Aiba, hori ere.»

Auto batetik irten zen Ane; beste norabait egin zuen, ordea. Bizkitartean, Bela azaldu zen: bufanda txuri-gorria, zapatilla eskasak, buruan ile zapaztatu batzuk. Plastiko batean bilduta zerbait zekarren galtzarbean; hura aulki luzean utzi eta, Laxarok:

«Zer, Bela: plastiko gainean jaitsi al haiz?»

«Pikutak eman dit. Pikutak.» Barrara heldu zen eta, mueka arraro batzuk eginez, baju-bajutik: «Aterako didazu...? Apa. Ze guapa zauden.»

«Bai; argi gutxirekin hobeto.»

«E, e. Bai. Pikutak eman dit. Ari badu... (plastikoa buru gainean jartzeko moldea); gero, etxerakoan...» (elur gainean, irristan joatekoa).

Basoerdia atera zion Naiak. Belak txanpon bi barraratu zituen, ongi kontatu zituen.

«Emaidazu Naia... euro batean, zerbait jateko.»

«Euro batean... nahi baduzu pintxo bat aterako dizut.»

«Bai; hobeto... kakakuete batzuk.» Zerbait atera zuen patrika batetik, harrituta behatu, berriz jaso zuen. «Gaur zer da, astelehena?»

«Ez, ostirala da gaur.»

«Ostirala? Iuuup!»

«Nondik nora, Bela?» esan zuen Laxarok, billete bat ateraz.

«Udaletxera joan behar dut. Pikutak esan dit. Zapak ez baitizkit konpondu nahi botak. Suelak, ezin dira konpondu, esan dit. Ez baitu merezi. Ez al du merezi? Esan diot: Bai. Esan dit: Ez dakit zer. Gaur zapatillekin atera eta... irrist! Ipurdiko handia. Gaizki dago espaloia han. Maldan... lisolisoa dago. Zerbait jarri behar da... koxkak edo dituena. Aldatu behar da.»

«Udaletxean... kasu egingo al dizute, Bela?»

«Igual bai. Igual bai.»

«Jaso horiek, esan zuen Naiak, Laxarok pagatuko dizu.»

«Joder, konfiantzak. Atera guri ere.»

Uf uf eginez, txamarrapean kremalleradun jertse beltz lodi batez jantzita sartu zen ostatura Ane: matrail hezur irtenak, begizuloak, bizkarrak okertxo; mendiko botak, gorroa, eskularruak ere bazituen. Estufaren arrimua bilatu zuen.

«Non sartu zara?»

«Isilik egon hadi, neska. Hernanin izan naun. Joateko... komediak! Eta hango munipek gaurko-

an beste zereginik ez nonbait eta, errezeta jarri zidaten. Hilabetean, hirugarrena zaukanat.»

«Ondo al dago orain harako bidea?» galdetu zuen Laxarok.

«Zera egongo duk. Astigarragara, kortxo batzuk hartzera joan behar nian eta, ezin izan nauk iritsi. Krixton tapoia zagok.»

«Bai; gora ere, krixtona zagon.»

Ane, zabar antza barra aulkian jarri zen, eta: «Nekatuta nagon. Tristea baita; hiru egun zaramatzanat buruan idea bakarra dudala: ohe bat non harrapatuko. Atzo ere, Dimas eta horiekin juntatu eta... Aizan: Ez dun kaferik izango?»

«Putxerokoa.»

«Hi haiz etxekoandrea, hi. Hago; ekatzan zigarro bat.»

Piztu egin zuen eta, Laxarok hari:

«Aurki deskuidatzen bahaiz, erretzeagatik ere isuna jarriko diten.»

«Bai motel, esan zuen Anek. Nik lehengo batean, Pasaian, kalean ninduan eta, zera, espaloia ez zikintzeagatik, estoldako zulotik barrena bota nian zigarro mutxikina... Ez zakiat zer izango zen; han behean baten batek garraxi egin zian.

Arratoiren bat izango zela pentsatu nian eta, badaezpada ere inguruan begiratu nian, protektorakoren bat ote zebilen.»

«Orain holako asko dago.»

«Jakingo dun ba, esan zuen Laxarok, lege berriarekin urtean hamar kale isun biltzen dituenari karneta kendu behar diotela?»

«Urtean hamar? Ederki hasi nauk.»

«Guk orain asegurua egiten dinagu, horrena.»

«Zuek, edozer.» Belak, makurtuxe, arretaz begiratzen zion Aneren gorputzari soslaian. «Zer ikusten didak hik?»

«Ez. Begira nengoen...»

«Zer daukat, tripotxa? Haurdun ez nagok, hori akordatu bazaik. Hi: batekin aski diagu oraingoz.» Kafesnea zekarren Naiak. «Tori,» eman zion Belari azukre koxkorra; zigarroa, berriz, Naiari, eta: «Esaidan zer ekarri behar dudan.»

«Kaja bat azukre, eta kafea... bi pakete nahikoa.» Haren aldean, barraz hara eseriz: «Amona, zer moduz duzue?»

«Hantxe zagon. Gaurko gaua harekin pasa behar dinat. Hori ere badun.»

Bela hurbildu zitzaion eta, delikatuki oso:

«Zuen amona...»

«Bai. Gure amonak hiri pañalak aldatu zizkian.»

«Zuen amona, niretzat...»

Beso bien keinu anple batez: egoteko, egin zuen. Aulkira joan, plastikotik koadro bat atera zuen.

«Elurra,» esan zuen; Aneri eman eta: «Nire partez.»

«Amonarentzat al da? Joder, Bela. Oso polita duk.» Irakurri zuen: «*La adoración de los Reyes Magos en la nieve*... Nork egina da?»

«Ez dun oraintxekoa hori.»

«Kentzak Laxaro zarpazar hori. Gustatuko zaiok. Lasai egon, Bela. Emango zioat. Poza hartuko dik.»

Belak begietan malko bi zituen.

«Begitu, esan zuen Naiak, ume bat izotzetan hor... Zer ba dabiltza makurtuta horiek?»

«Zer esan didate? galdetu zuen Anek. Poligonoan lapurrak ibili direla...»

«Jasan sartu dira, bai, esan zuen Naiak; kaja fuertea ireki dute. Lehenago Marian hemen izan da.»

Ane zerbait esatera zihoala, ostatuan Joxemari handia eta Axpe iluna azaldu ziren. Joxemarik lurrean ostiko batzuk jo zituelarik, Naiak:

«Hi, kanpoan astin itzak botak!»

Joxemarik, begi handiak irekita, xalo-xalo:

«Kanpoan nola astinduko ditut?»

Laxarok erlojuari behatu eta:

«Bueno, ni banoa,» esan zuen.

Joxemarik Naiari: «Hi astinduko haut e!» Laxarori: «Nora hoa hi? Hoztu egingo zaik sudur talo hori!»

«Hiri ez zaik, ez, berehala hoztuko...»

Bazihoala hura, Joxemarik:

«Leizezuloan, ederki zarete. Zer dun hori, pintura errupestre bat? Aupa, Bela.» Axperi: «Hik zer nahi duk? Neri ateraidan: kafesne handi bat, esnetsua, ez oso beroa, basoan, hiru koxkorrekin.»

«Dantza egiten duena nahi al duk? Putxerokoa zagok.»

«Ardoa, neska, ardoa, dena esan behar dun. Aupa, hi. Gaur ere kanta pare bat egin behar al digun?»

«Ez duk hik merezi... Lapurrak, zuenean ez al dira sartu? Merezi bai zuek.»

«Oraintxe esan dun. Penaz nagon, ez baitira sartu... Lapurrak ez: bat bakarra izan omen dun. Anterok ikusi din: gorroa jantzita, hesiaz hara egin eta komentutik gora ezkutatu omen dun.»

Axpek ere ardoa eskatu eta, komunera egin zuen.

«Hori noski, esan zuen Naiak, lapur txikiren bat.»

«Imajinatzen ari naizena izan baldin bada...»

«Ferminekin pentsatzen ari al haiz?»

«Hombre, esan zuen Anek; hori hola zabilek. Azkenekoan, noiz izango zen, urrian edo, uda pasata behintzat, Recambios Gorritin sartu eta, apal batean lo gelditu zuan. Goizean langileek bilatu zitean, eta: ‘Non nago? Non nago?’ hasi omen zuan. Hori beste behin Irulegiren koltxonerian edredoiak osten harrapatu zitean.»

«Guk ere... Orain ez, orain txintxo-txintxo gabiltzan, baina denbora batean, horko marmolak

eta, Sanchezeneko sardin-pote kajak eta, zer ez ote genituen eraman...»

«Ya. Konten pixka bat, ezta?»

«Hori dun. Rato bat gustora pasatu.»

Anek kafea apuratu zuen, eta:

«Nire gizonak, esan zuen, egun batean etxera treneko trabiesa batzuk ekarri zitian. ‘Zertarako behar ditugu trabiesa zahar horiek?’ galdetu nioan. ‘Hauek? esan zidaan, hauek? Hauekin etxe bat egitea zagon’.»

«Ondo esan zinan.»

«Horiek, tira. Lehengoan, berriz, niri ezer esan gabe, furgonetarekin baratzerako simaurrak ekarri zitian. Pixka bat txukundu zian, eta ez zidaan ezer esan, baina: usain goxoa utzi zian! Alaba mareatuta ibili zuan eta, leihoak ireki behar, egiten zuen hotzarekin. Esan zioat: berriz ez ekartzeko simaurrik.»

«Niri ere esan zidan amak: ez eramateko simaurrik etxera,» esan eta, klink egin zuen Joxemarik.

«Hik zer: lanik ez ala?» galdetu zuen Yagok.

«Lana? Zertarako. Esan zidak, pakeurruti horrek: ‘Kentzak elur hori hortik.’ Esan zioat: ‘Zer

ba kendu? Zurea edo nirea ote da ba elurra? Denona ez al da?'«

«Gauean ere zerbait lan ibili duk hik...»

«Hori dun; gauean ere lana. Orain, beharrari ekiteko amorratzen etorri naun... Hona ailegatu, eta: ez omen dago lanik; zera: pieza zekarren kamioia Mandazubiko aldapan gelditu omen dun. Esan dinat: fuera.»

«Generadorearekin ariko zarete?»

«Bai. Egongo ninduan ni bestela hemen.»

«Josetxo kontentu edukiko duk hik.»

Joxemari zigarroa piztera zihoala, Bela tentuz inguratu, keinu umil batez zigarroa eskatu zion.

«Guk tratua hola eginda zaukanagu; elkarren komenientzietara.»

«E? Nola duk hori?»

«Ni pipia jotzen bizi naun. Piperrak niri, berak nahi duen beste pagatzen zidan eta, gero nik ere, nahi dudan beste lan egiten dinat. Naia, polita, atera itzazu beste bi basoerdi. Hik, Ane?»

«Birra bat, igual.» Naiari: «Total...»

«Yagori nahi duena. Belari batere ez. Iepa...» Berriz Naiari: «Gaur zurekin egin dut amets.»

«Nirekin? Pesadilla bat, seguru.»

«Ez naiz ondo gogoratzen, baina ez zen amets txarra izango, adarra bero-bero esnatu naiz eta. Taka. Handik hona, ederki hoztu naiz.» Isilune bat izan zen, eta: «Hotza egiten duela, alegia.»

«Hemen ez.»

«Hemen ez...! Tailerrean, ikaragarri. Gainera, ardoa debekatu ziguten. Tekniko seguridad-higienekoak esan omen din, ez dela komeni. Piperrak berean whiskia giltzarekin itxita zaukan. Putakume hori, orain ere: 'Non sartu ote da alprojazar hori,' ibiliko dun. Kontentu egongo dun, bai. Asteartean kilo erdiko pieza galarazi nionan. Deskuidatu eta, taka, bi zentesimagatik moztu ninan gaizki.»

«Joder pieza hori.»

«De-dio; zaparrada ederra bota zidanan... 'Arinago, hi; arinago, hi;' eta, aldi berean, kalitatea nahi dik. Egun batean, kutxillak eskua eramango zidak; egun horretan egingo ditiat, Piperraren tripekin odolkiak.»

Belak zentimetro batzuk abantzarazi zuen delikatuki basoa; Naiak, erruki sotilaz zerbitzatu zion.

«Arima gogortu nahi ziguk putakume horrek. Esaten dik: ‘Esker txarrekoak zarete. Nire bizkar dirua egin eta egin eta kukuari begira zarete.’ Azken hilabetean, turnoa hiru alditan aldatu zidak. Gauean atera, eta: ‘Bihar goizean etorri behar duk.’ ‘Ez; nik biharko, planak baditiat.’ ‘Hik ikusiko duk.’ Me caguen... Joan den astean, berriz, igandean etorrarazi nindian, eta asteartean jaia eman. Esaten badit holakoren bat gaur, lepoa ferekatuko zioat.»

«Txarragoa da lanik eza...» esan zuen Naiak.

«Lanik eza, txarra? esan zuen Joxemarik; begiraion Piperraren semeari. Horrek ez din kolperik jotzen, eta zabal bizi dun. Lehengoan, bera ez dun arituko eta, tornuan ari zen bati begira zegoela, piezatik askatu eta lepoan txiribiri bat sartu zitzaionan; hiru eguneko bajarekin egon dun eta, gaur etorri dun, tan pantxo.»

«Nagusiek ere orduak ematen ditiztek, esan zuen Anek, zer uste duk hik?, gu nola puteatu sistemak asmatzen.»

«Bai,» tragua jo zuen Joxemarik; «gaineran-tzean, ondo!»

«Ikusi al duk Belak ze koadro oparitu dion gure amonari? Ikusi.»

Joxemarik, Axpek ere aldamenetik, koadroari halako arretaz begiratu eta, lehenak:

«Ez dinat inor ezagutzen. Ez dun hori hemengoa.»

«Holako elurrak eta holako jendeak ni, esan zuen Axpek, Bulgarian ikusita nagok.»

«Bulgarian izan haiz, ala?» galdetu zuen Anek.

«Hi! Honek mundu asko zaukan.»

«Oporretan ala?»

«Lanean. Lanean. Lehenengo Bulgarian, gero Mazedonian ere hiru hilabete pasa nitinan.»

«Han ez al zen gerra bat izan edo...?»

«Bosniako gerra, esan zuen Joxemarik; han izan ziren soldadu espainolak minbiziz erortzen ari ditun orain... Atera ezan azkenekoa, Naia. Bela, hik basoa beti beteta daukak.»

«Niri ez atera,» esan zuen Anek; Yagok ere esku libreaz tapatu zuen basoaren ahoa.

«Orain, joan hadi hara... Orain ez zagok munduan ibiltzerik, motel!»

«Ya. Irailaren hamaikakoaz geroz...»

«Eta: ba al dugu Bin Ladenen berririk edo...?»

«Gaixorik omen zagok osaba; horregatik ez omen da bere zulotik ateratzen.»

«Esaten dute, bere kolega bati utzi ziola telefono mobila, eta amerikanoak herriz herri kolega horri segika ibili direla.»

«Ni badaezpada ere, esan zuen Anek, puxka batean ez nauk aterako hemendik... Naia, firma ezan hemen.»

«Libratuko haiz. Irurako batek esan zuena: 'Nik egin behar diat, munduari su eman, eta Frantzia aldera ihes!'«

Oi! Zuberoa musika aditzen zen irratian. Belak burua Joxemariren sorbaldan jarri zuen; hari besarkatuta, begiak ertitxita Aneri begira zegoen.

Elur maluta ttiki-ttiki batzuk ari, oin bat, oin bi, Joxemari eta Axpe Unba aldera zetozen.

«Xagu horrek, engainatu egingo ditik hire hungariarrak. Aluminioa esan eta hojalata sartuko ziek, xaguzar horrek. Hik ez duk ezagutzen, Axpe.»

«Engainatu, horiek? Kostako zaiok. Horiek Balkanetako basakatuak dituk. Horiekin begiak erne ibiltzea badik hire patroi horrek. Horiek makina erosi egingo ditek, baina pagatu... Larri ibili.»

«Nahiago nikek hala balitz, baina, ez duk egongo, ez, kobratu gabe, txakurkume hori.»

Kamioi batek blokatzen zuen enpresako sarbidea; haren albotik ibili beharrez, Joxemarik elur pilatxoan estropezu egin eta saihetsekin elurra jo zuen.

«Hau duk hau desgrazia nirea. Hementxe geldituko nauk, ba... Ba al dakik aitak amari goizean leihotik elurra ikusi duenean zer esan dion? 'Kata, elur pila hori irina balitz, bukatuak genituen negu honetako bapezak!' Hotza zagok, hi.» Axpek eskua luzatu zion. Bazetorren kamioizalea kabinaren aldera; hari Joxemarik: «Ze, oraintxe etorri eta dagoeneko alde? Ez duk lanerako grina ikaragarririk hik!»

Iñaki ere azaldu zen tailerreko atean.

«Hi! Non sartu haiz? Ez haut ikusi kamioia deskargatzen.»

«Ostia. Bista ona daukak hik.»

«Segi barrura, hor ez daukak ja zer eginik eta.»

«Orain ez zaukaat, baina lasai! zer edo zer etorriko duk.»

«Sartu hadi agudo.»

«Ta, ta, ta,» burua gora, Joxemarik; «erori naizela ez al duk ikusten! Uste nian ez hintzela hor. Lehen Etxarri aldean erraketekin zebilela hi lakoxe bat ikusi diat eta; ez baldin bada tximino bat Olentzeroz mozorrotu.»

«Isildu hadi, simaurra esaten ari haiz eta.»

«Simaurra... aukeran usain txarrekoa. Non dituk honen bi lagunak?»

«Hor dituk.»

«Esaten diat, ba: oraintxe behar ez den paperen bat firmaratzen ariko zaiek...» Iñaki bazihoan, eta: «Hi: ekarri al dituk guanteak? Guanteak: ekarri al dituk?»

Isil joana egin zuen Iñakik.

«Hi, esan zuen Axpek; horrek ez dik problemarik bilatuko ala?»

«Problemarik? Ez horrek. Horri, segitzen banau ernegatzen, zartako bat emango zioat. Lepotik heldu eta burua mandrinadoran sartuko

zioat, adan-seme horri. Larri ibili, hi. Hik ez duk Joxemari ezagutzen.»

Iup honi, iup hari, lankideen artean tornu batera iritsi ziren. Haren ondoan, erditik moztutako bidoi zahar batean, sua piztuta zegoen.

«Pieza batzuk desbastatzen ari nauk... Ezin asma zertarako diren. Ez diat pentsatu ere egin nahi. Horrek jakingo dik igual. Hi, Gari. Zertarako dituk burdin puxka hauek?»

Garik pieza bat hartu, begiratu hemendik, begiratu handik, bertan laga eta, bazihoan deus esan gabe.

«Gizajoa; taladrinak afektatu dik. Guztiak badik bere esplikazioa, baina, ezin beti atzeman... Agian auto paratxokeetako gogorgarriak izango dituk, edo misiletako perkutoreak... Ia seguru duk behintzat ez dela deus konstruktiborik izango.» Makina piztu, platera jiraka hasi zen. «Aizak, Axpe. Hemen bazkalduko duk, ala?»

«Ez zakiat. Hauek esaten dutena...»

Joxemarik, alde samar tornuan ari zen Manuri:

«Hi, Manu! Riojanoarena gaur, irekita egongo duk ala!»

«Han ez duk, ordea, argirik izango!»

«Fijo. Bazkardon baduk beste bat. Babarrun ederrak ematen ditiztek: azak, odolkiak eta txerriki guztiak. Hire lagunek hor, flipatu egingo ditek.»

«Nik uste baietz eta esanez gero gogotik gelduko direla. Hona gatozela: ‘Bai herri polita,’ esan zidatek.»

«Herri polita? Ostia. Aditu al duk, Manu? Hungariako horiei Andoain gustatu zaiek.»

«Elurrarekin, ez zitean ongi ikusiko eta.»

«Hi, hi. Ostia, hi. Igual bai, e. Igual ez duk hain zatarra izango... Ba; honekin ez diat deus egiten. Hi: hor al daukak plato-kokodriloa?»

«Otegik zaukak.»

«Otegik? Etorriko duk. Sutondoan ederki gaudek.»

«Hor baduk beste bat, esan zuen Axpek, lehen ikusi diat: ‘Arroces carbonara y alioli’.»

«Hemen? Non baina?»

«Zubiaren parean, tuerka bat duen ate metalezko bat, letra txuri-gorriekin...»

«Hau duk kabroia. ‘Aceros al carbono y aleados,’ esaten dik honek. Aditu al duk, Manu?...»

Buru gainetik pieza handi bat pasatu zitzaien; Luziok, handik:

«Joxemari! Helduiok pixka bat honi...»

Joxemari harengana joan, gruako mandoa hartu zion eskutik. Luziori kasu eginez, poliki-poliki, pixka bat hara eta, fresadora gainera pieza jaisten hasi zen.

«Joxemari!» Goiko zubian Josetxo azaldu zen; mutur zakarrarekin: «Ostia, Joxemari! Etorri hadi hona!»

«Zaude! Orain ezin dut!...» Beti piezari begira: «Zein euli gaiztok heldu dik orain? Gaur ez diat ezer puxkatu, dakidala behintzat. Atzo bai; bidiazko fresa bat izorratu nian. Motel, aspaldi honetan oso solizitatua nagok. Aste honetan, bi bider igo nauk, eta aurrekoan ere... behin. Kalefakzioarekin lo gelditzen ez banaiz, behintzat. Behin, goian inor ez zela, igo eta, sofan siesta ederra bota nian...»

«Joxemari!»

«Itxoiteko, dios! Ez al dik ikusten...? Hara, bazetorrek bera...»

Pikuta eta Garro zutik zeuden suaren ondoan. Haraxeago Jabi, paletarekin kapazoa garbitzen ari zen. Kamioiaren bolanteari beso biekin heldu-ta, Tapax txatarra-zalea aparkatzeko maniobra egiten ari zen. Poligonotik kanpo, hesi paratzai-leak lanean ari ziren. Aditzen zen zerra elektriko-aren hotsa. Halako batean:

«Hara bestea!» esan zuen Pikutak.

Utzi zion ari zenari Jabik. Eskularruak eta gorro beltza jantzita, galtzak bustita, masailak gorri-gorri, begitarte arraiarekin zetorren tapa-tapa Mandi.

«Bizi haiz, edo!»

«Kezkatuta, ala!»

«Joder!»

«Belari eta Potori galdetu zieat, esan zuen Pi-kutak, inork ez omen hau ikusi, non sartu haiz, hi.»

«Taisatik pasatu nauk, ba; Potok ikusi naik.»

Suaren ondo-ondoan gelditu zen; sudurretik muki tanta zeriola, hozminduta musua, motel hitz egiten zuen.

«Hara! Donatok regla ekarri dik eta... Pareta-ren erdia raseatu duk abantxu.»

«Hots! Esango nikek... Eta: argiaren kaxeta bilatu duk, ala!»

«Ixilik egon hadi, motel, ixilik egon hadi.»

«Konpondu behintzat ez duk deus egin; lehen bezalaxe gaudek.»

«Aiba, hi,» Garrok zahatoa luzatu zion: «Egin ezak hurrup eta esaiguk zer ikusi duan.»

Mandik eskularruak erantzi zituen.

«Azkenean uste nuena baino buelta luzexeagoa egin diat, bai.» Tragua jo zuen, Jabiri zahatoa pasatu, eskuak igurtzi zituen. «Mutilak, esan zuen, hor atzean elurra ikaragarri zagok... Taisaren atzetik irten nauk poligonotik eta, kableei begira ibili nauk, begira ibili nauk... Uste nian kaxeta han nonbait zegoela. Goian torrea zegoan, posteak han eta han, ez zian oso urruti behar. Gora egin diat bide zaharretik, gora egin diat, aizak! Alde hori oso kanbiatuta zagok. Alde batean eta bestean, eukaliptusak zaudek.»

«Hombre, esan zuen Garrok, eukaliptus horiek guk aldatu genitian. Orain dela hiru, orain dela lau urte... Xamoan ere aldatu genitian.»

Pikutak zigarroak banatu zituen; Mandik berea piztu zuen, eta:

«Han ere bai, e? Tren geltoki gainean aldatu zenituztela banekian, baina han eta han, ez nekian... Behintzat, gora noala, halako batean bidea bukatu edo, galdu egin diat behinik behin bidea eta, kableei erreparatuta, gora segitu diat, nire ustez kaxeta egon behar zuen aldera gora segitu diat eta... Belaunetik gora elurretan ibili nauk han. Halako batean, Alanora heldu nauk. ‘Ostia, nora etorri naiz?’ Han kanpoan bazeudean ahuntz batzuk eta, pixka bat inguratu naizenean, Petra agertu duk: Petra, Alanokoa. Esan zidak: ‘Egun on, mutila, nondik nora zoaz?’ ‘Argindarraren kaxetara noa, amona, argiarekin zer pasatu den ikustera noa.’ ‘Argirik ez al dago?’ galdetu zidak. Esan zioat, herrian zer panorama dagoen. Esan zidak, behean zegoela kaxeta, bide zaharra hartu behar nuela hara joateko. Gero esan zidak: ‘Hara, zu Luisito zara, ezta? Zu Joxeren iloba... Zu gure Julianekin eskolan ibili zinen! Baina mutil, mutil, dena bustita zaude!’ Eta: ‘Zatoz barrura, sutondoan pixka bat berotuko zara.’ ‘Ez, amona, ez, lanean ari naiz, herria geldi-geldi dago eta denak nire zain dira!’ Eta, esan zidak berak: ‘Zaude lasai horregatik, argia

etorriko da eta. Ez da, ez, hura etorri gabe egongo.' Eta: 'Zatoz, zatoz, baso bat esne hartuko duzu'.»

«Ezin ezetz esan...»

«Hori duk. Ezin ezetz esan eta, sartu egin nauk borda barrura... Barruan antxume bat zegoan, eta lastoak eta artoak alde batean, eta beste aldean sua piztuta zegoan. Su bajua, hi; aspaldi nengoan holakorik ikusi gabe... Eta, esnearekin kazoa paratu dik sutan eta, mahai gainera gazta puxka bat atera dik eta, kontatu zidak... Espozeko ahuntzak omen ditik horiek: berak ekarrita handik. Hiru zahar bizi omen dituk Espozen, gazteenak hirurogeita hamazazpi urte, eta berak baditik: larogeita bat... Ahuntz polit batzuk, Murtziakoak edo, errape txikikoak, ez urratzeko larretan... Halako batean: 'Aditzen al duzu? galdetu zidak. Aditu, aditu, orain ere zer edo zer ari dira hor.' Aditzen jarri nauk, aditzen, kanpoan txintxarrien soinua aditu diat. 'Gauean ere, esan zidak, soinu horrekin lokartzen naiz ni; logalea eragiten dit tilin soinu horrek'.»

Irribarre zabala egin zuen Mandik.

«Eta, goiza harekin eman duk, ala?»

«Hago. Katilukoa egin diat eta, itsusia ez egiteagatik gazta puxka bat jan diat eta... Hara, horrek ere bereak partitu ditik.»

Poligonotik hara, bide zaharrean goitik behera, Motxo ilegorria eta bere zaldi pertxerona pasatu ziren: atzean esne marmitekin lera zeramala; tak-tak, hesia paratzen ari zirenak ebitatzearren pixka bat bazterrera jo, segitu zuten.

«‘Eta, galdetu zioat, bide zaharrera joateko, hemendik...?’ ‘Horko soroan barrena jaitsi eta, raka! bi minutuan bide zaharrean zara. Handik egin ezazu gora pixka bat eta, han dago kaxeta.’ Eskerrak eman zizkioat, gero ja kanpoan, elurraz eta bestez ari, eta: ‘Zuk uste duzu? esan zidak. Oraindik maite gaitu nonbait ere zeruak; aurten elur pixka bat eman digu behintzat’.»

«Gure amonak ere, bakean dagoela hura, holakoxeak esaten zitian,» esan zuen Jabik.

«Total; Petrak esandako sorotik barrena jaisten hasi nauk, pixka bat jaitsi nauk eta, banoala, bat-batean ohartu nauk akerra nire atzetik zetorrela. Atzetik, hi, atzetik akerra. ‘Ba, gelditukо duk.’ Gelditukо duk... Bai, zera: ni joan, eta hura nirekin etorri. ‘Aldegin ezak hemendik,’ egin

zioat makilarekin eta, pixka bat gelditu duk baina, segitu dudanean, hark ere segi atzetik. Elurretan, nik bidea egin eta akerra nik egindako bidean, laster bertan nian. ‘Ostia, hi! Zer nahi ote dit honek?,’ adarrekin hanka sagarretan talka-talka egiten zidaan. Ja beldurtuta, ni. Sekulako akerra, bizarra elurrerainokoa eta adar luze batzuk... Makilarekin o! o! egin zioat, orduan gelditu duk. Elorri edo, arbola txiki bat bazagoan hantxe, eta haren ondo-ondoan gelditu duk. Ni hari begira, hura niri begira, pixka batean hola egon gaituk. Tapa-tapa, segitu diat jaisten, hogei bat metroan ibili nauk behera, gero itzuli nauk, ostia! Han akerrik ez zegoan. ‘Nora sartu da?’ Misterioa. Ezer ez, hi, elurra txuri-txuri.»

«San Kanutoren parabola ez kontatu guri orain, e!»

«Zer, ba? Holaxe izan duk, neu hementxe nagoen moduan!»

«Bai, eta? Iritsi al haiz kaxetara, edo...?»

«Zera, iritsi nauk bide zahar horretara behintzat, handik maldatxo batean, aurreraxeago, taka, kaxetara heldu nauk... Hortxe zagok, hor atzeko aldean. Elurrik ez dela, eta bidea dakiala,

hemendik... hamar minutu ere ez. Heldu nauk ba hara eta, ni bazterretara begira, han kanpoan kutxillari sakatzeko palankaren bat ote zegoen; lehen izaten zuan ba. Eta... hor bazagok tubo handi bat, estoldara edo ez zakiat nora daraman horrek eta, han barruan, txerrikume bat ikusi diat. Fundi! Txerrikume bat... Zulotik kanpo burua erakusten zian, eta zango bat ere bai: euria ari ote duen, leihotik kanpo eskua atera-tzen duen andereñoaren antzera...»

Istant hartan, danba! aditu zen, handik ez urruti.

«Zer izan da hori...?»

«‘Nonbaitik alde egin ote du ba txerrikume honek?’, segitu zuen Mandik. Ni nire artean: ‘Arraroa da ba.’ Inguratu nauk estoldaren ertze-ra... Bat-batean, eskuzar bat atera duk zulotik: txerrikumeari belarrietatik heldu, ra! kukutu duk... Kurrin egiteko ere ez dik betarik izandu txerrikumeak. Barrura begiratu diat... Ezer ez, astoaren tripa baino ilunago zegoan!... Flipatuta gelditu nauk, hi.»

«Eta: kaxetan, ez al haiz sartu?»

«Motel! Kaxeta itxita zegoan, han ez diat sartzerik izan. Halako batean, gora begiratu diat eta, haraxeago, kablea botata zegoela ikusi diat. Elurrak bota dik postea eta kortozikuito bat izan duk, horixe izan duk, han ez duk besterik izan... Ederki nekatu nauk behintzat eta, ekarri zahatoa.»

Hura zurrut ari zela, Pikutak:

«Hori ere nekatu edo...»

Hara begiratu zuten. Unbako zubian Joxemari azaldu zen. Mantxo-mantxo urrats handika zubi erdiraino heldu, bertan gelditu, eskuan zekarren txamarra lurrean laga eta, laneko monoa aise erantzita, keinu anple batez besoa luzatuz, utzi zuen hura errekara erortzen. Txamarra jaso eta, zanpa-zanpa, errepidera egin zuen.

2
LABE ZAHARRA

Pertsonaiak:

TAPAX, txatarra-zalea.
ALTUNA, txatarreriako nagusia.
SAXO, kale painuelo saltzailea.
INDABA, burdin-hari enpresakoa.
SAKI (Arbizu), preso bat.
JONAS, beste preso bat.

Izenik ez dakigun Neska bat, Gaston txatarreriako bezeroa (gero ere azalduko dena); kalean, Jone (Mikaelaren alaba), eta beste; Indabaren enpresan, kartzela aurrean eta barruan Jende gehiago, Poliziak, Funtzionarioak.

Sastraken artean haur batzuk, kuku hemen eta kuku han, oihu garrasiak eginez elur konbate batean lotuta zeuden.

Espaloian bilduta, jertse koloretakoekin, larru txamarra xinpleekin jantzitako emakume aurpe-

gi-luzeek etsi keinuak egiten zituzten. Gona luze pintarratuak zituen haietako batek hanken artean laranjez beteriko poltsa bat zeukan.

Oinez zetorrela, haiengana heldu gabe, neska bat, hogei urte, banku batetik eskuaz elur pixka kendu, plastiko txiki bat ezarriz bertan jarri zen. Oso beltza ilea, txamarra ere beltza, lepoan bufanda gorriluna, lurrun laino bat askatzen zuen hatsaldi bakoitzean.

Burdinazko hesiaren ondoan, eskuan lore sorta bat zuen andre ongijantzi bat neskatila bati begira zegoen. Sei edo zazpi urtekoa, hura, buruan lazoa eta botaxka gorribiziekin jantzia, jolasten ziren haurrengandik begiak kitatu gabe txokolatez estaliriko bollo bat jaten ari zen.

Inguratu zitzaion neskatila hari bospasei urteko haur ijito ile-nahasi bat, egon ziren biak ala biak pixka batean jakinminez elkarri begira; bertatik bertara, elkarren hatz muturrekin jolastu ziren.

«Gloria!» hots egin zuen andre ongijantziak. Neskatilak mutikoaren eskua utzi, egin zuen andreagana lasterka.

Gona pintarratuko emakumeak laranja bat eskaini zion mutikoari. Eskukaldi batez retxazatu zuen mutikoak; laranjak lurrean pirrikan egin, elurretan zulo bat eginez han gelditu zen. Jaso zuen eskua emakumeak, eta mutikoa korri ihesi joan.

Oihu egin zien emakume haietako batek garitako poliziei: haserre zegoen, denbora asko zeramatelako zain. Jakinminez begiratu zion, hesiaz bestaldetik, farola konpontzen ari zen preso bizardunak.

Elur gesaletan soinu gozo bat eginez, kamioi bat heldu zen atarira. Haren albo batean: *Chatarras Altuna*, irakurri zuen neska ilebeltzak.

Polizia bat atera zen garitatik.

Grua txikian Altuna, pulpoarekin txatarra puxkak meta batetik hartu, kontainerrean sartzen ari zen.

Hankak elurretan erdi sarturik Gaston, bibote luzeak eta tripa biribila, eskuak galtza narrasetako poltsikoetan, puru txonkorra ezpainetan, burdin pila bati begira zegoen.

Han eta han, batzuk elurrez erdi estaliak: metal kontainer txikiak eta handiak, plantxazarrak, errejak, tuberiak, bizikleten eskeletoak, elektrodomestikoen karkasak, kaja registradorak, fregaderoak, sukalde bateriak, jostailu porroskak, ferrallak, burdinak, aluminioak eta beste metal gutxi-asko herdoildu batzuk. Haratago, errenkan, batzuk elkar gainka, auto zaharrak, pneumatikoak, tuboeskapeak eta beste.

Larruzko zamarradun ijito plantako gizaseme bik auto bateko motorrean zeukaten burua sartuta.

Tailerraren ondoan, balantza gainean zegoen Tapaxen kamioia.

Tapax bera: hortz-handi, begi-larri, eskuan giltza ingelesa, tailerretik irten, kamioira bezala zihoala, gizon tripatsuak, motor bati ostiko bat joz:

«Honek ehuneko zortziren bat bai.»

«Hamar bat ere.» Zalantza une bat, oraintxe zer edo zer gogoratuta bezala, berriz tailerrera egin zuen. Geroxeago, giltz ingelesa gabe eta aliketazarrak zekartzala itzuli zen.

«Beste hau, zakurrari botatzeko.»

«Bai; horrek ez dik gauza handirik edukiko, esan zuen Tapaxek. Hi: gaur zer da, hogeita zortzi?»

«Holakoren bat.»

«Ostia.»

Altunak burua atera zuen kabinatik kanpo.

«Tapax. Martutenera hoala... Yurretik deitu ditek, pasatzeko handik.»

«Yurretik?»

Pun! egin zuen gruaren ipurdiak. Tapaxek poltsikoak haztatu zituen; haietako batean giltza soinua adituz, Gastoni:

«Bueno, ni banoak.»

«Hoa, bai; horrekin entendituko nauk. Mantso ibili, aditu?!»

«Baai.»

Kamioian abiatu eta, aroztegi parean, Jone ikusi zuen: kokots-handia, dotore bere moduan, besapean karpeta zeramala, Tapax buru keinu eta irribarre batez saludatu zuen.

Autobian elurrik ez eta, hala ere normalean baino trafiko gutxiago zegoen.

Saxo ikusi zuen hurruna; semaforo batean, kleenexak saltzen ari zen.

Urrun zen eta, Tapaxek klaxona jo zion. Saxok ikusi, kasu egin zion.

Segidan Tapaxi semaforoa berde jarri zitzaion.

Saxo zen hartan, berriz, semaforoa gorritzean, auto txuri bat muturrarekin bidea pixka bat oztopatzen zuela gelditu zen.

Tapaxek primera sartu, aurrera egin zuen; Saxok, kleenex paketeak eskuan, bera despeditu eta, kaltzadara egin zuen; istant hartan auto txuriak, bere posizioa zuzendu beharrez, atzera egin zuen.

Hots bat izan zen; auto txuriak bere atzeko erruedarekin Saxori oina zanpatu zion.

Tapaxek frenatu eta bazterrera egin zuen. Meee eginez furgoneta batek aurreratu zuen.

Bitartean, auto txuriko gibeleko atea ireki egin zen; Saxok, ordea, oina harrapatuta zeukan eta, ezin izan zuen ebitatu ateak buruan jo zezan.

Tapax heldu zelarik, Saxo elurretan jesarria eta aurpegia odoletan zeukala zegoen. Kleenex paketeak barreiaturik, inguruan hiru gizaseme zituen: auto txurikoak ziren haiek, lan arropekin;

haietako bat, Saxoren kleenexak erabiliz, burutik odola xukatzen ari zitzaion.

Saxok ulu egiten zuen. Hankan zuela mina, hankan zuela mina.

Noski atzeraka erortzean, esan zuen gizaseme haietako batek, krak bat izan zen, ezlokatua behar zuen, ez baldin bazen hautsi.

«Te duele aquí?»

Saxok garraxi egin zuen.

Ospitalera eraman behar zutela. Hoztu gabe, batek esan zuen. Hotza behar zuela, zuzendu besteak.

Tapaxek hitzerdi batzuk marruskatu zituen; bere painueloa atera zuen urduri, harekin buruko zauria buxatu zion lagunari; laster gorritu zen hura.

Gizon haietako batek elur eskukada bat jarri zion buruan. Beste bat trapu batekin orkatila nolabait lotzen hasi zitzaion. Saxok, orain begiak itxi-itxi egin, orain zerura begira ikaragarri zabaltzen zituen. Gero negar batean hasi zen. Gelditu zen emakume bati:

«Hementxe nintzen, beti bezala nire kleenexak saltzen ari nintzen eta...»

Mokor-mokorra, auto txurira sartzen hasi ziren.

«Es... espera», esan zuen Tapaxek; «tengo ahí el camión...»

«Tranki! Ya le llevamos nosotros a la resi...»

«Tapax!» hots egin zuen auto barrutik Saxok, «afaria zor didaala, ez zaukaat ahaztua... Ai!... Otx!»

Semaforoa gorrian, mobilette bat eskibatuz abiatu ziren. Eskuan painuelo gorria zuela, bakarrik gelditu zen Tapax.

Airean zegoela heldu zen Yurrera. Barrenera egin, mostradorean mutil potolo bat monoz jantzitako tipo bat atenditzen ari zen.

«Badituzu hauek eta, gero txiki hauek ere, dos con siete por veinticincokoak...»

Atzeko biltegian, bistarekin bilatu zuen Indaba; hura ez ikusten eta, kableak kajetan moldatzen ari zen enplegatu ganbelu bati:

«Hi: lababoa?»

Arraro begiratu besteak; ate bat erakutsi zion.

Tripak arinago eta sudur puntatik ur ttantta zeriola atera zen handik. Enplegatu berari:

«Hi: txatarreriakoa nauk. Atzean izango duk igual...»

«E? A. Bai, atzera joan hadi.»

Kamioian heldu zen hara. Handik, barruan berehala Indaba ikusi zuen. Beste mutil batekin, bobina batean punta espinazko haria biltzen ari zen. Hark ere ikusi zuen Tapax eta, beragana etorriz:

«Zer dugu Tapax: berriz hona aldean?»

«Bai. Gu, badakik: bidaltzen gaituzten hartara... Hi ere betiko martxan.»

«Hementxe. Jubilazioa preparatzen.»

«Baai; emango digutenerako...»

«Zer edo zer tokatuko duk... Horiek dituk eramateko.»

«Hola, hola: dena txukun-txukun jarrita.»

«Ez duk asko baina, hori etorri duk. Eta: non habil edo...? Kalean ez haut aspaldian ikusi.»

«Patal ibili nauk eta... Lehengo astean eta aurrekoan bajan egon nauk.»

«Ez esan. Zer...»

«Betikoa...»

«A; hortik.»

«Bai; hemendik... Motel, orain ere gutxi egin dik ez baitit bihotzekoak eman: istripu bat ikusi diat hor...»

«A, bai: kamioi bat kruzatu duk edo...»

«Eeez; ez diat nik kamioirik ikusi. Zera, Loiolako semaforoan... Ezagutuko duk, gainera: Saxo, Larramendikoa; nola duk? Guk Saxo esaten zioagu... Kasiren semea.»

«Kasi... Kasi-kasi?»

«Zera!: Kasilda. Segunen andrea.»

«Segun... Segundo?»

«Ez: Segun-da: 'Segun-da nolakoa deken,' 'segun hau,' 'segun hura,' ari duk eta beti.»

«A! Jexux Mari: igeltseroa; begi-txatxu hori; lehenago Milarekin ibiltzen zena...»

«Hoori duk: Jexux Mari; guretzako, Saxo... Hor, Loiolako semaforo horretan, orain bera paperezko painueloak edo saltzen hor egoten duk eta... A ze sustoa eman didana! Ni ikusi eta kasu egiteko itzuli zaidak eta, kotxe batek hura ikusi gabe, jo eta hanka harrapatu ziok! Eta, Saxok egin dik atzera erori eta, orkatila edo berna hezurren bat hautsi ez bazaio... Egon. Eta, kotxe

horretan, atzeko asientoan bazetorrean beste tipo bat eta, hark hau erori dela ikusi duenean zer egin du eta, atea zabaldu dik eta, orduantxe Saxo jaikitzen ari zuan eta, besteak atearekin buruan jo ziok; odola mara-mara... Krixton panorama!»

«Jesus!... Horrek ere, puxka baterako baja.»

«Baja edo... Residentziara eraman ditek.»

«Indaba! Honek zenbat metro?» hots egin zuen tailerretik lankideak.

«Besteak bezala! Motel, motel... Ba, holako beste kasu bat aditu diat nik orain dela gutxi... Londresen uste diat izan dela. Mutiko bat, auto atzean eta noski atea ondo itxi gabe eta zinturoia jarri gabe omen zihoaan eta, bere amak bolantea jiratzean jo-ta autotik erori omen zuan.»

«Karajo hori ere!»

«Kontua duk, ez zakiat nolaz izan zen baina, gero amak maniobraren bat egin behar izan zian eta, semeari lepoa erruedapean hartu omen zioan!» Tapax mutu eta koloregabe geratu zen, eta: «Bueno... Horiek jasoko ditiagu edo...»

«Bai, bai; jasoko ditiagu.» Korreak ateratzen hasi zen eta:

«Nora hoa? Eskuz hobeto motel; kilo asko ez dituk eta... Guanterik ba al duk?»

Tapaxek kabinatik hartuta eskuetakoak jantzi zituen eta, bien artean hari herdoilduzko rolloak gabarrera bota zituzten.

«Santiomenditik ekarri ditiate, esan zuen Indabak; gerra baino lehenagokoak, hi. Ikusten? Bi punta, bi punta. Orain ez duk holakorik erabiltzen.»

«Joder! Hauek ez dituk ibiliko, gainerantzean, joan hona, joan hara, bazterrak alanbrespinoarekin josita zaudek!»

«Bai motel. Gurean hala ere, lana bazagok; saltzen den neurrian pagatuz gero... Ni behintzat, hilaren hogeirako...» Luzaturiko hatz erakuslearen eta erdikoaren artean atzeman zuen sudurra, tira egin, balizko mukiak lurrera botatzekoa egin zuen. «Hauek, utziz gero, aurki larrua ere kenduko zigutek.»

«Baai... Oraintxe esan duk... Zuek huelga egin behar al duzue?»

«Ez, metalean duk huelga, gu komertzio metala gaituk.»

«Zer da hori?»

«Ez zakiat. Patroiak esan duena.»

«Ostia; hark zer esango du, ba?»

«Ez zakiat; zer edo zer izango duk.»

Burdin-hariak kargatuta, tabako paketea atera zuen Indabak, Tapaxi eskaini zion.

«Ez. Utzi egin zioat.»

«Ondo egin duk. Nik ere utzi egin beharko nikek baina, aide! Orain zer, herrira?»

«Ez; zerera joan behar diat... Martutenera; kartzelara, alegia.»

«Kartzelara? Zer galdu zaik han?»

«Labe zaharren bat edo...»

«Joder. Zelako kontaktuak.»

«Nagusia; badakik. Ostia, hi. Ez duk ba ahaztekoa baina, Saxoren mobida horrekin... Zer ordu duk? Hirurak eta laurden... Uste diat lauretan gelditu naizela... Denbora zaukaat. Ba, atzo ere... Amak goizean esan zidaan, drogerian krema bat erosteko; arratsaldean, joan nauk drogeriara eta...»

«Indaba! Etorri hadi momentu batean...»

«Zer duk? Oraintxe noak. Eta...?»

«Ba, zera, joan nauk drogeriara eta, barruan nagoela... Ostia, hi: ‘Zertara etorri naiz?’ Bane-

kian, drogeriara behar nuela, baina zer erosi behar nuen, seko ahaztuta nengoan. Emakumeak: ‘Zer nahi duzu?’ Eta nik: ‘Ez, begira nago...’ Goitik behera eta alderik alde hasi nauk apalak begiratzen, halako batean han ikusi diat: Kremazit. ‘Hori, hori nahi dut’...»

«Hi haiz elementua... Bueno, hi, joan beharra zaukaat...»

«Baai. Egongo gaituk.»

Poliki-poliki heldu zen errepidera. Hantxe kruzean, stopean zain halabeharrean, sor-sor egon zen izkinako pasteleriari begira; hango bonba goxoak... Bat-batean, taka! berriz ere, arrebaren eguna zela gogoratu zitzaion, gauean harenean afaldu behar zuela. Pasteleria orain itxita zegoen, gero bueltan...

«Tienes el carné caducado.» Poliziak paperak itzuli zizkion.

«No jodas,» laño-laño, Tapaxek.

«Cómo que no joda...» Begi keinu arraro bat egin zuen poliziak. «Venga, pasa. Espera; para ahí.»

Tapaxek kamioia poliki abantzatu zuen. Bere atzean hots batzuk aditu zituen, emakume batek barrura egiteko aprobetxatu nahi izan zuen abagunea, tirabira bat izan zuen hesia ixten ari zen poliziarekin. Elur bola batek jo zuen aldameneko kristala. Garita ondoan geratu zuen kamioia.

«Gitanos...» marmarkatzen ari zen polizia. Kabinara igo antza egin zuen eta, begia bizarroki kiñatuz: «¿Qué llevas ahí?»

«Ahí... Un paraguas... unas patatas... unos eslabones...»

Non zer ikusi egin zuen poliziak, begiak ezertan ipini gabe; gero gabarrako koxkan bota jarri, erremolke barnea miratu zuen. Garitatik polizia argal batek, beraiei begira, ahoa zabaldu zuen. Haren atzeko kontrol pantaila batean, tipo bizardun bat ikusten zen, farola batetik eskegita zegoela.

«Adelante.»

Langa bat ireki zen, etxape batetik barrena patio batera iritsi zen Tapax.

Han inor ez zen ageri eta, pixka bat alde batera gelditu z, kabinatik jaitsi zen. Zuhaitz biluzi batean txori papagorri hegabeltx bat xaltoka ari

zen. Eraikin txikiaren aurrean, funtzionario batek mutil koxkor bati goxoki bat eskaini eta trukean musua eskatu zion.

«Usted.»

Mutil koxkorrak goxokia hartu eta brixt! etxe barrura ezkutatu zen.

«Oiga...»

Tapax itzuli egin zen.

«Es a mí?»

«A quién si no.»

«A; como has dicho ‘usted’...»

«Hm. Qué vienes, por el horno? Sígueme.»

«La factura...»

«Luego, luego.»

Funtzionarioak errejazko ate bat igaroarazi, sala huts batean barrena, pasillo batean itxoiteko esan, giltzarekin ate bat ireki zuen. Handik tiro batzuk, ugh! baten bat hiltzen ari zen telebistako hotsa etorri zitzaion. Pasilloan gelditu zen Tapax atea itxitakoan.

Bertan haraxeago, berari zorrotz begira kapelaño batez jantzitako tipo bizartxuri bat zegoen. Tapaxek «hola» esan eta, hark burua pixka

bat makurtuz agurtu zuelarik, Tapaxek ere, begirunez, burua makurtu zuen.

Tipo haren paretsuan, aulki batean jarrita, burua bufanda handi batean erdi bilduta, eskua matrailean, ijito gazte batek begiratzen zion uzkur. Hari ere makurtu zion burua begirunez Tapaxek; imintzio txiki bat egin zion hark.

Ate txiki bat ireki zen, burua granoz beteta zeukan mutil bat atera zen, bertara egin zuen bizar txurikoak.

Mobilak jo zuen une hartan. Tapaxek poltsikoak haztatu, telefonoa batetik atera, eta:

«Bai? Bai?...» Ez zuen ezer aditzen. «Ze arraio...» Arranguraturik begiratu zion mobilari, tekla bat sakatu zuen, belarriratu zuen, beste tekla bat sakatu zuen.

«Zu... txertatzera al zatoz?»

Bizarduna sartu zen hartatik, bata txuriz jantziriko emakume begi-argi, gerri-lodi bat ari zitzaion.

«Ez, ez; ni ez naiz hemengoa.»

Ahoa okertu zuen emakumeak, atea itxi zuen. Puxka batean segitu zuen Tapaxek mobilari beha. Ijitoak min aurpegi arranoz begiratzen

zion. Tapaxek ere min irudia egin zuen, eskua kokotsera eramanik:

«La muela?»

«Mmm.»

«Es jodido, sí. A mí el año pasado me quitaron una.»

Larri keinu bat egin zuen mutilak.

«Duele?» marruskatu zuen.

«Doler? No mucho. Te ponen una inyección, luego con unas tenazas pequeñas...» Zegokion esku imintzioez lagundu zuen esana; alta, mutila estuasunean zela ikusiz: «Lo mejor es prevenir. Para prevenir, lo mejor es masticar trozos de pan duro.»

Hartan agertu zen funtzionarioa, «vamos,» esan zuen. Irten ziren patiora, gero, hura oinez eta Tapax hari segika kamioian, izkina batetik hara, andamio batzuen azpitik, malda txiki bat behera, kartzela bazterreko eremu batera iritsi ziren.

Elurrez pintakatuta, zakar eta traste pila zegoen: enkofratzeko oholak, isolatzeko plantxak, sofa hondatu eta aulki kojo ipurdibako batzuk, edotariko egurrak, mailu elektriko bat, kartoiak,

oihalak... Futbolin zahar bat ere bazegoen, eta hantxe, alde batera botata, burdina kolatuzko labea.

«Ahí lo tienes. Arbizu! Jonas!» Hormazarraren kontra, espumazko koltxoiak pilatzen ari ziren bi mutili. «A ver, una mano aquí!... Ya te ayudan éstos. Bueno. Luego pásate por la oficina.»

«Vale...»

Bazihoan hura, Tapax korreak labe gainean hedatzen ari zela, bazetozen Arbizu eta Jonas geldi-geldi; publizitatezko bisera eta zamarra koloretsu batekin Arbizu, Tapax begira gelditu zitzaion.

«Apa,» saludatu zuen.

«Iepa... Euskalduna al haiz?»

«Baai.»

«Hola, hola; eutsi arrazari.»

Jonas mantso zetorren; kaskamotzean zakar luze bat, beroki beltz luze batekin jantzita zegoen.

Tapax beti begira eta, Arbizuk, betosko:

«Zer daukat: tximinoak aurpegian?»

«Ez. Hi ez al haiz... Saki?»

«Bai. Hi...»

«Ni, Tapax... Andoaingoa; Ormazabal.»

«Hi Ormazabal al haiz? Horixe, anaia gazteena! Tapax, hori duk... Arrebaren igual-iguala gainera.»

«Jooder. Hemen al hago?»

«Hemen naukatek... aurki sei hilabete. Joder, Josune. Non ote dabil?»

«Amaran, betiko moduan...»

«Hor al dago oraindik? La ostia... Eskuminak eman.» Jonasi: «Honen arreba: Josune; perla bat.»

«Josune... me suena, esan zuen Jonasek. Joan al da hori?»

«Tranki.»

Gorde samarrean piztu zuen Jonasek porru mutxikina.

«Hortaz hi, kamioiarekin habil...»

«Hemendik hara; mandatuak egiten... Hik ere kamioia huen, ala?»

«Bai. Import, export.»

«Import! esan zuen Jonasek; hor dago ba koxka...»

«Motel, motel..., esan zuen Sakik. Gaur gogoratu nauk herriarekin. Ederra egongo zuan, ba.»

«Baai; ederra... Erreka bazterrak zuri-zuri, kaleak ere elurrak hartuta, emakumeak katiuskak jantzita eta haurrak plastikoekin maldan... Fabrikak ere asko itxi egin behar izan ditek, argiak joan dituk eta...»

«Hemen ere, esan zuen Jonasek, apagoia izan da eta bisitak kendu dituzte, putakume horiek.»

«Pasaldeko mutila, segitu zuen Tapaxek, Motxo gorria lerarekin ibili duk esnea partitzen, eta... Usarralden basurdea ikusi omen dik Estonbako Ezekielek!»

Aho zabalik Jonas, Sakik, hari mutxikinaren mutxikina hartu eta, labe ertzearen kontra ipurdia jarrita, etsi antzean:

«Eta gu hemen...»

«La ostia... Ba al dakik orain zein ikusi dudan?... Saxo, ezagutuko duk... Jexux Mari; horixe bai: Kasildaren-eta semea... Larramendikoa... Ez ala? Igual ziok. Ba, hona nentorrela, hortxe, Loiolako semaforoan kotxe batek hanka harrapatu ziok. Gelditu zaiok hanka erruedapean eta, sustoarekin atzera erori duk eta, krak! orkatila hautsi zaiok. Gero, lurrean zela, kotxeko atea

ireki duk eta, tanka! kopetakoa ere...» Painueloaren punta sakelatik ateraz: «Honekin garbitu zioat...»

«Hori izaten da, esan zuen Jonasek, peatonak denbora gutxi duelako kruzatzeko kalea... Como media, semaforo berdearekin peatonak segundoko metro bat egin behar du.»

«Hi. Hori mobila duk, ala?» galdetu zuen Sakik.

«Bai...»

«Utzidak momentu batean.»

Tapaxek atera zuen, emateko horretan:

«Ez zaukak bateriarik e... Ondo ez zabilek behintzat; uste diat bateriarena dela.»

«A, a. Jaso, jaso.»

«Material pixka bat edo... zerbait ekarri duzu?» galdetu zuen Jonasek.

«Eez; holakorik ez.»

«Hi! esan zuen Sakik; hau herrikoa duk; hau legala duk...» Beti Jonasi: «Hi: ba al dakik goizean Felipek zer esan didan? Atzo ez dakit non, kontrol batean mobiletik hitz egiten ari zela tipo bat detenitu zutela. Irratian aditu dik berak.»

«Mobilarekin ari zelako?» galdetu zuen Tapaxek.

«Mobilarekin ari zelako. Gainera gelditu eta, zera, besobakarra omen zuan.»

«Jooder.»

«Bai. Krixton atxurrarekin omen zebilean. Istripu batean galdu omen zian beste besoa.»

«Oraintxe nator,» esan zuen Jonasek, eskua galtzen irriskora eramanez.

Hura hankak herrestan bazterrera zihoala, hargatixe, Sakik:

«Juizio zain, urtebete, hi. Lehengoan juizioa atera eta, zera, juizio erdian abokatua lokartu, hi: burua kanka, kanka, lo gelditzen ari omen zuan eta, honek jotzen omen zioan ukondoarekin saihetsean, zera, azkenean abokatuak besoak kruza-kruza egin eta mahai gainean seko lo gelditu zuan.»

«Eta, zer pasatu zen?»

«Ezer ez; juizioa suspenditu zitean.»

Jonas zetorrela, entzun zuten trenaren hotsa; plantatuta gelditu zen Jonas.

«Aditu, esan zuen; kotxeak daramazki horrek.»

«Bai, e?... esan zuen Tapaxek. Hotsa hala da, bai.»

«Renault Clio; Valladolidetik... Trenaren ondokoa naiz eta, beti trenean ibili gainera.» Hatz biko imintzioz Sakiri zigarroa eskatu zion. «Egun batean Renferi ederra sakatu nion.»

«Bai? galdetu zuen Sakik; zer egin hion, ba?»

«Zera. Joan eta etorriko billetea atera nuen, joan nintzen, gero ez nintzen etorri; que se jodan.» Zigarroak piztu, eta: «Behin, esan zuen, apeaderoan, trena galtzen ari nintzen eta... Krixton blankazoarekin, hi: bankuan lo gelditu nintzen. Eta, han nengoela, erlojua kendu zidan putakume batek. Swatch bat, hi, lehengo modeloetakoa; acero inoxidable; burdina ez, acero inoxidable.»

«Ya, ya. Joder, tragu bat hartzeko krixton gogoa zaukaat.»

«Gero esnatu nintzen, trenbidean buru bat ikusi nuen. Komoaidios, bi burdinen artean buru bat... Etorri ziren cipayo batzuk...»

«Nik Puerton, esan zuen Sakik, tipo bat ezagutu nian... Arrantzale bat. Itsasoan zegoela zerarekin, matxetearekin taka! moztu zian eskua.

Lurretik bostehun miliatara zeudean. Lagunek beso muturra lotu eta moztutako eskua kaja batean, izotzetan atunen artean sartu zitean. Eta, zera, gero ospitalean, eskua josi-josi egin eta bere tokian jarri ziotean.»

«Jooder hori ere.»

«Bai motel; orain edozein puxka jartzen ditek.»

«Burua ez, esan zuen Jonasek; nik ikusi nuen buru hura behintzat ez.»

«Burua ez, onartu zuen Sakik, gaineran-tzean... Emakumeek egiten ditek asko: kendu sudurra, jarri bularra... Gaur egun handia omen duk bularren komertzioa. Badituk handiak, badituk txikiak... Bular handiekin, kontuz ibili behar duk. Tipo bati baino gehiagori gertatu zaiok, emakume bulartsu batekin topo egin eta bizitza erabat aldatzea.»

Jonasek disgusto keinu bat egin zuen.

«Hi. Bokia mira-mira dago...»

Sakik zigarroari zupako bat eman, jaiki zen emeki; Tapax korreak tinkatzen hasi zen:

«Palankaren bat hor...»

Hantxe berean, burdina zahar bat atzeman zuen Sakik.

«Ni ailegatu nintzenean, esan zuen Jonasek, labe hau sukaldean zegoen. Egun batean molleja batzuk erre nituen plantxa horretan nik. Etorri zen Bujanda, ‘quién ha preparado estas mollejas?’ ‘Yo.’ ‘Tú? Muy buenas, tú. Te quedas en la cocina,’ esan zidan. Su puta madre... Molleja haiengatik, hi.»

«Liburutokiak.»

«Ee?»

«Molleja: liburutokia esaten duk.»

«Hi, hi. Adarrik ez jo.»

«Aber korrea hori,» esan zuen Tapaxek.

Korrea bat ongi, bestea sartzeko labea palankarekin altxatu zuten.

«Forjatua, esan zuen Jonasek, peligrosoa da; segituan rajatu edo nola esaten da? eta, ihes egiten du oxido karbonoak.»

«Pitzadura horiek, esan zuen Sasik, lija latzarekin ondo-ondo arraspatu eta, zepa eta gatzarekin pasta bat eginda primeran tapatzen dituk. Hortxe. Hortxe. Tirazak gora.»

Bi lagunak pixka bat apartatu ziren Tapaxek plumarekin labea jaso zuenean.

Istant hartan, tik, ireki, eta tak, itxi zen labeko atea, barruan oinetako bat, ondo ikusi al zuen?

«Eraman itzak kable hauek ere!» oihu egin zuen Sakik.

Labea gabarran okerrera laga, eta:

«Ee? Bai? Komeni ote da?»

«Komeniko ez duk. Deseatzen zaudek txatarra hauek kentzeko paretik.» Kableak erremolkera bota eta: «Kobrea, hi. Zenbatean dago orain?»

Lurrera salto eginda, Tapaxek:

«Euro hamar, euro hamabost, hor ibiltzen duk... Bueno, hi. ‘Egongo gaituk’ ez zakiat esatea dagoen, baina...»

Palanka ere bota zuen gabarrara Sakik.

«Etorri nahi duanean...» Tapaxek duda txiki bat egin zuen, gero kabinara igo zen, atzera Sakik: «Ahaztu gabe, Josuneri eskuminak eman eta... Deporreko Joxemiri ere, ikusten baduk, emaiok koskorreko bat... Nire partetik!»

Poliziak begi klik arraro bat eginda kableak jaso eta, labeko ate handia ahal zuen apurrean irekiz barrua begiratu zuen...

Errepidera irteteko horretan, eskuin-ezker begira zegoela neska batek kopilotuaren atea ireki zion.

«Nora zoaz?»

«Ee? Andoainera.»

«Ni ere hara noa ba; eramango nauzu?»

«Zer ba? harrituta, Tapax. E? Tira, igo, igo...»

Jesarlekutik paperak jaso eta aterkia atzera bota zuen.

«Trastez beteta daukat...»

Ez zuen ezer esan neskak. Abiatu ziren, Tapax aztoratuta zegoen.

«Ederra gelditu da!»

«E...?»

«Eguna: ederra!...»

«A! Bai...»

Beste isilaldi bat.

«Trafiko honekin...»

Neska beti isilik, Tapax sor-sor, aurrera begira. Haren urrina aditu zuen, disimuluan izterrak ikusi zizkion.

Kruzera ailegatzean, semaforo gorria: hargatik ikusi zuen pasteleria irekita zegoela.

«Aizu. Ez bazaizu inporta, pasta batzuk erosi behar ditut eta...»

«E? A! Bale, bale...»

Tapaxek errepide bazterrean kamioia nolabait utzi eta, arin-arin pasteleriara sartzera zihoala, ate automatikoa ikusi ez eta, kasik muturrekoa hartu zuen.

Barruan baziren beste bi bezero; Tapaxek zeuzkan diruak kontatu zituen, pasta eta pastelei begira dudaldia izan zuen... Ohartzerako, emakumea begira zeukan.

«Jarrizkidazu pasta horietako batzuk.»

«Zenbat jarriko dizkizut?»

«Ba, ez dakit... Kaja bat edo...»

«Zer moduz kaja hau?»

Irteterakoan, kanpoan, bi emakume txikitxiki: oso puestoak, auskalo zein adinetakoak, beren artean konplizitatez irribarre egin eta be-

rari begira zeuden. Kale bat harago etorkin bat biolina jotzen ari zen.

Kabinan sartu, han neskarik ez zen. Non ote...? Batera bestera begiratu zuen. Baldin ez bazuen... Ez noski: itxuraz behintzat ez zen ezer falta, giltzak ere bere tokian jarrita zeuden.

Plazara begiratu zuen. Han ere neskaren seinalerik ez. Iturriaren erdian harrizko txakur batek ura ematen zuen ahotik.

Urrin gozo bat lagata joan zen...

Brrrm!

3
ETXABEKO ASTOA

Pertsonaiak:

PEPE, ostalaria.
ANDER, basozaina.
TXEMIÑE, papeleroa.
PELLO, mekanikoa.
KAKO, pasteleroa.
TOLO, parokoa.
ERDOIZTA.
LAÑUA.

Gauerditik hara, Pepez gain, sei lagun ziren ostatu zaharrean.

Mahaiak eta aulkiak ez oso zein bere tokian, zerbeza botilak han eta hemen, Pepe musika zerbait jarri eta bi baso txiki likorez betetzen ari zen.

Kako luzea: iharra, zaildua, hagitz irtena zintzurreko koxkorra, lepoa okerka luzatu eta, su-

kaldean bainatzen ari zen haur txikiari zozo begira zegoen. Handik ama gazteak, haurraren eskua jaso eta, ume ahotsa irudikatuz:

«Hola, Kako... Hola.»

Pello: matrail-gorri, bizarbeltz, musean egiteko lagun bila zebilen; honek ezetz, hark ezetz, Anderri saihetsean ukondokoa jo zion.

«Partida bat?» esan zuen Anderrek, begiak asko zabaldu gabe; ezpain-harro, soin ederrekoa, barratik baso txikiari heldu eta kolpe batean hustu zuen; «bueno... Niri berdin zaidak; ni, total, horditzera etorri nauk... Pepe!» Hatz potoloaz, basoa betetzekoa.

Pepek zerbitzatu eta, Tolo lepamotzak, astebeteko bizar zarratukoa, ixtorio on bat zeukan doinuarekin, Anderri:

«Hi: ba al dakik zer egin duen Joxemarik gaur?»

«Joxemari... Goikok?»

«Bai; gaur goizean. Lantokian zegoela, gruarekin hiru tonako pieza jaisten ari zuan tornura poliki-poliki, bere martxan eta batekin hizketan eta... Josetxok ikusi dik ofizinatik eta, sutan dela jaitsi duk: ‘Ze ari haiz? Ez al dakik azkarrago,

ala?’ ‘Azkarrago? Presarik ba al dago, ba?’ Josetxok amorratuta raka! kendu ziok gruako mandoa eta, urduriarekin edo, rra! pieza kolpean jaitsi dik eta, danba! piezak tornua jo eta hondatu eta korreak a tomar por culo joan dituk... ‘Me caguen dios; putasemea haiz hi’... Joxemari ere, hi handi ni handi, pikatu duk eta: ‘Nahikoa duk; agur,’ esan omen dik. ‘Agur? esan ziok Josetxok, nora hoa, hi?’ ‘Nora noan, hiri esango diat!» Jo eta bertan alde egin ez ziok, ba, Josetxori muturren aurrean.»

«Eta: lana galdu al du?» galdetu zuen Txemiñek: ikazkin zahar aireño bat, ile-beltza, basakatu begiak.

Tolok bekainak goititu zituen.

«Galdu... zizatara joaten diren aitonak galtzen dituk... Berak utzi egin dik.»

Buruan gorroa, buztin ilunaren kolorekoa bisaia, isil-isila barre egiten zuen Erdoik bere sillan.

«Kilo erdiko pieza, hi, esan zuen Pellok; pieza, hondatutakoa: kilo erdikoa, hi; bazakiat ze nire anaiak ekarri zian Aiatik pieza hori...»

«Ez zuan burdinazkoa izango...»

Ez zen hala izango. Goizean etxe batean burdinazko kalefakzio bat ikusi zuen Kakok; halakoak orain Rocak bakarrik egiten zituen. Badira eta material hobeak. Hobeak? zera, hori modagatik zela. Anderrek Roca komunetakoa ezagutzen zuen. Kakok paf, paf, puruari indar pixka bat eman eta, muxin antza:

«Komunak? esan zuen; oraingoak ez dituk komunak. Lehenago bai, komunak: lehenago jendeak kaka egin behar zuenean simaurtokiko atean elkartu eta, solas egiten zian, e, solas... E? Komodoagoak oraingoak? Komodoagoak bai, baina...»

Lehenago-lehenago jendeak soroan egiten zuen. Orain dena tuberiatik barrena itsasoraino joan eta, horrela dago mundua, horrela dago dagoen bezala mundua. Itsasoan, kaka besterik ez balitz: galipota eta... Barkuetako pinturak ere egiten omen du kalte dexente, txipiroiei aldarazi egiten omen die sexua, esan zuen greenpeaceko batek. Izan ere mundua oso globalizatuta zegoen.

Hartan ari, tiro bat entzun zuten, urruti; ez oso urruti ere; basoan edo, goian izan zen.

«Lopez izango duk hori,» esan zuen Tolok; beretik edan eta: «Hori gauez katuei tiroak tiratzen ibiltzen duk eta.»

Erdoi berriz ere barrezka, bat-batean ostatuko atea zabaldu, Joxe Lañua agertu zen: sorbalda zabalak, musu-belarri izugarriak; ahotik lerdea zeriola, zapatilla erdi erantzita eta galtzerdirik gabe, orkatilan zauri gorria begibistan. Egin zizkioten galderei entzungor, zuzen barrara jo eta, bertan bokata txiki bat atzemanik jan egin zuen mokadu batean; hura irentsi eta:

«Zertzan?» galdetu zuen boz sendo batekin. Solomoa zela, Pepek, eta Lañuak: «Bestolakoiketziok?» Ezetz, Pepek, eta, gelditzen ziren pintxo bakanei errepaso bat emanik: «Batejatekonikez!» erabaki zuen; bat hartu zuen hala ere, jakia bota eta ogia agin-errotara sartuz: «Atazakeatekozeozer.»

Kopa bat atera zuen Pepek eta barrapetik botila lodi bat. Lañuak, berriz, Kakogana makotuz, kontatu zion...

Batere lorik egin gabe goizean lanera joan eta, elurra ari zuela aldamiotik aldamiora eta bigatik bigara saltoka ibili zen, hiru plantako etxe

batean kanaloia jartzen, goitik begiratzen zuen eta: ‘Ba, gaur ez nauk eroriko...’ esaten zuen eta, zera, teilatutik ez zela erori eta, orain, erreka ondoan jende pila bat eta haurrak eta ardoak eta arbolen gainean izurde bat ikusi zuen, zeruan, inolaz ere izurdea... Eta gora hura eta beragana bezala zetorren eta, bera begira, bera begira, atzera-atzera egin zuen eta zera, goitik behera errekara erori zen, airean kanpanbuelta bat egin eta suerte ona izan zuen ez zuelako errekapea buruarekin jo, eta suerte txarra izan zuen ze, erreka bazterrean bazegoen haurkotxe zahar bat eta, harekin egin zuen orkatilan ebakia.

Pepek hurrean ipini zion kopa, eta esan, berak prestaturiko brebaje ona zela. Kopa ertzean azukre hautsa eta pajita batekin, Lañuak begiak xuri-xuri eta errezeloz begiratzen zuen eta, Kakok tragutxo bat edan zuen eta ez zuen aurpegi ona baina ez zuen aurpegi txarra ere jarri eta, Lañuak heldu zion kopari garratz, haren eskuzarrean ez zen kristalik ikusten, beste eskuarekin pajita norabait hegan bidali zuen eta ezpainekin kopa ukitu zuenean: «Zer duk hau?»

Azukrea zela; Lañuak usaindu eta: «Alkohola badu?» galdetu zuen, eta baietz eta, jo eta orkatilako zaurian isuri zuen, Pepek betosko iluna jarri zuen eta besteek barre eta Erdoi berriz, beti isil-isila bera ere barrezka, malkoak begietara zitzaizkion eta joan zitzaion ahoa aurpegian alde batetik bestera, neke puska batez eta kokotsaren laguntzaz bere tokian berrezarri zuen, eta Kakok esan zuen, berari ere zumo espezie hark disgusto bat utzi ziola ahoan...

Halako batean, kanpoan marruma izugarri batzuk entzun zituzten; ikara antzean begiratu zioten batak besteari, Pellok egin zuen ate aldera aurrena, eta besteak atzetik, Lañua bera ere barran atzeman zuen zerbeza bat hartuta dinbidanba heldu zen ateraino.

Etxeko ezkaratzean izarren azpian asto bat zegoen; bastak jarrita, pufaka ari zen.

«Etxabeko astoa!» ezagutu zuen Pellok; hurbiltzekoa egin zuen baina astoak salto egin eta hortzak erakutsi zizkion, gizonek inguratu zuten eta Ander elurretara erori zen, ai, ai eginez han gelditu zen, Erdoik potx, potx eginez lortu zuen astoagana heltzea eta lepoaldea ferekatuz nola-

hala pixka bat lasaitu eta uhalak atzemanik leihoaren burdinazko herskailuan estekatu zuen eta bera baratzera txiza egitera baztertu zen, Anderrek ai-ai-ai segitzen zuen elurretan, hankan kalanbrea izan zuen eta Pellok eta Tolok jaso eta orujo tragu batekin bizkortu zuten.

Lañua zabu-zabuka inguratu zen eta bastazorroan begiratu eta jertse zahar han-eta-hemen zulaturiko bat atera zuen, eta duda gabe Etxabeko Tomasena zen, esan zuen Pellok, eta Kakok esan zuen: Tomas bera ez zela urruti ibiliko, bestela ez baitzen entenditzen, eta seguru asko astotik eroriko zela, ez zela izango aurreneko aldia... Eta Pellok esan zuen: Asto hark bazekiela bakarrik ibiltzen, eta noski etxetik pixka bat aldendu eta elurretan galdu egingo zela eta bere senez ostatura etorri, haren ama, berak ezagutu baitzuen, handik baziren... igual hamabost urte, etortzen baitzen egunero bertara: Tomasek bordan obrak egin zituenean kakoetan porlana garraioan erabiltzen baitzuen, eta bertan parada egin ere bai askotan, lasto batzuk edo baba puxka batzuk janez kanpoan uzten zuen, berak

txikito pare bat eta haren seme Tapaxek, artean umemoko bat, pipa batzuk jateko denbora...

Isilaldi bat izan zen, Pellok berak hautsi zuena:

«Bo! Ni etxera noak eta neuk eramango diat Etxabera astoa!» esan eta, egiten zuen hotzarekin nola eramango zuen, eta: «Etxerako bidean, etxerako bidean!» Ja hasi zen uhalak askatzen, Tolok ahapeka bezala esan zuen: «Baietz bakailaoa ahaztu...» «Arrayua, bai!» asaldatu zen Pello, ostatura sartu eta poltsa batekin atera zen. «Me caguen dios, etxera ailegatu eta ez baldin badut bakailaoa beratzen uzten, bihar arrebak kaxuelan ni jarriko naik pataten artean!»

Hainbesterekin uhalei heldu eta tiraka hasi zen, astoak ez zuen harekin joan nahi; piper min bat jartzeko ipurdian, esan zuen Txemiñek, baina Pellok oihu pare bat egin eta hura nahikoa ez zela sabelean ostiko bat jota komentzituta utzi zuen eta, bazihoazen, bada, gora aldera biak, eta haiek bazihoazela besteak haiei begira zeuden, zeruan izarratu ederra zegoen eta elurrarekin bazterrak franko ongi ikusi eta Aireko errebueltan ezkutatu ziren arte egon ziren begi-

ra, eta bizar haiekin eta astoarekin isil-isila elurretan, Anderrek esan zuen, Bibliako patriarka bat ematen zuela oraintxe.

Hotza sumatu zuten eta sartu ziren berriz ere ostatura lagunak, elurretan egun haietan gauza handiak gertatu ziren, Araban otsoak atera ziren eta Burgosko herrixka batetik zazpi atso helikopteroarekin erreskatatu zituzten...

Bitartean atera zituen edatekoak Pepek, eta berak esan zuen orain astoak edonon eta Adunan asto talde koxkor bat ikusi zuela berak, Tolok esan zuen, Bordaberrin goiza arrantzan ematen zuen asto jator bat bizi zela, haren arrantzak Eguzki tabernatik entzuten zirela, eta polideportibotik ere, lagun batek esan ziola hori, eta Txonaren aitak ere erosi zuela astoa, eta Txemiñek: Astoa ez, mandoa zela Txonaren aitak erosi zuena, baina mando hark ama zuela astoa, eta horregatik zituela astoaren belarriak, eta indarra, berriz, aitarena zuela, eta bizkor eta gogorragoak izaten zirela mando haiek, amaren aldetik astoak zirenak. Lañuak denbora guztian begiak itxirik eta irribarre handi bat egiten zuen eta azkenean begiak pixka bat zabalduz esan

zuen, berak bazekiela Txonaren aitak mando hura non erosi zuen, eta non erosi zuen jakin nahi bazuten Nafarroan erosi zuela, begia kiñatu zuen, eta ez zuen gehiago esango, «nteitzek?»

Han-han gogoratu zitzaion Kakori arratsaldean Tapax ikusi zuela Donostian.

«Amaran, obrak ziren kale batean zegoan hura, esku batean paketetxo bat eta bestearekin mobilaren numero txikiei sakatzen ari zitzaiela, eta ‘kaixo’ eta ‘kaixo’ eta ‘zer habil hemen?’ eta nik: ‘Hementxe, mandatu bat egiten... Eta hi?’... Egon pixka bat.»

Erori baitzitzaion ahotik purua; makurtu zen, jaso zuen, berriz hartu zuen ezpainetan.

«‘Hementxe, arrebaren etxera noak eta, bide batez, karneta kadukatu zaidala esan zidatek eta, foto batzuk ateratzeko zain.’ ‘A,’ nik, eta: ‘Fotoak?’ begiratu diat inguruan, eta: ‘Non atera behar dituk?’... Iepe!»

Berriz ere purua erori zitzaion, berriz makurtu zen, pafa-pafa egin, ez zuen ongi tiratzen, sua eskatu zuen, piztu zuen, inora begira gelditu zen.

«Eta? Zer pasa zaio...?»

«Epe; bai. ‘Fotoak? esan zioat, non atera behar dituk?’ eta: ‘Hemen, ba, fotomatonean;’ begiratu diat eta: ‘Ze fotomatona?’ begiratu dik berak ere eta: taka, orduantxe konturatu duk: fotomatona uste zuena, han ari ziren obra bateko kaseta bat izan, eta kanpoan ziren fotoak, ile soiltzearen aurkako anuntzio batekoak!»

«Sanoa mutila! esan zuen Txemiñek, eta: Haren arreba, haurdun al dago?» Ez nik dakidala, ez inork zekiela, ez zutela aspaldian ikusi; Txemiñek, berriz: «Lehengoan apeaderoan ikusi nian eta, irribarre eder batekin zegoan, halako kontentuarekin gero duda ibili nian: Haurdun ote dago?»

Baziren, ba, haurra izateko pentsatze hutsarekin gaixotzen zirenak ere, esan zuen Kakok, eta bera emakume balitz, haietakoa izango zela ze, latza baita, mundu puto honetara ume bat ekartzea. Baziren beren umetokia alokatzen zutenak ere, Tolok esan zuen; eta, negozio polita izan behar zuela horrek, bataz bestean zortzi mila dolar balio behar zuen umetokiaren alokairuak, euroak, beste hainbeste, edo gehiago igual orain, eta prezio horretan dena sartzen zen.

«Gaur egun zaila duk emakumeak kontentatzea,» esan zuen Kakok, eta Lañuak:

«Bai, ee?»

«Bai, bai, hala duk!»

Emakumeak, hemengoak izan edo hangoak izan alde handia izaten dela, esan zuen Kakok. «Italiakoak dituk emakume beroak, esan zuen; Frantzian, aldiz, ez dituk hain beroak izaten, baina eraman egiten haute, eta alperrik duk, ezin duk ebitatu...»

Hartan ari, kanpoan eztanda bat aditu zuten.

«Beste tiro bat,» esan zuen Txemiñek, eta denak une batez isildu, belarriak erne jarri zituzten; ez zen, baina, beste soinurik izan, eta Tolok esan zuen, Pelloren arreba izango zela hura, eta Pello bera bota ez bazuen aurki astojana izango zela Basaburun.

«Suediako bat ezagutu nian...» esan zuen Kakok, «hura, mutilak, besteak ez bezalakoa zuan, artea eta guk konprenitzen ez ditugun beste gauza batzuk apreziatzen zitian, hark zeukan ekarria hark, ez zakiat nongo katedralaz ari zuan eta ni berari begira eta karpa baino ixilago nengoan, eta ja zeharo etsi eta ja harengandik

ezer espero ez nuenean, bat-batean etxera lagunduko al nion galdetu zidaan...»

«Heuk bai suertea...»

«Aspaldiko kontuak... Orain ez, motel; orain, pelikula bukatzen denean ohera sartu, txorta pixka bat egin eta lo gelditzen nauk. Lo egin aurretik, ia gauero: telebistan dozena erdi bat hildako ikusi eta gero ohean larrujotze bat.»

«Guk holako gutxi,» esan zuen Txemiñek; berak behintzat, etxera lanetik neka-neka eginda heldu eta gogorik ez zuela askotan izaten; lehengoan hala ere, emaztea eta biak ohean zirela, egunero bezala telebista piztu eta inkesta baten berri ematen ari ziren, esan zuten amerikarrek astean behin egiten zutela, astean behin, hi, eta hori adituta telebistako presentadoreek barre egin zuten, noski gutxi zelakoan, eta emazteak ere aditu zuen hura eta, zer egingo zuten ba, asteguna baldin bazen ere, egin zutela saioa... Eta zerbait gehiago esatera zihoan baina kanpoan arrantza batzuk entzun zituzten eta hormaren kontra ostiko batzuk, Erdoi eta Kako atera ziren eta atzetik Txemiñe eta Tolo ere bai, basoa kolpean hustuta Ander ere eta La-

ñuak barra utzi eta bera ere zabuka eta atzetik Pepe ere bai oraingoan.

Kanpoan Tomasen astoa zegoen. Hormaren kontra izu egina eta hortzak klaska-klaska, Kako saiatu zen hari uhaletatik heltzen eta astoak txamarran osk egin zion eta atx! eskuan osk egin balio bezalaxe salto txiki batzuk eginez apartatu zen, Txemiñe kristoka hasi zen eta astoa orain-dik ere gehiago ikaratu eta bera ere jauzika hasi zen eta hiru lagunen artean inguratu eta berriz ere Erdoik potx, potx eginez lortu zuen hurbiltzea eta tripapean zingila pixka bat laxatu eta pixka bat baretu zuen, gero heldu zien uhalei eta leihoaren herskailuan estekatu zuen.

Lañua ere heldu zen astoagana baldarka eta basta-zorroan begiratu eta Tomasen jertse zaharraz gain poltsa bat atzeman zuen, eta noski Pelloren poltsa zen, Pelloren bakailaoa, eta Tolok esan zuen: «Merkea zagok, ba, bakailaoa!» eta orain ezkero Pellok balde batean gezatzen jarri zituela bizarrak, bitartean Erdoi astoari kokospean ferekak egiten ari zitzaion eta, astoak eskua lamizkatu zion.

«Han zer edo zer pasatu duk,» esan zuen Kakok, eta Pepek esan zuen, bidean lapurrekin topo egina izango zela Pello, eta goizean poligonoan ibili zirela eta arratsaldean Ezekielek mendian behera zetorrela pelaje gaiztoko tipo bat ikusi zuela Tapategin, eta: «Ke-ba! esan zuen Txemiñek, hori Amabiko ostatuan urteko pitarra probatzen gelditu duk Tomasekin-eta!,» han egongo zirela biak ala biak zein baino zein atxur galantagoarekin eta han beste konturik ez zela, eta astoa, berriz, zer egin behar zuen?, ezagutzen zuen bidetik barrena jaitsi, eta bide bakarra gainera! Eta bazitekeen hala izatea, eta bazitekeen ez izatea hala, eta hartan Erdoi isilak:

«Ikusi egin behar!» esan zuen, eta astoari belarrira hitz batzuk esan zizkion eta Pelloren bakailaoa basta-zorroan sartuta uhalak askatu zituen eta astoak orain batere protestatu gabe mantso-mantso jarraitu zion, lagunak harrituta zeuden, haiek ja bazihoazen gora eta lagunak haiei begira-begira, «horiek Etxabera? Txemiñek esan zuen, horiek ere Amabira bai!,» eta Tolok: Erdoik eramango zuela, bai, Etxabera astoa, batek eramango bazuen hark eramango zuela...

Segitu zituzten bistarekin Aireko errebueltaraino, eta ezkutatu zirenean, Kakok:

«Otxomak barrenera!» esan zuen eta, hala zihoazela, Tolok: «Gaur egun, animaliak eskapoan, normalena da;» egun gutxi lehenago Toledon zezen bat kamioi batetik ihes egin eta sartu omen zen Tajo ibaira behera eta gero gora alde zaharrera egin omen zuen eta jende saldo bat atzetik eta zibilak ere azaldu omen ziren baina jabea ez omen zuten identifikatzen eta jabearen baimena behar omen zen tiro egiteko eta, hala ari zirela plaza batera ailegatu ziren eta hantxe zezena zeharo errenditu eta erori egin omen zen, jende artetik albaitero bat azaldu omen zen eta hark jendea uxatu eta, esan omen zuen, zezena deprimituta zegoela...

Anderrek ez zuen ezer konprenitzen eta Pepek basoa bete zionean: «Demokrazia dagoen bitartean izango duk guretzako orujoa!,» eta Txemiñek: «Demokrazia... representatiboa!» esan eta, zerbeza tragu bat kolkoratu zuen eta musika eskatu zuen baina Pepek esan zuen ezetz, protestak izan ziren eta Kako kantari hasi zen eta Lañuak zer edo zer marmarkatu zuen

baina ez zeukan aski indarrik eta barraren kontra geratu zen isilik; Tolok esan zuen: «Guk, bestalde... oraindik badugu Camille!;» Camille, gure azkeneko hartza, orain bere kobazuloan negu siestan egongo zen hura, iaz esnatu eta lau ahuntzekin gosaldu omen zuen eta aurreko urtean berrogeita gehiago ardi akabatu zituen eta artzainak haserre zeuden... «Camille bizi den artean...!» Hutsik zegoen basoa jaso zuen Anderrek, Lañuak bere sudurrari heldu eta begiak kiñatu zituen eta, hartaz ari eta beste artzain baten kontua ekarri zuen Txemiñek: Granadako bat, poltsan larogeita hamar gramo kamamila zituela harrapatu zutena, eta fiskalak bi urteko kartzela zigorra eskatu zuen harentzat... «Ardiak, ardiak...! esan zuen Kakok; haiek gu baino hobeto bizi dituk ze, gu beti ezean bizi baikara, eta ardiak, berriz, hezetik hezera!»

Txemiñek Ander besarkatu zuen, eta honek, «oraintxe, esan zuen, mmm, oraintxe arkume bat, oraintxe sarmientoekin erreta txuletilla batzuk...», eta Txemiñek: Gaur ere, meza ostean, beheko plazan udaletxearen kontu txorizoak eta txakolinak eman zituztela, berrehun baino gehia-

go txorizo puxka baziren eta, bost minutuan denak bukatu zituzten!; sorianoak izango ziren, Kakok esan zuen, eta ke-ba! eta bertakoak ere bazirela eta hala zirela gehienak, Kakok esan zuen: «Mezak gosea ematen duela!,» eta Tolok, tripa ferekatuz: «Bai, ni horregatik ez nauk joaten!»

Istant hartan tiro bat aditu zuten, une batez denak isildu eta belarriak erne paratu zituzten baina ez zen beste soinurik izan, Kakok esan zuen hori ez zela ehizako eskopetarena izan eta hori fusil batena izan zela, eta Anderrek, eskopetarena izan zela, eta igual behi eroak zirela eta hasi zirela inguruko baserritarrak Inglaterrakoak bezala suizidatzen, eta Aezkoan oraindik orain erdi kaskatuta zeuden bi behiburu atzeman zituztela eta Tomasen astoa ere juizioa galduta egongo zela, Pepe, berriz, eskoba pasatzen hasi zen eta, pixka bat hari utzita esan zuen tiro hura tximinia batean botatakoa izango zela, baserriren batean tximinizuloa ikatzaren hautsarekin itsutu egingo zela eta suak hartu eta sua itzaltzeko tiroa gora bota egin behar zela...

Eta, aulkiak jasotzen hasi zelarik, beste ronda bat eskatu zioten, Pepek ezetz aurrena, baina Kakok zemai egin zion eta Anderrek denbora zaharrak aipatu zizkion eta bueno eta eurak zirelako eta azkenekoa aterako ziela, esan eta egin, eta Anderrek, barra gainean txatar pila bat utzita: esateko zenbat zen hura, bitartean Txemiñek billete handi bat utzi zuen barra gainean eta lehengoa ere egiteko zegoela eta biak egiteko handik, Lañua oraintxe esnatu zen eta: «Nikingoit!» esan zuen ez oso goxo, bere xarparekin hartu egin zuen billete hura eta airera bidali zuen eta berak pagatuko zuela, atera zuen sakelatik billete sorta bat, besteak samurturik gelditu ziren, pagatzera joan zen baina nonbait estropezu egin eta lurrera joan zen, Txemiñek esan zuen: «Atxur galanta harrapatu duk, kabroi horrek,» Anderrek paperezko serbilleta bat paratu zuen buru gainean eta kantari hasi zen, eta hura hala eta besteak nola-hala zeudela kanpoan pafaka ezagunak entzun zituzten.

«Hemen duk astoa,» esan eta, Txemiñe eta Tolo atera ziren eta zeukaten eskarmentuarekin eta Erdoiri ikasita ere, potx-potx eta maite-maite

egin eta erraz aski menderatu zuten, atera ziren eskobarekin Pepe eta orujo botilarekin Ander eta Kako bere puruarekin ere, astoak urruma egiten zuen eta dardarka eta hipaka zegoen, bizkarrean izerdi hotza eta tripa txuria ferekatuz noski penaren bat zeukala, Tolok esan zuen, eta sukarra zeukala, esan zuen Txemiñek, bitartean helduka-malduka Lañua ostatutik irten zen eta astoagana joanda lotu zen bere jakineko zereginari, basta-zorroan begiratu zuen eta hartan Tomasen jertseaz eta Pelloren bakailaoaz gain Erdoiren gorroa bilatu zuen; hura ikusirik:

«Hor goian baduk misterioren bat!» esan zuen Kakok, eta Anderrek:

«Erantzuna Amabin zagok!,» eta Txemiñek:

«Otxomak ba hara!» Eta bera aurrean, eta besteak atzean, Lañua eta Pepe izan ezik, besteak iufa eginez abiatu ziren astoarekin gora, astoa ja kontra egin gabe, etsi-etsian lotu zen bideari haiekin, Kako itzuli egin zen eta:

«Hi ez al hator?» eta Lañuak:

«Gojunna’ni,» gero joango zela bera, bitartean Pepe ostatura sartu zen eta lagunek segi

zuten gora eta aska parean zeudela Kako itzuli egin zen eta:

«Gero bazkari Tximitxan!»

Baietz gisa, orru bat egin zuen Lañuak, atzera Kakok:

«Txuleta bana...!»

«Baai!»

Txabola parean zirela, berriz ere itzuli zen Kako:

«Ordu bietan!»

«Baai!» Handik pixka batera, berriz: «Hiruretan!»

«Baale!;» Kuadrillan azkena, segi egin zuen Kakok eta, dagoeneko Aireko errebueltan: «Ahal baduk, ordu bietan etorri!»

Zer edo zer esan zuen Lañuak; haren ahotsa aditu zuten behintzat; ez zuten, baina, ulertu zer esaten zuen.

Aurrean Txemiñe, astoari uhaletatik helduz, eta besteak Kakorekin atzean, Kako kanta marmarrean hasi zen eta Ander eta Tolo ere aise eta airaturik aurrena, barre samurrak eginez, gero, berriz, Azkaraino arnas neketan eta berriketa gutxiko, handik gora Etxabe, beste horrenbeste

edo gehiago eta elurra ere ugariago zegoen, orain lehengo hanka zuloei begira Kako zihoan Txemiñerekin aurrean, gero astoa, pafa-pafa eginez ez oso lasai, Anderrek hari, eztula eta eztularen artean hitz goxo batzuk esaten zizkion, taldean Tolo zen atzena, hura ere ozta-ozta eta pixka bat kuxkurtuta zihoan, aurrerago langa bat pasatu eta handik hatzek bitara egiten zuten eta noski batetik Amabira, eta bestetik Etxabera iritsiko ziren, eta bueno, eta batek xuxen Amabira nahi, eta besteak, lehendabizi astoa Etxaben bere ukuiluan utzi, eta gero jaitsiko zirela Amabira txorizo-arrautzekin gosari egitera, eta azkeneko hori, eta hala, hotzarekin zurrunduta eta erdi pot eginda atera ziren Etxabeko kaskora, zeruan mila izar eta ekialdera pixka bat argitzen hasi zen, bertan hiru arbola zeuden, haien enborrak antzigartuta eta kukuluetan, berriz, hosto iluntxa batzuk, orain astoak ez zuen aurrera egin nahi, uhaletatik tira egin eta makilarekin saihetsak berotu ere bai, handik Etxabe berehalaxe zegoen, etxeko teilatua ikusten zen ja, bat-batean Anderrek esan zuen han aurrean itzal batzuk ikusi zituela, adarra jo zioten eta, baietz, esan zuen An-

derrek, han kanpoan jendea zebilela, besteek ez zuten ezer ikusten eta pixka bat segitu zuten, halako batean:

«Alto! Manos arriba!»

Begiratu zutenerako, inguratuta zeuden, Txemiñek eskuak altxatu zituen eta astoak jauzi egin eta Kako elurretara jausi eta tiro bat izan, sustoarekin Ander ere jausi zen elurretan eta astoak arrantza handi bat egin eta maldan behera harrapaka joan zen, hartara Tolok ere elurra jo zuen eta guardia zibilek, baserritik jaitsi, eta gogor hartu zituzten.

Lañuak hurrena, ostatu kanpoan enbor batzuen gainean lo gelditu zen eta, astoaren arrantzekin iratzarririk, zabar jaiki eta, haren bastazorroan Tomasen jertseaz, Pelloren bakailaoaz eta Erdoiren gorroaz gain, orujo botila bat atzeman zuen. «Gehiegi edan diat!» esan eta, lo segitu zuen.

4
AMONAREN AROA

Pertsonaiak:

ALDAI, funerariakoa.
DIMAS, haren laguntzailea.
SAIOA, artista.
ANE, Saioaren ahizpa, eta haren Haurra.
FELI, Ane eta Saioaren ama.
AMONA.
Izeba ANTONIA eta Osaba ESTEBAN.
Osaba GREGORIO.
PACO, Aneren gizona.

Pikuta, Jendea ospitalean, Taxista bat, Bi langile, Hesi paratzaileak, Guardia zibilak, Ertzainak, Joxemari (une batez), Gizon txiki bat, eta beste.

Goizean, urrutiko baseliza gainean eguzki txiki bat, begietan izarrak oraindik, sudurra motz,

musua gorri, eskuak txamarrako sakeletan sartuta, trinkili-trankala heldu zen Karrikara Dimas.

Kioskoaren ondoan, Aldai dagoeneko autoan sartuta zegoen. Konkorkara, buru soila, bibote beltzak aho ertzetara luzatuak, traje ilunarekin inpekable jantzita zegoen.

Dimasek atea ireki, egunonak esan eta:

«Kosta egin zaik nonbait ere jaikitzea!» erasan zion Aldaik.

«Gosaldu ere egin behar izaten da eta... Goiz, ala!»

«Joder, goiz! Bederatziak ere badituk eta. Ni bai goiz!» Autoa demarratu zuen, eta: «Sei t'erdietan deitu zidatek... Ja hildakoek ere ez ditiztek loaren orduak begiratzen.»

«Klaro: anuntzioan 'veinticuatro horas' jartzen duzu eta... Serbizioa al dugu ba, serbizioa?»

Aldaik, zirika doinuan: «Bisita zaukaagu, bisita! Eez...»

Dimasek bere zigarroa piztu zuen eta: «Peugeota? Non dugu ba, peugeota?»

«Peugeota? Ixilik egon hadi motel, hori ere aurki lurra emateko zagok... Atzo etxe parean

krixton putzua laga zian eta, tailerrean utzi diat, gero handik pasatu behar diagu.»

Dimasek, kea hartu eta: «Esan nizun: kulata izango da hori; kulata... fijo gainera.» Kea bota eta, Aldaik eskuina hartzen zuela ikusiz: «Nora goaz, ba?»

«Rotondan obrak ari dituk eta, bariantea hartuko diagu... Kukuteko amona hil duk: Feliren ama; kale zaharrean bizi dituk ba...»

«Feli? Bai. Haren gizona, Juan Mari edo nola da, orain kalean ardo txuria aurrean duela asko ikusten da.»

«Juan Mari, bai. Iaz jubilatu zuan eta. Tailerrean zegoenean, bake ederra. Feli eta... zazpi senide dituk. Nemesio zuan zortzigarrena, hura orain dela bost urte, eguberritan, gibeletik hil zuan; bigarrena Joakin, igeltseroa, bera ere mendearekin jubilatu zena; hirugarrena Gregorio, aszensoreetakoa, ezkondugabea; gero zatorrek Feli, eta amona berarekin bizi, gero Lorentxi, belar-dendakoa, Altunarekin ezkonduta dagoena...»

«Altuna, txatarreriakoa? Bazakiat zein den... Ba, ostegunean edo noiz izan zen?, haien alaba-

rekin parranda egin genuen eta, ez zidan ezer esan.»

«Feliren alaba, zein? Ane izango zuan... Eta, zer esan behar zian?» Dimasek ikaragarri zabaldu zuen ahoa. «Atzo ere firin-faran ibiliko hintzen.»

«Firin-faran edo... Gaupasan nago, gaupasan;» Aldaik errebes begiratu zion; «lasai! Ondo nago eta. Etxera joan eta amarekin solas polit bat egin eta, gero zuk deitu duzu, dutxatu eta arropak kanbiatzeko ere denbora izan dut.»

«Hobe duk hola. Eta, gauean nondik nora? Atzo plazan ez baihindudan ikusi.»

«Plazara ez ginen iritsi. Riojanoan egin genuen afaria. Baldok marisko txiki batzuk atera zizkigun, eta gero entsalada eta kostilla jan genuen; ederra kostilla. Gazta ere bai gainean, ez dakit nongo gazta zen. Gero Baldok ez zigun kobratu nahi izan, Anterok arratsaldean txakurkume bat oparitu ziolako. Likore bat ere atera zigun eta harekin, nolabait atera ginen handik. Baina, nolabait...»

Autobiatik aterata, kurba handia hartu zuten.

«Eta: izan al zen inoiz-izaten-ez-dena?»

«Zera... Ikusi bai. Gu oso begiratuak baitgara. Neska bat, aizu. Ukiezin horietakoa: guapa-guapa, txamarra erdirekia, bular erdiak begi bistan, ni haiei begira nengoela, halako batean berak begiratu zidan... Zer da hori?»

«Kontrola... Azkenean berandu ailegatuko gaituk.»

«Ba. Itxoingo dik horrek.»

«Bai; horrek ez dik presa handirik izango...»

Bide ertzean guardia zibil bat sasitan erdi gordeta zegoen. Errepidean pintxoak, patrol bat, kañoi handiekiko eskopetekin hiru guardia maskaratu, honago beste bat, hura maskara gabe, gaztea, autoak banan-banan begiratzen ari zena. Egin zien baztertzekoa, patrolaren atzean gelditu ziren.

«Adónde van?»

Aldaik buru imintzioa egin zuen atzera. Zibila makurtu, atzera gain-so bat eman, gero Dimasi zorrotz begiratu zion.

«Bajen.» Dimasi: «Usted, ahí. Usted, abra atrás... Llevan a alguien?»

«Dónde? Ahí?... Que yo sepa no.»

«Abra.» Aldaik hilkutxa pixka bat ireki zuen, zibilak aldean zegoen trapu bat jaso zuen. «Y esto?»

«Botellas; tengo el coche en el taller y...»

«Para qué son?»

«Son de sidra.»

«Por qué están vacías?»

«Pues, hemos bebido y... Se devuelven: se llevan a la tienda...»

«Mm. A ver. Los carnés.»

Aldaik berea eman zion, Dimasek berriz, sakelak haztatuz denbora pixka bat eman zuen eta:

«Pues... Se maolvidao.»

«Se taolvidao?»

«Sí. Ahora mismo me he cambiado los pantalones y...»

«Vacía los bolsillos. Deja todo ahí. Mira pal monte. Usted también. Nombre.»

«Igor Carbayo Lasa.»

Zibila patrolera zihoala, Dimas dardarka, haren ondoan Aldaik pentsamentu beltzen bat zerabilen. Zibilak patroletik:

«No figura.»

Dimas izuli egin zen.

«Es con i griega: Carbayo.»

Atzean zuen maskaratu batek koskorrekoa jo zion.

«Qué te han dicho. Las manos fuera.»

Brr, brr; harako bidean, arbol biluziak alde bietara, joan zihoazen emakume biri so gelditu zen; haiek arrunt txikituta zeudela:

«Recoge tus cosas. Porque estoy de buen humor... Venga.»

Biak autoan sartuta, handik pixka batera:

«Carbayo con i griega, esan zuen Aldaik; ederra duk hori.»

«Putakumeak. Esan egin behar: 'Llevan a alguien?' Esan egin behar.»

«Beren lana ditek. Gu lasai. Ez duk aditu, ministroak esan duena?: beldurrak dagoenak, berak jakingo du zergatik dagoen...»

«Harria behintzat ondo gordeta neukan.»

«Harria al daukak?... Hori ez zaik ahaztuko, ez; kalamidadea, hi. Ederretik libratu haiz. Esaiek horiei... Horiek ez dituk txapel gorrikoak bezalakoak e! Haiekin sikiera hitz egitea bazagok...»

«Ba! Haiekin ere, hitz gutxiago eta hobeto.»

«Zer, ba?... Haiek ere txakurrak izango dituk baina, diferentzia ederra!...»

«He! Haiek ere zartako garratzak ematen dituzte, eta euskaraz, min gehiago da.»

Hartan zirela mobilak soinua jo zuen.

«Bai?» Aldaik hartu zuen. «Bai, esan... Berriz ere hori... Bai, bai. Esaiozu bat libre gelditu dela: gain-gainean, eguteran, bista ederreko tokian eta ondoan... Valentin ez dakit zer, poeta famoso baten hilobia daukala. Aber zer esaten duen. Hori da;» mobila jaso, zigarro bi atera zituen; «ikusi al duk hori...? Masaje bat emango niokek... Eta, atzoko bularrak, azkenean...?»

«E? A. Ezer ez. Han utzi nituen... Ederra neska. Pixka bat dardarka utzi ninduen baina, uste dut bera ez zela ohartu.»

Elizan behera hartu zuten, eskuaz esnezalea saludatu zuen Aldaik.

«Ni ere txorarazi nindian neska batek behin, gaupasa batean. Elkarri solas goxo batzuk esan, arrimatu ere egin gintuan pixka bat eta... Gero hotzak zegoela eta, txamarra utzi nioan... Ez diat

handik hona ikusi; txamarra. Neska ere ez... Ederretik libratu ninduan.»

«Guk gurea: gu, baso mutilak... Gero zera, bat hona, bat hara, azkenean, denak sakabanatuta. Goizaldean, ez dakit ze ordu izango zen, berriz juntatu gara; Antero ezik, kasa-sokorroren batean egongo da eta hura, denak juntatu gara. Ez dakit nolaz ez garen galtzen...»

«Hori duk, badelako orden relatibo bat; gauza guztietan izaten duk ordena, fisika duk hori... Sentitzen diat, hi: nik ikusi diat aurrena.» Berak aparkatzeko maniobrari ekin eta, trabeska begiratzen zien txoferrari erdiko hatzaz keinu sastar bat egin zion Dimasek. «Hori duk...»

Autotik jaitsi, Pikutak zepillo zabalarekin elur baltsak zerabiltzan harantza.

«Pikuta, zer habil!»

«Hementxe, kaleari brilloa ateratzen!»

«Berriz ere elurra egin behar duela esan dik gobernuak. Alper-alperrik ari haiz.» Kalean behera egin eta: «Hemen duk.»

Eskailera buruan hats-hats egin eta Dimas bere korbatako korapiloa atontzen ari zela ireki zuen Saioak atea: ile horia, orbainak aurpegian,

gorrituta begiak. Egunonak, esku ukaldiak, sentimentuak eman eta, barrura zihoazela:

«Hortxe... Itxoin...» Ate bat itxi zuen. «Txikia erdi esnai dago eta...» Sofa gainetik kutxa bat eta paper eta liburu batzuk jasoz: «Ama osabagana joan da; oraintxe etorriko dira...»

«Utzi, utzi. Hementxe egongo gara.»

«Fotoak begiratzen ari nintzen... Nahi al duzue kafe bat edo?»

«Ez, eskerrik asko.»

«Jarri, jarri. Eman, bai...»

Dimasek txamarra hari eman eta, biak eseri ziren.

«Goxo dago hemen,» esan zuen Aldaik.

«Bai... Kanpoan hotz handia...»

«Bai; elurra asko kentzen ari du baina.»

Joan zen txamarrarekin Saioa, sukaldetik ontzi txikien hotsa heldu zitzaien. Biak pixka batean isilik, Aldaik, asto gainean zegoen koadroari begira:

«Hori... Kukute duk, ezta?» esan zuen.

«Ez dakit...»

Bandexa batean bi kikara eta termoa zekartzala etorri zen Saioa.

«Nahi baduzue...»

«Eskerrik asko. Ez zenuen molestia hartu behar.»

«Hori Kukute izango da ala?» galdetu zuen Dimasek.

«Bai... Amonaren etxea.» Etxe aurrean, belaze handi bat: berde iluna, bi segalarik bibelarra ebaki ahala argitzen ari zena. «Amona gaztea zenean, urte osoko belarrak ateratzen zituzten belaze horretatik.»

Belazearen azpian, zumarren ondoan, zerrategia zegoen. Haren leihozulo batetik metalezko tubo bat atera eta, kanpoan zerrautsak mendi txiki bat egiten zuen. Zerrautsaren hori marroixka, belazearen berdea, zuhaitzetako osto horikailduak, erreka zilarra... Hirurak koadroari begira:

«Erreka horretan, esan zuen Aldaik, ezkailuak harrapatzen ibiltzen ginen gu txikitan. Harrapatu egiten genituen... harrapatzeagatik, gero jan ez genituen egiten baina.»

«Baina, esan zuen Dimasek, hori orain ez dago hola, ala?»

«Ez. Denbora batean zegoen bezala pintatu dut... Amonak esanda...» Malko bat xukatu zuen. «A; hemen dira.»

Ate hotsak, Ane eta Feli azaldu ziren. Irribarre txiki batekin eta begizuloekin Ane, eskularru gorriminak kentzen ari zela. Feli lepasendoak, haragi maxkalak kokospean, ezpain ertzak oker, begi hezeak eta urduri.

«Nire sentimentua...» Aldaik eta Dimasek amari musu pare bana eman zizkioten.

«Eskerrik asko... Sasoia bazuen baina, hara, bera ere joan da.»

«Hori da guretzako dagoena.»

Haurraren gelara sartu zen Ane, itxi gabe laga zuen atea. Felik Saioari:

«Aitak deitu al du?» Ezetz, eta: «Osaba orain etorriko da.» Aldairi: «Juan Mari ere laster etorriko da... Jarri, jarri.» Hirurak jarri ziren, geroxeago Saioa ere bai aulkian. «Bueno, zuk esango diguzu zer egin beharra dagoen.»

«Bai. Esan didazu... hortaz, zure amak asegururik ez zuen?» Hobeki aditzeko bezala, suduraldea zimurtu zuen, ardura eta arreta seinale.

«Ez; gurekin batean egitera joan zen eta, hirurogeita hamarrak paseak zituela eta, ez zioten egin.»

«Ya. Orain... lehenbizikoa eskela preparatzea izango da: nolakoa nahi duzuen, zeinek agertu behar duen, argazkia...»

Saioari Felik: «Bilatu al duzu?»

«Ez. Kutxan ez dago.»

«Armarioan igual... Ba, ez dakit, eskela,» Saioari begira, «normal bat, ezta? Tamainaz, nahi dut esan... Diarioan ateratzekoa.»

«Ederki; modelo horretan hormakoa ere preparatuko dugu... Agurra beilatokian egingo dugu, ezta?»

«Bai... igual hori onena.»

«Orain normalean hola egiten da. Gero joan gaitezke hara momentu batean, tokia eta gauzak nola diren ikusi eta... Kutxari dagokionez,» karteratik katalogo batzuk atera zituen, «zuek idea bat egiteko... Orain hauek erabiltzen dira asko, gama honetan, edo honetan, hauek denak gaztainezkoak dira eta hauek, berriz, senzilloagoak.»

«Ez dakit. Senzilloena ere ez... Aber besteek zer esaten duten...»

«Lasai horregatik; iruditzen bazaizu, orain katalogo hauek utziko dizkizut eta gero zuek erabakiko duzue... Lore koroak ere, hortxe dituzue...»

«Bueno, gauza bat. Orain alabarekin komentatzen etorri gara eta... Kremazioa, izaten da ba...»

«Kremazioa, bai. Orain asko ibiltzen dena da.»

«Bai, ezta? Total, kanposantuan hamar urte pasa eta kenarazi egingo digute... Txukuna da ala?»

«Kremazioa? Dudarik gabe.»

«Errautsak jardinean zabaltzeko edo...»

«Barreiatzea normalean mendi kasko edo txoko batean edo itsasoan egiten da... Bestela, etxean ere badago gordetzea. Hautsak familiarenak dira: haiekin zuek nahi duzuena egitea daukazue. Orain, auzoan jende gehiago bizi baldin bada, legeak ez du permititzen...»

«Ya. Esan diot Aneri zeozer izango zela...»

Ondoko gelatik, Aneren ahotsak:

«Ama: Kukuten.» Haurrak oihuxka bat egin zuen. «Tori, maitea, tori...»

«Han bai; han ez litzateke trabarik izango...»

«Bueno eta... gutxi gorabehera, besteei esateko, zenbatean aterako litzaiguke dena?»

«Ehortzi edo erraustu aldea dago; dena dela, gutxieneko zerbitzua: garraioak eta baimenak eta beste numero txikiekin dena bat eginda, hortxe mila, mila eta ehun euro izango litzateke. Orain, estraren bat nahi izanez gero...»

«Estra, zer izaten da?»

«Batzuek nahi izaten dute defuntua pixka bat apaindu... Badakizu, makillaje pixka bat edo...»

«Bueno, egin behar bada...»

«Hori, zuek nahi duzuena; hiletan egon behar badu...»

«Bai...»

«Beharko genuke janzteko soinekoren bat ere.»

«Joaterako bilatuko dizut.»

«Arratsean baldin bada ere. Orain begiratu behar duguna... Goizaldean zendu bada...»

«Goizaldean, bai; seiak aldean izan da.»

«Bueno, nik esango dizut: bata nahi duzuela edo bestea nahi duzuela, bihar goiz edo arratsaldean egin beharko genuke. Hori bai: nahi izanez gero ehortzi, komeniko litzateke gaur eguerdian guri esatea, guk ehortzaileari ordu bat esateko; hark normalean...»

Istant hartan telefonoa jo zuen.

«Zaude, nik hartuko dut, esan zuen Felik... Bai? Bai... Zer pasatu da ba?» Dimasi burua okertzen ari zitzaion eta, Aldaik ukondokoa jo zion. «Ez esan... Zer esaten ari zara? Baina, nola da posible...? Ez, ondo nago, bai;» denak hari begira, ondoko gelatik Ane ere jertsea jasota haurrari bularra ematen ari zitzaiola atera zen pasillora; «bai, bai... Baina, non? Ondo begiratu duzue? Bai, bai... Deitu. Bale.»

Telefonoa eskegi, esku biak aurpegian, izu begiekin:

«Amona... ez dago bere gelan!»

Biaje luze gozo bat egin zuen irudipenarekin lazo-lazo jaiki zen amona, baso bat ur edan zuen eta, bere poltsatik soinekoak ateraz, haiek astiro

jantzi eta, haietan ondo kukuturik, antiojoak eta gorroa atzendu gabe, bere monederoa ere hartu eta, gelatik atera zen.

Baratx-baratx bere zapatillekin pasilloaren burura heldu zelarik, bertan emakume lodi bat lurrean etzanda zegoen, mutil bat painuelo batekin haizea ematen ari zitzaion eta inguruan bi erizain harekin zer egin, berriketan zeuden.

Ama gaixoa, etxe aldean ez belar eta ez ezkur eta ez ezer, tripan xomorroak hazi ez bazituen!

Amona: iharra, zimela, zimurra... Ile txuriak tutuluan bildurik atzean, esku-orpoaz eskudelari helduta eskailerak kilin-kilin jaitsi eta, bebarru zabalean gizon zahar meharxka batek makila jasota gogor protesta egiten zuen; beste deusekin eta beste inorekin erreparatu gabe atean zen taxi batera egin zuen amonak. Atzeko jesarlekuan okerka jarri zelarik, ispiluan txoferraren begiak ikusi zituen.

«Andoain, Andoain!» hots egin zion.

Poliki abiatu eta, maldan behera zihoazela, txoferrak:

«Hotza, eguna!»

«Ez da ona, ez, esan zuen amonak. Beroa, ordea, txarragoa da... Larogeita hamabosteko udan, beroa zela eta hiru ume hilik jaio zituen gure txerramak!»

Entenditu ote zion... Bere begi beltzekin begiratu zion ispilutik txoferrak.

«Ez da komeni, ez, bero handia ere,» esan zuen.

Amona harritu egin zen; kasualidadea, hura ere txerrizalea izatea.

«Bosgarren umealdia, jaso zuen ahotsa, azaroan zazpi ume ekarri zituen. Bularra kendu eta, sei saldu eta, etxean bat gelditu da. Ume gogorrak, harenak.»

Txoferrak ez zuen besterik esan eta, amona ere isildu egin zen.

Mantso zebilen oso. Hark ere buruan bere gauzak. Semaforo batean neska guapa batekin solas pixka bat egin zuen. Arra-abiatu eta, txoferrak, umore gozoan:

«Ederra dago hortik gora ere. Atzo Besabira behar eta, ezin Xoxokatik pasa. Gaur goizean makina ibili da.»

Hark irratia piztu zuenez, amona, hotzantxa eta, bere berokian kukulduta gelditu zen.

Bonbolontena nere laztana
ez egin lorik basuan...

Halako batean zerratoki zaharra ikusi zuen.

«Hemen!» egin zuen salto.

«Hemen?» esan zuen txoferrak, aldean etxerik ez ikusi eta.

«Ez, hemen; hemen badago bidea...»

Monederotik billete ximur bat atera zuen, txoferrak ez baitzuen ahurra biltzen, txanpon txikiak banan-banan eskuratu zizkion: hiru-lau txanpon, gero beste bat, gero beste bat, txoferrak azkenean:

«Utzi, utzi!,» joateko, eskuarekin eginez.

Taxiak alde egin eta, kamioi batek ia bazterrera bota zuen. Fabrika berri bat zegoen zerrategiaren ondoan, haren hesiaz hara zegoen etxerako bidea. Autoak aurpegi kontra, nondik bazterrera egingo, bide izkinatik xirri-xarra hasi zen. Aurreraxeago bi gizaseme, bat eskailera gainean, bide seinale bat jartzen ari ziren; be-

hean zenak, amona makina mendia ebakitzen ari zen tokira zihoala ikusi eta:

«Amona!» hots egin zion; amonak besoaz agurtu zuen; igual ikusi zuen hark, bazeukala monederoa, badaezpada ere ez zion kasurik egin.

Poliki, zapatillak ez zikintzearren elur lokaztuari begira, zumarretara arribatu zen; hiru zumar, kukuluetan hosto gorrizta batzuk, enborraren alde batean horma, beltxuria beste aldea eguzkiaren argitan, elur gainean hiru itzal.

Makila bat hartu eta, ote muiloen artean bide zidorrari lotu zen amona. Baziren bertan oinetakoen arrastoak, baten bat ibili zen han. Orain pauso txiki batzuk, orain pausagune bat, orain mallo-mallo segi...

Urri eta azaroan gaztaina eta ezkurra ausarki jan zituen baina, orain, egositik ere behar! Umeak, berriz, azen hostoak bilatu bazituen...

Laster erreka zulotik atera, mendi bizkarrean gora zapatillak herrestan nekez egin zuen. Taketa baten kontra deskantso puxka bat egin... Zerua garbi, isiltasun handia zegoen.

Belazera iristen ari zela, taketa gehiago, mukerraren azpian bi mutil azaldu ziren. Alanbre sarea jartzen ari ziren... Sareari eusten ziola, bizar luzeak zituen mutil haietako batek; besteak, txiki sendokote bat, orrika handiak tiki-taka zerabilzkien. Biak gelditu ziren bera ikusirik. Behetik gora, bizarra zuenak:

«Zer: paseoan?»

Ez zituen ezagutzen. Hala ere, jatorrak ematen zuten eta, galdera doinuan:

«Zerria bere umearekin hor ibiliko da...»

«Zerria? Gaur ez da hemendik ikusi; atzo bai ikusi genuen: hor gaindi ibili zen elurretan iñauska.»

«Eztularekin utzi nuen eta txikia...»

Bizardunak, irribarre batekin:

«Bai... Eztula, kaso egin behar...! Guk ere izan genuen gurean holakoxe bat. Uhu eta uhu hasi zen eta, ohartzerako, jaiki ezin zela bere ohatzean ezarrita zegoen. Urrixa zen, ume gutxikoa hala ere. Sukar gaixtoa, esan zigun albaiteroak eta, hobe zela hiltzea. Esan genion, egiteko berak: guk ezin genuen. Argia zen oso, bizi-bizia eta, bere moduan, diskretoa ere bai.»

«Alajainkia,» esan zuen amonak.

Mutil txikiak elorriaren orpotik zahatoa hartu eta, egin zuen amonari ematekoa.

«Eez...» Ukabila airean itxiz imintzio garratz bat egin zuen amonak. «Egitekoak baditut...!»

«Nahi al duzu etxera laguntzea?»

«Ez baldin badute eraman...»

«Eraman? esan zion bizarrekoak; lasai egon, hura bazterrak nahasten ibiliko da eta.»

Txikiak zahatoari biaje bat eman, eta:

«Lehengoan reportaje batean, esan zuen, esan zuten txerriek gauza asko erakutsi digutela. Hara, txerriekin hasi omen ziren zesareak egiten, gero, dena ondo zihoala eta, emakumeekin probatu zuten. Hik ba al henkien hori?... Esan zuten baita ere, granjako txerriek buruhausteak eta horrelakoak izaten dituztela.»

«Ya. Han hobeto jatea.»

«Granjan? Ez diat uste.»

«Bai... Granjako janaria konpletoagoa duk. Noski, badituk azkar gizentzeko ematen dizkieten produktu horiek guztiak. Baina gure janarian ere badituk ingrediente harrigarri batzuk. Ogia, esate baterako. Ez duk ogi naturala, denetatik

pixka bat bazagok bertan. Ez zakiagu zer duen, eta usaina ere ez duk batere lehengoa. Negar egitekoa duk, baina jan egiten diagu...»

Amona, esku imintzio bat eginez bazihoan eta, agur esatearekin ikusi zuten:

«Etxeko zapatillekin zabilek eta...» Hari begira gelditu ziren.

Malda zurian xarra-xarra hankak elurretan ondo sarturik gaztainondo zaharrera heldu zen amona. Haren adar beso batean inoiz ikusi bako isats luzeko txori beltz bat ikusi zuen.

Negu eguzkiaren azpian mendi muinoak zurizuri, haritz baso txikiaren ondoan... etxea.

Bista jaitsi zuelarik txerri hatzak ikusi zituen elurretan.

Feli ondoezik sofan jesarrita zegoen eta haren alboetan alaba biak, Saioak eskuan ur baso bat zuela hitz laztanak esanez eta Anek esku bat amaren eskuan eta beste besoarekin haurra bularrera eutsiz, Aldai leiho ondoan mobiletik hizketan ari zen eta Dimas haren aldean eskuak poltsikoetan eta begiak arrunt irekita zegoen, bi-

tartean osaba Esteban hezur-hutsa eta bere emazte Antonia pintarratua azaldu ziren eta Feli haiei esplikazioak ematen ari zitzaien.

«Juan Marik deitu du eta... Ai, ene! Joan dira Joakin eta biak medikuarekin haren bulegoan paperen bat egitera eta, gelara itzuli direnean, bertan ez zegoen ama!»

Eta Esteban eta Antonia: seguru al zeuden, eta hori noiz, eta hori nola zitekeen...

Aldaik, telefono solasa bukatu zuenean:

«Ez... Depositoan jende asko dago baina, han ez dago zuen amarenik.»

«Han ere ez al dago? Ai, ama! Non sartu dute, ba?»

Eta besteak: Lasai Feli, lasai ama, azalduko da...

«Dudarik ez, nahasketaren bat...»

«Beste gela batera eramana edo...»

«Horrelakoren bat.»

«Lehengo urtean, esan zuen Antoniak, residentzian bertan uste dut izan zela, gelan bi lagun, haietako bat operatu behar eta, nahastuta, ondokoa eraman zuten eta, hari ireki zioten.»

«Ospitalean, edozer...»

«Denuntzia jarri behar zaie, denuntzia.»

«Orain ez dugu hori pentsatu behar,» esan zuen Felik, eta Saioari: «Deitu Lorentxiri, maitea; esan zer pasatu den.»

Saioa telefonora eta, anaiaren laguntzarekin jaiki zen Feli.

«Bueno, esan zuen, agertzen den bitartean guk hitz egin beharko dugu... Zuek noski, joan beharko duzue...»

Aldaik esku ahurrak erakutsi eta burua alde batera makurtu zuen apalki.

«Zuen esanetara gaude.»

Egin zuten familiakoek sukaldera, laster Saioak ere bai telefonoa eskegitakoan; biak bakarrik zirela, Aldai aulkian eta Dimas sofan jarrita, honek hari:

«Igual bahitu dute.»

«Bahitu? Zertarako?»

«Ez dakit; Eskozian edo, izan omen zen holako kasu bat.» Gogotik zabaldu zuen Dimasek ahoa eta ukabilekin begiak igurtzi, Aldaik harrituta begiratu zionez: «Logalez puskatzen nago,» eskusatu zen.

Etorri zen Saioa, amonaren kutxako fotoak eta paperak lardaskatu zituen. Haren atzetik Ane ere, haurra beti altzoan, bularra jertsepean orain.

«Llo-llo, llo-llo...»

«Hau esaten dut,» ahizpari foto bat erakutsi zion Saioak; «oso ondo dago.»

«Guapa dago, bai;» Anek, pixka batean hari so egon eta, fotoa Dimasi pasatuz: «Begiak erditxita izatea.»

Gorputz erdiko fotoa, baserriko ate aurrean, esku bat amantaleko sakelan eta ile batzuk haizeak erabiliak. Eguzkiak jotzen zion aurpegian, hargatik zituen erreskinatuta begiak. Dimasen ondora etorriz, Saioak:

«Atzean eguzki lorea...»

«Bai... Elur pixka bat ere...»

Fotoak Aldairen eskuetara egin zuen, eta:

«Atzo, esan zuen Anek, nahiko pattal zegoen baina ez zitzaidan iruditu... Eskutik heldu eta kontu batzuk esan nizkion; begiak itxita zeuzkan eta ez nekien aditzen ote zidan, esan nion nola elurrak estali zuen herria, nola aita palarekin espaloitik elurra kentzen egon zen... Momentu ba-

tean begiak ireki zituen, esan nionean komentutik gora lapurrak ikusi zituztela...»

«Bai ezta? esan zuen Dimasek; Anterok esan dit, han ibili zirela...»

Isilalditxo bat; Ane, haurra kulunkatzen, isilka:

«Jarridazu kafe pixka bat, Saioa.»

Saioak hari zerbitzatu eta:

«Jarriko dizuet?»

«Bai mesedez... Xorta bat,» esan zuen Aldaik.

«Nik,» esan zuen Dimasek, esku imintzio bat eginez, «ura, posible bada... Baso bat ur, bai, mesedez.»

Saioa joanda, isilaldi bat, Anek kikara hustu zuen eta, kulun-kulun eginez aldameneko gelara eraman zuen haurra.

Bueltan Saioak ura eta, plater batean bi tortilla pintxo ekarri zituen. Aldaik protesta keinua; zintz egin zuen Saioak, eta:

«Amak esan dit...»

Aldaik beste keinu bat, eta: «Bueno, esan zuen; itsusia ez egiteagatik...»

Dimasek heldu zion aurrena; Aldaik ere biboteari eragin.

«Mm... Ederra dago.»

Leihoaren ondotik:

«Etxeko arrautzekin eginda,» esan zuen Saioak.

«Guk ere baditugu baserrian arrautzak, esan zuen Dimasek; ez dakit zergatik den, gorringoa horia izaten dute...»

«Esaiok osabari, esan zuen Aldaik, oiloek edan beharreko uretan, burdin-sulfato pixka bat jartzeko.»

Saioa itzuli eta, irribarre laño batekin:

«Amonak, esan zuen, pasmo-belarraren ura ematen zien oiloei; aztoratzen zirenean hartatik pixka bat eman eta, efektu handia egiten zien.»

Haurrak protesta batzuk aldameneko gelan, Anek lo-lo berbak xuxurlatu zituen.

«Oiloak edozerekin aztoratzen dira, esan zuen Aldaik; lehengoan, gure lagun batek esaten, ardiak eta dortokak direla animaliarik inutilenak. Ba, oiloak ez dira oso urruti izango...» Saioak leihotik baten bat ikusi zuen edo, atea irekitzera pasillora joan zela: «Orain lumarik gabekoa asmatu ditek.»

«Bai, zeozer entzun dut.»

Atez barna Paco azaldu zen: morenoa, belarritako bi, hiru bat egunean egin gabe bizarra. Musuak eta esku xokatzeak, haiek sukaldera bidean, Dimasek bere artean korrok bat egin eta, berriz ere eseriz:

«Puah! Como dios gelditu naiz.»

«Hau... non ari da orain?» galdetu zuen Aldaik.

«Ez dakit; Urnietan edo... Obretan ibiltzen da... Brotxarekin, uste dut. Aizu,» bonbila bat bere roskan sartzen ari balizko imintzioa eginez, «zer egiten dugu guk hemen?»

«Egon beharra, hi,» Aldaik, latz antzean; «gidoian zagok.»

Telefonoak eta, ia bat-batean, ateko txirrinak ere jo zuen. Ane arin etorri eta telefonoa hartu zuen, Saioak ireki zuen atea. Feli ere etorri zen sukaldetik orain, Aneri begira gelditu zen bera, pasilloan Saioak osaba Gregorio potzoloari nobedadeak kontatu bitartean.

«Ez dagoela...? Zer esan nahi duzu?»

«Ezkutatu dela, baten batek eraman edo, ez dutela aurkitzen.»

«Zer esaten ari zara...?» Txapela erantzi zuen osabak; «ba, on Eladiori bihar hamabitan, esan diot ordua. Zer esan behar diot orain?»

«Zaude aber...» Felik, Anegandik begiak kentzeke; hark telefonoa eskegi zuenean: «Zer?»

«Gelan falta dira amonaren arropak.»

«Arropak? Ai, ama! Niri zeozer emango dit...»

«Pastillak ere ez daude... Aritu dira alde guztietara eta inon ere ez amonaren arrastorik.»

«Zer da? Hil eta gero joana ala?» osabak, trakets.

«Igual ez da hil...» Saioak, beheitixko.

«Ixilik egon, ixilik egon... Zer egingo dugu? Parte eman beharko dugu, ala? Haiek, ba al datoz?...» Anaiari: «Segi, segi: Emilio eta sukaldean dira...»

Joan ziren biak eta Ane ere sukaldera, Saioa gelditu zen salan, azkazala janean, begiak leihoaz hara. Aldai zutik, Saioaren koadroari zozozozo so, Dimasek, beti jarririk, apalxko:

«Arraroa da ba...»

Saioak zintz egin, eta:

«Bizi da, seguru nago», esan zuen.

Dimasek ‘agian bai’ keinua egin, eta Aldaik:

«Badira kasuak...»

«Nora joango zen? esan zuen Saioak; elurretan, gainera...»

Etorri ziren Ane eta Paco, Anek telefonoa hartu, Pacok hari:

«Esaien Hernanitik ez etortzeko; Kraften kontrola dagoela.»

«Bariantean ere bazegoen, gu etorri garenean.»

«Preso batek ihes egin omen du,» esan zuen Dimasek.

«E?» harritu zen Aldai.

«Bai. Gosaltzen ari nintzela esan dute irratian. Atzo ihes egin omen zuen baina, gaur arte ez dute zabaldu.»

Anek, telefonoaren kablearekin jolas eginean:

«Non zarete orain?... A... Ya... Bale... Lasai etorri.» Telefonoa eskegi, eta: «Ospitalean bertan, ertzainekin dira; dilijentziak egin eta, honantza datoz.» Azkazalak jaten segitzen zuen Saioa besarkatuta: «Lasai...»

«Zuk uste... etorriko dela?»

«Gogoratzen, esan zigula, hamazazpi urterekin Parisera joan zela bakarrik...?»

Painueloan zintz eta buruarekin baietz egin zuen Saioak. Sukaldetik Feliren ahotsak:

«Saioa!»

Biak ez besteak salatik joanda, Dimasek, airean bi behatzekin paseo irudi bat eginez:

«Tipi tapa, joan amona? Zuk uste duzu...?»

«Behin ere ez dakik, esan zuen Aldaik; aditu dituk gogorragoak ere. Oraingoz, zain egon behar diagu. Balitekek gorpua norabait bidali izana, edo...» Edan zuen kikaratik azkeneko ttantta. «Guri behin zelebrea gertatu zitzaiguan. Gorpu bat Arabako sukurtsalera bidali genian, baina enplegatuak helbidea gaizki irakurri eta, soinean Ama Birjin txuriaren argazkia zeraman gorpua Saudi Arabiara bidali zitean. Han ez zitean ezagutu eta, bertan aldi bat eginda, bueltatu zitean. Etxera iristerako, defuntua kontentu zegoan; haren emaztea ere bai; prentsan esan zian, bere gizonak ez zuela batere maite bidaiatzea.»

«Ni ere ez nintzateke Arabiara joango; lege gogorra omen dago han.»

Hartan Feli etorri zen.

«Zuek joan e... Bai, bai, hitz egin ditugu gauzak eta, oraingoz zain egongo gara, aber! zerbait jakiten dugunean deituko dizuegu...»

«Bai? Aizu. Arratsaldean pasako gara. Zer?... Bai, badakit esan nuela baina, oraingoz ezin gara joan... E?... Harri bat? Bai... Rustika, berrogeita hamarrekoa; konforme. Bai: hirurak aldean.» Mobila itxi, hantxe kukuari begira zebilen Joxemariri kasu egin eta, zigarroa ezpainetan zuela, ateratzeko maniobra egiteaz batera: «Orain erne. Lehenengo botila horiek utzi, gero Sixtoenean harria hartu, gero tailerrera goazak.»

Bazetorren atzetik udaltzainen autoa, Aldai zain gelditu zen. ‘Ura ez da edatekoa, ura ez da edatekoa’, ari ziren altabozetik haiek.

«Me caguen dios, esan zuen Dimasek, atzo edan nuen zerbeza pilarekin, orain urak kalte egitea falta!»

«Lasai: gaur ez haiz bestaldera joango; gaur sobra ere jai hartu dik sudurrik ez duenak.» Abiatu ziren.

«Ya, esan zuen Dimasek; ohearen azpian azaltzen ez baldin bada...»

«Amona? Ez diat uste... Orain, bilatu egin behar.»

«Bizi delakoan, ala?»

«Horixe bizi... Hi; negozio guztietan izaten dituk bezero morosoak... Dena dela, poza ematen dik. Bizirik dagoen askok ez dik hola preziatzen alde honetakoa.»

«Ez, ba.»

«Hortxe diagu gure auzoan Lizarribarren ama, urrutiago gabe. Larogeita hamazazpian: asmo txarrean salto egin zian leihotik behera. Suerte txarra: gaizki aparkatuta zegoen furgoneta baten gainean erori zuan. Emakumeak ez zian zauri larririk izan, autoak bai ordea matxura polita; gero semeak pagatu behar.»

«Lehengoan esan zuten telebistan, ez dakit non haur bat bosgarren pisutik erori eta, ez dakit zer egin zuen, behintzat hura ere ondo atera zela.»

«Pss...»

Sastarrin zirela, kamioi bat, gero beste bat, laster kamioiak erreskan.

«Murcia... Santarem... Porto... Westfalia...»

Istuitzan ertzainak zeuden.

«Egunon.»

«Egunon. Dónde van?»

«Harantza. Zer pasatu da?»

«Tenéis que dar la vuelta. La autovía está cerrada.»

Aldaik itzulikoa egin, eta:

«Aspaldi honetan jendeari gustatzen zaiok ba gure herri parean kankarrekoak hartzea.»

Dimasek zigarro bat hartu, poltsikoak haztatu zituen. «Ba al dakizu lehengo partetxarreko horiek zer egin didaten? Metxeroa kendu.»

«Tori... Emaidak niri ere rubio horietakoa... Uste diat badugula puxka bateko...»

Erlojuari begiratu zion.

«Kurrun, kurrun.»

Kortako atea ireki zuen amonak. Lasto hotsak kamastraren aldean...

Kurrun... kurrun: txerrama zalu-zalu heldu, amonak bizkarra ferekatzen ziolarik saihetsak

haren hankaren kontra igurtzi zituen; kontentu zegoen, pixka bat argalduta baina.

«Polita, zu; leiala, zu... Moldatu al zara etxean ni gabe... Zer duzu gaixo horrek... Non duzu txikia?»

Txerramak begi makartsuak kiñatu zituen.

Korta barruan armiarma sareen usaina aditu zuen amonak.

Lastoak eta iratzeak barreiatu, ezkaratza pixez bete zitzaion.

Bi eskailera maila igo, etxeko ate nagusia zabaldu, txerrama atzetik zuela estalpera egin zuen.

Kurrun –txerramak elurretan muturra sartu, usin egin eta, inora begira, pentsakor gelditu zen.

«Non duzu txikia? Muturbeltx hura, harro xamar hura... Eraman egin al dizute lapurrek?»

Gaileta zatiak poltsikotik atera, banan-banan eman zizkion, gero txerramak eskua lamizkatu zion.

«Zintzoa, zu...»

Kapazoan egur eta arbazta batzuk sartu, lizar adar bat erdibitu zuen aizkora txikiaz.

Orduan izan zen: uretan plisti-plasta bat, amonak bista jaso, iturrian gizon txikia ikusi zuen; argi printza bat, hostoak eguzkitan barrezka.

Gizon txikiak salto egin zuen bere belarriaren ertzera, bere ileekin pixka bat jolastu, xuxurlo bat, brixt! alde egin zuen eta atearen alboan azaldu; hotzak zegoela eta, dar-dar itxurak eginez.

A, ze gaixtoa zen; eta, hargatik, hain jentila zen.

Lepagainean, makilaren puntan, pardeltxoa zeraman; bazekien amonak ardien ileak eta guraizeak eta arratailkiak zeramatzala bertan.

Amonak kapazoa jaso zuen...

Bere aurretik egin zuen gizon txikiak etxera: txistuka, zirika-mirika, ezaxolaz bezala zebilen.

Kafe urrina sukaldean... Metalezko potoan begiratu zuen amonak; hutsik zegoen; bihurri haiek, dena hartu zuten.

Zapatilla bustiak erantzi, artilezko galtzerdiak eta katiuskak jantzi zituen amonak.

Gizon txikia, sutondoan pardela laga eta, suko hautsetan zer edo zer bilatzen ari zen bere

makilatxoarekin. Amonak kakoarekin emeki pixka bat eragin, sagar erreak atzeman zituen hautsaren azpian. Haiek apartatu eta, kartoi puxka bat, belar izpi batzuk, zenbait egur xehe... Sua piztu zuen.

Aulkia jaso zuenean, gizon txikiak harrituta begiratu zion: bazeukan indarra, gero.

Amonak irribarre egin zuen; ez zegoen, ez, oso bizkorra...

Ate ondotik txerrama begira zuten.

Gizon txikiak soinak jaso zituen: zer egingo zioten... Ez zegoen, ba, txerrikumerik. Egur batean jarri eta, sutara begira gelditu zen. Bere baitako pentsamenduak zerabilzkien. Triste ote zegoen? Non zeuden besteak?... Familia alai hura, airea bezain arina, beti gaixtakeriak egiteko prest.

Ganbaran egiten zuten lo, hontzen lumez eginiko habian... Neguko gauetan, etxeko handiak lo zeudela jaitsi, sutondoan solasaldi luzeak izaten zituzten. Isil antza, aspaldiko kontuez aritzen ziren, tarteka marteka elkarren kontra igurtzikoak eginez. Berak, adi jarririk ere ez zien gauza

asko konprenitzen: soinuak nahasiz, hitz errebesak erabiliz aritzen ziren...

Urez bete eltzea, arto irin eskukada bat, belar zahar batzuk, patata batzuk jarri zituen egosten.

Ez berarentzako: etxekoentzako; berak...

Sutondoan kukuturik, pastillen kaja atera zuenean, gizon txikiak bista jaso zuen eta aurpegia zimur izugarriez bete zitzaion.

Amonak kaja sutara bota eta, berriz ere txerramari begiratu zion.

«Zatoz hona polit hori, esan zuen; bai, badakit... Umea eraman dizute... Lasai maitea, nik bilatuko dizut...»

5
AZOKA

Pertsonaiak:

JOXE, jubilatua.
NIKO, arotza.
GURIDI, telefono enpresa batekoa.
MANDI, Joxeren iloba.
FEDE, zaharra.
JON, bakailao saltzailea.
LUTXI, fruta saltzailea.
SEBAS, gazta saltzailea.
MAXUNE, ogi saltzailea, Joxeren alaba.
ARANTXI, Maxuneren laguna.
LEIRE, neskatikoa, hitz bakarra esaten duena, «antzara» esan gura duena.
LUPE, gizarte laguntzailea.
ELTZO, morroia.

Hilario Tapia, haren Emaztea eta Alaba, Koxme, Txoferra, Azokako jendea, Paseanteak, burruntzia prest Ijitoak.

Elur izoztua teilatu gainetan eta inguruan, herri kale batean etxe-villa bi.

Eskuin, etxe handia, lorategian ezpelak, erramuak, limoi arbola eta beste arbola txiki, erdi parean iturria eta horma kontra borda txiki bat; antzara hotsa zetorren handik.

Obretan zegoen ezkerreko etxea: zakar kontainerra aurrean, zur plantxak atarian, kristalik ez leiho zuloetan, leihoz barrura eskaiola plakak, igeltsu zakuak, trasteak han eta hemen. Lorategi bazterrean, baratze txikia. Ate ondoan zakurra lotuta zegoen. Herri bista ederra handik. Hotza egiten zuen.

Niko: tente, begi-eztia, gaztain-ile karakoila, leiho markoak paratzen ari zen.

Joxe: txikia, txapela, jertsea, piper antzeko sudurra, kapazoko erreminten artean zerbait ari zen bilatzen.

«Mutiko. Lista ikusi al duk?»

«Ee?»

«Lista; atzo hemen utzi nian eta...»

«...»

«Lista... Ba al dakik zer den?»

«Lista? Ez...»

«Soka mehea... Cordel edo nola esaten da?»

«A; lista... Ez, ez dut ikusi. Lista, lista...» Iltze bat sartu, eskaileratik jaitsi, bere kutxatik soka mehe bat ateraz: «Honek balio badizu...»

«Ez. Lista behar diat.»

Kalean furgoneta bat gelditu zen, motorra itzali gabe Guridi agertu zen lorategian. Zakurra zaunka zegoela, hurbildu gabe hark:

«Egun on. Txona etorri al da?»

«Berdin, esan zuen Joxek. Etorri duk, kableak bertan utzi eta ziztu batean joan duk, ez baitakit nora. Noiz etorri behar duzue?»

«Aber zer esaten duen honek. Nik polideportibora joan behar dut orain. Hamarrak dira; aber eguerdirako... Hombre, Niko.»

«Iepe. Zer, saunara al zoaz?»

«Nahi bai. Zera, mikrofonoetan aberia izan ditek eta...» Joxek barrura egin zuen. «Kako atxilotu ditek.»

«No jodas... Noiz?»

«Gauean. Eta, besteren bat ere bai.»

«Zein, ba?»

«Ez zakiat. Txonaren aitak esan zidak: Basaburun, bi edo hiru eraman dituztela; Kakoren berri bakarrik zekien berak... Bueno; joan behar diat horren bila...»

Elkar agurtu eta Niko bere lija lanera bildu zelarik, Guridi bazihoan eta, bere kotxean iritsi zen Mandi. Kapota erdi zabalikakotik arbola txiki bat ageri, berak berriz, ardo botila kutxa bat ekarki, baratzean sartzearekin zakurrak burua makurtu eta isatsari eragin zion.

«Kaixo. Hor al da Joxe?»

«Bai. Joxe!»

Mandik kaja atalondoan utzi, zakurrari maite igurtzi batzuk egin zizkion. Joxe agertu zen.

«Luis! Aspaldiko.»

«Bai... Fresko zarete!»

«Fresko... horixe! Kaltzontzillo luzeak ibili behar... Zer hago, katarroarekin?»

«Bai; atzo elurretan ibili ginen eta... Ardoa ekarri dizut.»

«Ondo zagok, ondo zagok. Zer duk, libre goiza?»

«Ke-ba. Kale zaharrean banku bat jartzen ari gara eta...» Nikori: «Hauek zer daude, berniza emanda?»

«Horiek? Ez. Linazi-olioa emanda daude.»

«Ama non duk?» galdetu zuen Joxek.

«Katarekin joan da Donostiara: Marijoren haurrarentzat arropa batzuk erostera edo. Etzi datoz, ala?»

«Bai. Etzi.»

«Urduri egongo zara.»

«Bah... Aber haiek etortzerako markoak jartzen ditugun behintzat.»

Mandik, etxe barruan broka bila joana zen Nikori:

«Marijose-ta. Etzi ekarriko ditek Txinatik alaba.»

«Bai, esan dit Joxek...»

«Elurra ikusiko du...»

«Elurra? esan zuen Joxek. Herenegun deitu zitean eta, han ere ari omen zian mara-mara.» Taladroarekin etorri zen Niko. «Zuek ez duzue umerik egiten eta...»

«He! esan zuen Mandik; horiek ez dira hola-hola egitekoak; egin baino lehen, ondo pentsatu behar da.»

«Pentsatu bai! egiten duzue... Guk aitzakia gutxiago ibiltzen genian: ti-ta, gero eliza pasa eta segidan dozena bat ume!»

«Orain ez dago hori egiterik; orain oso garesti dago bizitza.»

«Garesti? Zer uste duk: guri ogi zakuak debalde ematen zizkigutela, ala? Ezin dela arroparik erosi? Eskatu egiten da! Etxea, ezin dela erosi? Alkilerrak, zertarako daude?... Hara, atera dituk.»

Ondoko etxeko bordatik, karraka handia eginez atera ziren hamar bat antzara. Artale xehetuak barreiatu zituen elurretan Hilariok. Zaunka hasi zen zakurra. Mandik, irrizu:

«Hasi dela festa.»

«Orain paseatzera aterako ditik. Errekan, txalbururen batzuk bilatzen ote dituzten edo... Bera bai, txalburu galanta.»

«Haserre al zarete oraindik?» Nikori: «Lehengo batean, kartetan tranpak egin omen zitian Hilariok eta...» Joxeri: «Hilabete pasatu da ba!»

«Zain zagok, nik kasu egiteko baina, zera!... Badik bere lumekin egotea. Orain usoak ere baditik. Ikusi! pareja bat hor. Turkiarrak omen. Inporta zaidak niri Turkiakoak edo Galiporniako erregearenak diren...»

«Lumako jendea,» esan zuen Nikok.

«E?»

«Ez al da esaten, txoriengatik eta: lumako jendea?» Osaba-ilobak aho zabalik gelditu ziren.

«Guk holakorik ez,» esan zuen Mandik.

«Ardi jendea eta, erle jendea eta... Esan zigun irakasleak, hala esaten zela.»

«Ardi jendea, adituta nagok, bai...» esan zuen Mandik.

Zaunka segitzen zuen zakurrak eta, Joxe barrura zihoala, lepo-kokotsean egin zizkion Mandik esku atseginak.

Nikok, tirafondoa sartu eta:

«Horrek kozka egingo du gainera,» esan zuen.

«Honek? Xaxatuz gero bai!»

Laster etorri zen Joxe, eskuan lista zuela.

«Aurkitu duzu.»

«Bai. Sukaldean zegoan.»

Niko tirafondoa sartzeko makurtu, istant hartan ama-alabak atera ziren aldameneko etxetik; kalerantza zihoazela:

«Egun on, esan zuen amak; eguzkitan goxo...» Mandiri: «Zer moduz? Aspaldi ikusi gabe.»

«Ondo esan beharko. Zuek zer, paseoan?»

«Azokara buelta.» Joxeri: «Ari zarete...»

«Beharko.»

«Marijose eta, noiz etorriko dira?»

«Etzi, jainkoak nahi badu.»

«Ikusteko gogoa izango duzu.»

«Horixe...»

Kalean behera haiek:

«Neska ederra,» esan zuen Nikok, une batez ari zenetik bista jasota.

«Lore? esan zuen Mandik; bai... Ama ere plantakoa zagok.»

«Bai! Hor egoten duk behintzat, señora bat bezala, eguzkitan hankak zabalik kokakola ondoan duela... Orain Interneten ibiltzen ikasi omen dik... Hola zeukatek baratzea.»

«Egun batean porruak interneten erostea izango da, osaba.»

«Bai, zera. Porruak, baratzean. Niri ere, orain urte batzuk Marik, emazteak, esaten zidaan: ‘Orain, jubilatu garela eta, egingo al dugu Parisera buelta...’ ‘Eta baratzea?’ esaten nioan nik...»

«Eta? Joan egin zineten azkenean...»

«Ez. Hiru egunetarako, Saloura joan gintuan... Paris ezagutzen genian gainera: sesenta y seisean joan gintuan hara; artean zuek jaio gabe noski. Parisera ailegatu gaituk eta, hura trafiko pila. Ez genekian non aparkatu, ibai ondoan utzi genian. Eiffelen dorrera igo gintuan. Paris osoa ikusten zuan handik. Ez gintuan goraino igo. Lehenengo pisuan ginela, toki bat ikusi genian. Jaitsi eta, aparkatu genian. Ez genian handixe mugitu izandako lau egunetan.»

«Eta, zer ikusi zenuten?» galdetu zuen Nikok.

«Ikusi beharrak: Notredame eta, opera eta, metroa eta...» Mandiri: «Mari, badakik, beti bere musikarekin. Orain alper-alperrik zagok hor pianoa. Horien alaba zaharrenak ere, hemen ikasi zian. Ez diat uste segitu dionik. Lotsa gutxirekin hor ibiltzen duk orain, nobioa Alemanian duela eta, beste mutil batekin hemen...»

Fede pasatu zen kalean tirri-tarra; bastoiarekin agurtu zuen Joxe, eskuarekin etortzekoa egin zion honek. Hilario beste aldera begira, Fedek baratzera egin zuen; txapela hark ere, potoloa, musua gorri-gorri.

«Egunon etxekoak.»

«Baita zuri ere.»

«Nondik nora Fede?»

«Be... Etxetik etxera.»

«Hala duk eta giroa... Hiretzat eman zidatek;» ate ondoan zegoen poltsa erakutsi zion.

«Zer dugu ba?»

«Basurdearen burua.»

«Burua?» Poltsaren ertzetik barrenera begira; «zer egin behar diat nik horrekin?... Maurik eman al dik? Horixe; banekian, ekarrita zeudela... Ba! Zer edo zer asmatuko diagu.»

«Eta asmatzen duzunean, abisatu...» esan zuen Mandik; «bueno, osaba; Fede, Niko: ni banoa; besteak zain egongo dira eta.»

Joan zen lasai asko hura, Niko taladroa lagata kanpoko aldetik markoari begi zorrotzarekin begira gelditu zen; haren ondoan eguzkitan plantatuta, agure biak.

«Ogia hire kontu,» esan zuen Joxek.

«Hi! Panaderoa hi haiz...» Nikori: «Honen panaderian, ogi ederrak jaten genitian txikitan guk.»

«Bai, esan zuen Joxek, guk gerran eta, talo hotza gutxi jan genian...»

«Ogiaz sabela ondo bete eta, gero, etxera berandu ailegatu eta, askotan babarrunik ez. ‘Non dira babarrunak?’ ‘Hi ixilik egon, hi ogi ederrak janda egongo haiz eta!’...»

«Babarrunak... Espezialak egiten zitian zuen amak. Bixigua ere bai, behin zuenean jan genian, ez zaidak ahaztu.» Nikori: «Honen amak, etxean astebetez, hamar egunez bizirik edukitzen zian arraina: ahoan aguardientearekin ogi zatitxo bat jarri eta freskeran edukitzen zian belarrarekin ondo estalita...»

«Orduan ez zegoan kamararik eta... Orain, atzo ere, telebistari begira nengoan eta, kri-kra, plastiko hotsa etorri zuan sukaldetik, bost minutu ere ez zituan pasatu eta, mahaira!... To! Ardoa ere baduk.»

«Bai; Biasteritik ekarri dik ilobak.» Puxka batean botilei begira egon, eta: «Igual probatuko

diagu...» Begiak arrunt zabaldu zituen Fedek: nahi izanez gero... «Zer, ba! Hotzari kontra egiteko ere...»

Joxe barrura zihoala, Nikok poltsa batetik zilarrezko paperean estalia otartekoa atera zuen; Federi eskaini zion.

«Eskerrik asko,» eman zuen eza Fedek.

Basoak zekartzala etorri zen Joxe.

«Zuk, Joxe?»

«Jan, jan!» Ardoa zerbitzatu zuen. «Edan ere egingo duk...»

«Ezin esan ezetz.»

Fedek, basoa jasota:

«Ilobagatik... Nola dakar izena?»

«Leire, monasterioa bezala.»

«Urte askotako.» Tragua jo zuten. «Mm... Polita zagok!»

«Bai. Biasterikoa: bertakoa... Atzo Joxemiren tabernan izan ninduan eta, barra gainean, taka: Dueroko ardoa. ‘Hi, esan nioan mutilari, ardoa Duerotik zer ari zarete ekartzen? Hemen ez al dago ba ardorik?’... Ba al dakik zer esan zidan? ‘Esnea, aitona, zuk esnea edan behar duzu!’ Me caguen... Esnea? Nahikoa edan genian amaren

besoetan esnea... Hik ba al dakik Bergaran zer pasatu den?»

«Ez. Zer pasatu da ba?»

«Toribiok esan zidak. Joan omen duk hango zaharren etxera mediku gazte bat, zirt edo zart, meriendatzeko baso ardoa kendu, txokolatea eta kafesnea, jarri dik. Ederra kontua. Manifestazioan atera omen dituk zaharrak; joan omen dituk udaletxera, komisio bat igo omen duk alkatearekin hitz egitera eta... Ardoa. He! Harekin ez baitago jolasik...»

«Akzidenteak ere izaten dituk asko baina...»

«Horixe! Gaurko gazteek ez baitakite edaten. Gauean hamabitan ikusten dituk, denak mozkortuta zaudek. Garai batean bi egun eserita eman eta, zenbat eta gehiago edan, orduan eta hobeto geundean. Orain ez zagok izpirituri; ez zakiat zergatik izango den hori: batere txisterik ez, bla-bla-bla, beti soinu bera. Atzo ere, Joxemirenean, gazte kuadrilla bat, nahi gabean aditzen egon ninduan eta, Estatu Batuak gora, Estatu Batuak behera... Pena eman zidaan;» basoak arrabete zituen; «guk sikiera harri bat hartu eta farola bat hautsiko genian... Tori.» Federi: «Hi Estankoko

Txominekin gogoratzen al haiz? Luze bat; Algodoneran ari zena... Ez haiz gogoratuko hi. Hura nire kintakoa baitzen: eskolan elkarrekin ibiliak. Inklusakoa zuan. Sano edaten zuena; fenomenoa kantatzen; esaten zian: 'Nik eskerrak amarik ez neukanari, sehaskan marru ederrak eginda, nik kantatzen han ikasi nian!'... Ba, ez zakiat ze problema izan zuen nagusiekin, ez ziotela pagatzen edo, behintzat gau batean zakua bete harri joan zuan fabrika kanpora eta, klinki, klanka, kristal guztiak txikitu zizkian. Eta bazituan kristalak fabrika zahar hartan!...» Tragua jo zuen, eta: «Hura azkenekoan, gerra hasitakoan ikusi zitean: Leitzatik barrena karlistak zetozela eta, lagun kuadrilla bat, kontzejupean eskopetak hartu eta, Amasa aldera abiatu zituan... Ez zuan gehiago etorri.»

«Eta zu...?»

«Ni?... Etxean. Ez gerrara joan nahi nik! Etxetik atera gabe... Handik tiroak aditzen genitian eta, beldurrak. Goiz batean, kanpoan jende hotsa eta, izebak esan zidaan: 'Armarioan, Joxe! Sartu hadi armarioan!'... Sartu nauk armarioan, eta: 'Arriba España!,' ezkaratzetik. Falangistak

zituan. Ama eta izeba, aitaren arreba eta amona ere bazegoan eta, ez zekitean haiek zer esan behar zen, ixil-ixilik gelditu zituan. Jatekoa eskatu zitean, amak arrautza batzuk jarri zitian egosten, halako batean tximiniatik behera tanka! urdaiazpikoa erori zuan... Hitz gogor batzuk esan eta, gosaldu eta hura hartuta joan zituan behintzat.»

«Gaur gauean ere hor ibili dituk.»

«Bai, esan zuen Nikok; Basaburun egin omen dute redada bat.»

«Zuluetak esan zidak, Altunaren txatarrerian linternarekin ikusi dituztela zibilak.»

«Eta;» Nikok otartekoa bukatu, zigarroa piztu zuen, «zuk zer egin zenuen: gerra armarioan igaro edo?»

Joxek edan egin zuen, eta:

«Astebete egin nian hanka bat armarioan nuela... Gero, mutil guztiak eramaten ari zirela eta, izebak esan zidaan: ‘Aldegik hemendik!...’ Beste batekin: Alanoko Lukaxekin, gauez joan ninduan. Mendiz mendi Errenteriara eta, hura han gelditu zuan eta ni handik Hendaiara eta handik Baionara pasatu ninduan.»

Kalean mutil bat azaldu zen motoan; Jon zen, bakailao saltzailea.

«Joxe!; Maxunek, plazara joateko!»

«Joateko? Zer du ba?»

«Ez dakit! Oraintxe joateko, sin falta!» Brrr! alde egin zuen.

«Ze boladak eman ote dio orain? Non daukat makila? Iepa... Aurki sillan jarriko naitek... Orain diputazioan ematen omen ditiztek... Bai; ez dituk hain txarrak, hala ere, diputaziokoak.»

Bazterretan eta han eta hemen metatuta elurra, plazan azokalariak: teilapean baserritarrak eta patata saltzaileak, arrautzak, eztia, baratxuri eta limoiak. Atso xahar bat aulkitxo batean jarrita, mahai kaxkarrean babarrunak eta intxaur pila txiki bat zituela. Piku lehorrak, olibak, karameluak; urdai eta txorizoen furgoneta; frutazaleak: haietako bi, Lutxi eta Koxme; Lutxi: emakume ile urdintzen hasia, esku makurra, gorro grisa eta amantala pintarratua. Haien ondoan gazta saltzailea: Sebas; lodia, aurpegi gorrikoa, mendiko botak eta jertse urdin ilunarekin jantzia.

Komaien kalakak, erreklamo hotsak, hizketaldi laburrak. Bakailaoa, piper txorizeroak eta ardoak. Haraxeago pitxiak; painueloak buruan, Marokoko neska bik, bazarreko gauzak; beltz larru gauza saltzaileak, tres por dos, arropazaleak. Erreka ondoan, makalen azpian, karabanen babesean, ijitoen kanpamentuko sua: musika, oihuak, haurrak elurrarekin jolasean, emakume bat sasitan arropa xeheak zabaltzen ari.

Lutxi eta Sebasen artean, ogi eta bizkotxo saltzailea zegoen: Maxune; ile-kizkur, hortz bat hona beste bat hara, paparra, aurpegi biribila. Ogi handiak, etxean egindako ogiak; gari ogiak, zekalezkoak, arto irinarekin eginak. Neska argal bati ogi puxketatxo bat eman zion probatzen, une hartan azaldu zen Joxe: bere makilarekin tarra-tarra, geldialditxoa egin zuen gazta puestoaren aurrean.

«Ez? neska argalari ari zitzaion Maxune; bestea nahi al dun? Zenbat nahi dun: hola?... Gehixeago?» Moztu eta balantzan pisatu zuen eta: «Lau eta hogeita hamabost.» Kobratu egin zion eta, ondoko frutazaleari: «Begiratu ezan Lutxi pixka batean hemen... Aita! Utzi gaztak orain...

E? A, lista ekarri al didazu...? Ondo; orain ez dugu behar baina; ekarri, ekarri... Ederra daukagu, aita. Hondarribitik deitu dit asistenteak. Hemen dago Leire... Etorri egin da.»

«Etorri al dira!?»

«Aita. Aditu ondo. Marijo han da; Txinan dira Marijo eta Santi. Beste bikote batek ekarri du Leire; handik Madrilera: beste bikote batek ekarri du. Hori esan dit asistenteak; ez dakit nolaz izan den, ez dakit ezer... Aditu, aita. Haiek bidean dira orain. Deitu didanean abiatzekoak ziren, hemen dira laster.»

«E, e?... Leire, ba al dator; zeinekin dator?»

«Asistentearekin, ba: Lupe edo nola da...? Berak ekarriko du.»

«Eta, Marijo non da?»

«Aita; aditzen al didazu? Zer ibili zara, zurrutean?»

«E?... Arotza hamarretakoa egiten ari zunan eta, baxoerdia atera zionat.»

«Bale, bale; orain ez gara sesioan hasiko... Marijo eta Santi han dira, Pekinen dira haiek. Oker bat izan da, aita, ez dakit nolaz izan den. Dakidana da, oraintxe datorrela Leire.»

«Baina... Etxean dena hankaz gora zagon eta, leihoak ere jarri gabe zauden!»

«Badakit. Horregatik esan diet hona etortzeko.»

«Hona?»

«Hona: azokara etorriko dira. Esan diot non garen, hona ekarriko du Leire.»

Sinplo gelditu zen Joxe.

«Eta, nik zer egin behar dut?»

«Zu lasai egon, aita. Zer edo zer behar bada esango dizut. Gure etxera eramango dugu umea.»

«Zuenera...?»

«Maxune! hots egin zuen puestotik Lutxik; hau zenbatean dun?»

«Bostean! Horiek denak bostean, mahaspasena seian!... Lasai, aita. Deitu diot lanera Ixakari, furgonetarekin orain etorriko da...»

«Enpanadarik ez al daukazue?»

«Ez, esan zuen Lutxik; Koxme! Nora zoaz orain?» Txiza egin beharra zeukala adierazi gizonak.

«Segi ezan hirera Lutxi... Zuk?»

«Nik... Gaurkoa al da ogi hau?»

«Ez, ba! Noizkoa uste dun? Labetik atera berria... Aber, aita. Atenditu egin beharra daukat. Zu lasai ibili... Enee! Panorama ederra aurkituko din gure ume gaixoak.»

«Joan hadi neska, esan zion Lutxik; guk egingo ditinagu hemen egitekoak.»

«Lasai; oraintxe semea datorrenean jasoko dinagu... Fotoa ikusi al dun?»

«Aber...»

Bezerorik ez zen eta, patrikatik haurraren fotoa atera zuen Maxunek.

«Hamar hilabete zitinan hortxe; orain hamabost ditin.»

«A ze nexka xiprixtina.»

«Ikaragarri bizkorra omen dun. Aber Ixaka datorren... Zer da hau, baina! Kamioi festa dugu, ala!»

«Autobian sirenak ibili ditun... Bai?»

«Pónme unas manzanicas de esas... Dos kilos o así.»

«Aita... Aber. Zoaz umearentzat arroz pixka bat erostera. Arroza edo... Ez dakit zer jarri.»

«Porrusalda egion... Tres treinta y cinco.»

«Bai. Gero hartuko ditinat porru batzuk eta fruta zerbait ere, Lutxi, gogoratu... Ene! Moldatuko al da?»

«Moldatuko ez dun! Tori... Gu ere jarri gintunan, ba.»

«Bai! Baserritik hona...»

«Alde ederra! Lau urterekin, jaitsi eta lehenbiziko egunean, paella jarri zidanan bazkaltzeko izebak. Ez ninan probatu ere egin. Arratsaldean, Santa Kruzak zitunan eta, osabak tiroen barrakan panpina bota zinan eta... harekin konforme.»

«Aita! Esnea ere erosi eta... Farmazian, haur txikientzako hiru-lau poto... badira ba...» Dirua luzatu zion.

«Gazta ere erosiko dinat.»

«Orain gaztarekin eta orain zure gauzekin ez denbora pasa ibili; laster hemen dira eta... Supermerkatura joan: kilo bat arroz, esnea eta... Esandakoa. A! Pañalak ere...»

Bi edo hiru kamioi pasatu ziren, errepidea kruzatzeko zain zegoela Joxeri, bestaldeko espaloian estoldako tapa altxatu egiten zela iruditu zitzaion; hura segituan itxi zen; pixka batean

hari begira gelditu zen Joxe; pasatu ziren beste bi kamioi, ertzainak beren argiekin pasatu ziren; Joxek kalez bestaldera egin, Arantxi agurtu zuen.

Errepidea bueltan zeharkatu zuelarik ikusi zuen: Maxuneren besoetan, beroki gorria, galtzak ere gorriak, arropa bola batean, flekillodun aurpegitxo bat: musu lodi zikin bat, errusiar tankerako belarritakodun gorro batez inguratua.

Arantxik bere eskuen artean zeuzkan haurraren eskutxoak hartuta. Lupe zegoen haiekin, asistentea: argala, ile-motza, beltzez moderno jantzita; Joxek behin ere ikusi ez zuen gizaseme bat ere: burusoila, galtza grisak, oinetako lustratuak.

«Begira, esan zuen Maxunek aita zetorrela ikusiz; aitona badator; aitona...»

Joxe lotsa antzean inguratu zitzaien.

«Hemen al dugu...»

«Bai. Esan: ‘Leire, Leire naiz ni...’«

Leirek une batez begiratu zion Joxeri bere orein-begi beltxez, eguzkiak galarazi zion, luzatu

egin zen Maxuneren beso artetik askatzeko bezala.

«Joan nahi al dusu maitia? Nora joango sara su? Nahi al dusu ogi puxketa bat?...» Leirek ogia hartu, ahora eraman zuen. «Gose sara e...»

Bitartean, larri antzean, Lupek Joxeri:

«Esan diot Maxuneri. Bartzelonako bikote batek ekarri du Madrilera Leire... Haiek Pekinera berandu ailegatu eta... beren umea zelakoan Leire eman diete. Izenak trukatu edo... Enbajadan ere ez dakite nolaz izan den.»

«Marijok deitu duelako! esan zuen Maxunek: Haiek abioian zirela Marijok deitu du Madrileko enbajadara handik: Leire ez zela han! Atzo goizean hartu behar zuten beraiek eta...»

«Madrilen jakin dute, segitu zuen Lupek, Bartzelonako horiek, hau Leire zela eta beraiena han gelditu zela. Enbaxadako gizon batek ekarri du Hondarribira Leire: Arren eta arren barkatzeko eta, esplikazioak eskatu dituztela; telefonoa ere eman didate... Hemen apuntatu dizuet.»

«Bazuen berak etortzea! Entzutekoak entzungo zituen!»

«Noski joan behar zuela eta... Saiatu omen dira zuekin kontaktuan jartzen baina, inork ez omen zuen telefonoa hartzen.»

«Hartu ezin! esan zuen Joxek, jarri gabe dugu eta...»

«Ene! hots egin zuen Maxunek; tripa jaten egongo da Marijo; ezagututa hura...»

«Zeukan ilusioarekin, esan zuen Arantxik; harritzekoa hala ere, nolaz ez dizuen deitu.»

«Deitu egingo zigunan baina... Lineak oso gaizki zabiltzan.»

«Eta: haiek noiz etorriko dira...?»

«Bihar arte han egon beharko dute,» esan zuen Lupek.

«Erreserba eginda zeukatenan eta... Orain, igual da! Leire hemen dugu behintzat!» Musu ematera zihoala, neskatikoak atzera egin zuen.

«Nekatuta egongo dun, esan zuen Arantxik, halako bidaia...»

«Ba! Nekatu itxura handirik ez zaukan: lasai asko zagon... Ei, pollita, lasaia sara su; e; baai...»

Leire ogia txupatzen ari eta, denak berari begira. Puestoen artean jende gutxixeago zebilen orain. Txoferra, autoa gaizki aparkatuta utzi

zuela eta, trafikoa zuzentzen ari zen udaltzainarekin ez eta bai ari zen.

«Zer pasa da hor? galdetu zuen Joxek... Hainbeste kamioi!»

«Autobian irauli omen da kamioi bat, platerez kargatuta zihoana.»

«Ikusi aita, ez al da polita... Nahi al dusu aitonarekin joan?»

Joxeri haurra ematekoa egin zuen, Joxek baina, makila apur bat jasota bere ezina erakutsi zuen. Leirek ere libre nahiago zuen. Maxunek lurrean utzi eta, tapa-tapa, oinez hasi zen haurra.

«Ikusi nola dabilen...»

«Ez da galduko, ez!»

Leire fruta puestora heldu eta, eskua luzatu zuen.

«Ez polita... Hori ez!»

Berandu; hartu egin zuen sagarra Leirek, dozena bat ale lurrera joan ziren; ingurukoak barrezka, errebueloa izan zen.

«A ze tximixta etorri den.»

Berriz ere Maxunek hartu zuen besoetan.

«Argia da, bai, esan zuen Milak; kotxean ere, palanka-kanbioari heldu eta diren botoi guztiak sakatu nahi zituen.»

«Aita, esan zuen Maxunek: orain etxean zuretzat egin beharko da tokia... Ixaka etorriko da orain. Esan diot, haurrarentzako silla ekartzeko ere... Han al dago arotza?»

«Bazkari egitera joana izango da hura.»

«Bai; guk ere...»

Eltzo lepaluzea azaldu zen, belarrian irratitxoa zuela; Joxeri zuzenean:

«Goñik ederra atzo, e! ederra... Antzeman, e, hark, nola zetorren pilota eta, sillen gainetik, e, salto egin, sillen gainetik, hamaika t'erditik jo eta, ona egin, e, ona, bai, e, ona egin zian!...» Besteengana itzuli, haurra ikusi zuen, masailean atximurka egin zion. «Amarekin ondo e, amarekin, bai, bai!»

Leirek harrituta begiratzen zion.

«Eltzo da, esan zuen Maxunek; osaba Eltzo...»

«E... e,» esan zuen Leirek.

«Hiri ari zaik, Eltzo.»

«E, niri, bai, niri ari zait, e, e, niri!»

«E...»

Sebas ere inguratu zen.

«Grita, niña, grita, si quieres comer!»

Maxunek zorrotz begiratu zion.

«Zer uste duk, espainolez entenditzen duela, ala!»

«Euskaraz ez din ba jakingo... Zer da, Txinakoa? Horixe; han ez ditun kabituko eta...»

«Hi! Honen herrian hi baino monigote azkarragoak seriean fabrikatzen ditiztek!»

«Ni baino azkarragoak... Baita, hi baino guapoagoak ere!»

Une hartan Jon, bakailao saltzailea etorri zen korrika, haur aulki bat ekarki.

«Torizue. Ijitoei eskatu diet... Gero eman haiei.»

«Baina baina... Jon!» Hura baina, joana zen, keinu irrigarri batzuk eginda. «Enee... Mutil hau ez zagon oso-osoa... Ai!; hori ez maitia... Belarritakoa ez...»

Bitartean Eltzok, kartera zabalik, pikardiaz, erretraturen bat erakusten zion Joxeri:

«Guapa, e, neska, guapa, e...»

Txoferrak erlojua erakutsi zion Luperi diskretu.

«Bai, esan zuen honek, nik ere joan beharra daukat... Bueno, pottoki... Agur. Edozer gauza, badakizue... Hor dituzue beharreko paperak.»

«Joan lasai; orain ja gu moldatuko gara.»

Adioak egin eta bazihoala, Lupe itzuli zen:

«Pañala aireportuan kanbiatu diot...»

«Bai; ondo dago dena... Agur... Orain bainu bat hartuko dugu etxean, bale maitia?»

«Neuk eramango dinat...» hasi zen Joxe.

«Zaude pixka bat; non sartu ote da gure mutil hori?»

«Hor nonbait ataskatuta egongo dun... Deitu egion.»

«Etxean zaukan eta mobila... Ba, furgoneta behar dugu... Bueno; badakizu zer? Gu hasiko gara puestoa desmontatzen, eta zuk, aita, emazu buelta txiki bat umearekin... Eramazu errekaren ondora, hor badago eta elur panpina bat... Eta, emaiezu silla ijitoei... Okurritzea ere!»

Haur aulkia abiatu zelarik, heldulekuari bere eskutxoez atxikita, Leireren harria...

Festa handi bat zegoen. Jende larri haiek, sudur handiak eta oinetako izugarriak zituztenak, geldirik ezin egon eta, arropa puxkak elkarri eman eta koloretako frutekin jolasten ari...

Gizon gorri hura, jendearekin borroka eta oihu egiten zuena, eta aitona tripa handi burubeltx hura, orain joan, orain etorri, gazta batekin dantza egiten zuena.

Patatak partitzen ari zen kamioi batetik gizon bizar-zarratu bat, eta hots egiten zuen, paatatak, paatatak, jostailuzko hitzak eta soinu arraro bat... Emakume erraldoi ile-hori beldurgarri batek berari begira kar-kar egiten zuen...

Garraxi egin zuen eta, berriz ere, aitona hura han: buruan txapela, matraila gorria, sudurraren tokian patata bat eta makila bat zerabilena... Beragana makurtzean, krak, zimurtu zituen musubelarriak, otx! egin zuen, eta berak barre...

Eta aitonak: hitz sekretu batzuk esan zizkion, berarentzako hitzak, eta taka, haren eskuan karamelu bat agertu zen. Hartu zuen, kri-kra papera marruskatu zuen, aitonari begiratu zion... eta

bota. Eta berriz ere aitona makurtu, eta berriz ere otx!, eta eman berari berriro. Eta berak... bota.

Aitonaren begi izugarriak. Karamelua ematekoa egin, eta tati. Ematekoa, eta tati... Bularrean kilima batzuk, barre egiteko gogoa, poz arraro bat, argi izpi urdin-urre bat eskuan... Abiatu ziren...

Txakurtxo bat etorri zen usnaka. Arbola gainean, haur bat laino batekin jolasten ari zen. Beste haur batek, emakume zuri-zuri potxola-potxola bati begi bat kendu zion. Kanta soinu bat; non, nor ari zen kantatzen?... Aulkitxotik atera zuen aitonak. Eskoba pasatzen ari zen emakume bat, mila koloretako soinekoa, misteriozko hitzak esan hari aitonak...

Eskua hartu zion: aitonaren esku beroa, biak suari begira. Su malkoak, egur erreak, karraskotsak, kearen urrina. Aulki batean jarrita, gizon ile zuri-luze bat pafa-pafa, pipatik erre eta, inoiz behinka ttu eta ttu, listua botatzen zion suari. Prest zegoen burruntzia su gainean...

Haize xuri bat, far-far, arbolatik hosto triste bat erori zen. Hari begira zegoela, diz-diz egin zuen errekak; karra-karra, antzarak errenkan.

Eskua harantza goititu, aitonari behatu zion; eta esan zuen:

«E.»

6
ETXEKONEKOAK

Pertsonaiak:

PATXI ZAHARRA, etxekoa.
GASTON, Patxiren iloba.
LARRA, Gastonekin ari.
JUANA, tabernaria.
PIKUTA, bere eskobarekin.
YAGO, beso makurrekoa.
AGUSTIN, udaltzaina.
MANDI.
MIKAELA, etxekoa.
LARRAITZ, etxez etxeko laguntzailea.
TAXI, linterneroa.
JOXEMARI, Unbakoa.
PELLO, astoarekin Etxabera joan zena.
MAITE, mertzeriakoa.
UXUE, Mikaelaren alaba.
AGENTEA.
Txonaren AITA.
IJITO bat.
AMONA.

Guridi eta Txona, Idoia, Uxueren laguna Nadia, Xeberi, Iñaki kamareroa, Maxuneren semea (Ixaka), kalean Jende gehiago.

Kale zaharreko puntan, zubi parean, elkargainka, zenbait etxe zahar-oker. Haietako bat, denetan apalena: bi solairukoa, leiho txikiak, hormak aspaldi pintatu gabe. Haren ondoan beheko plazari begira etxe txuri bat, beste aldekoan, lau solairuren azpian, Ipurua taberna.

Teilatuetako izotz burruntzietatik ura tantaka-tantaka, azokara zihoala edo handik zetorrela, edo beste gabe paseoan ibilki, jendea banaka edo binaka; zubian hiru agure, handituxe zetorren ibaiari begira; haratago mendi koska elurtuak, Adunako eliza; haratago Ernio.

Zokoren batetik ijito musika heldu zelarik, etxe txikiaren ondoan, banku bat, adreilu gotorrez erdi eginikoa: zementoa nolabait emanik, bukatu gabea. Pastera ondoan harea pila bat, adreiluak, lurrean hor eta han kapazo bat, errejazko hesi txiki bat, borra, pala, paletak, taladroa eta beste zenbait tresna eta erreminta.

Bi lagun faenan ari ziren: bibote luzeko Gaston tripa-handia, galtzak eta txamarra hautsez zikin eta tabernatik luzatuta mangera, ur txurrustarekin lur bandaz bestaldeko harresiko belarrak kentzen ari zena. Larra gaztea: ile-azkar, begi-eder, aitzurrarekin lurra urratzen ari zen.

Bi beharginei begira Patxi zaharra: hezur-giltza lokak, antiojoen atzean malkozko begiak, galtza argalak, zapatillak; haren alboan Pikuta: ile gutxi, txamarra, eskorga bazterrean utzirik, eskobaren gainean apoiatua eta puru txiki bat erretzen.

«Kontentu egongo zara, Patxi: orain muskerrak eguzkitan bezalaxe egon ahalko zarete hor eserita lagunak.»

«Bai... Udaletxeak ez du egiten eta, azkenean, guk egin behar!... Bankua baitzegoen hortxe lehenago; asfaltoa emateko kendu zuten hura.»

«Bai, gogoratzen naiz, lehenago bazegoela.»

«Horixe egon! Gu mutiko koxkorrak ginenean ere bazegoen bankua hor... Gauza ederra da bankua. Eguzkitan jarri eta, hezurrak berotzeko ere.»

Gastonek uraren giltza itxi eta, Pikutari, begia kiñatuz:

«Orain preokupatuta zagok; e, Patxi? Kenduko ote duten.»

«Zera kenduko dute...» esan zuen Pikutak.

«Permisorik ez ditek eman eta...»

Patxik ezpainak estutu, begiak arrunt zabaldu zituen:

«Gogor jartzen badira... Eta gero, guri emango digute kulpa.»

«Ezetz ba, Patxi. Hori guk egin dugu, zuk ez daukazu parterik horretan.»

«Kalean denak alde izango dira gainera,» esan zuen Pikutak.

«Etxekoak bai behintzat, esan zuen Patxik. Mikaelak eta, firma eman zuten...»

«Harentzat ere ondo... Ke-ba! Hor ez dira sartuko. Ez zait iruditzen, behintzat.»

«Plazakoak bezalako bat jartzeko eskatu genian, esan zuen Gastonek; ez zegoela beste holakorik. Guk ekarriko genuela; permisoa eskatu genian... Zera! Falta zela halako papera. Eraman genian... Handik hiru hilabetera: Ezin zela, hausten zuela... konjunto arkitektonikoa, ez dakit zer

esan zuten. Denon patrimonioa, holako xelebrekeriaren bat. Azkenean esan diagu: Auzokoek nahi dute, ba, egin egingo diagu, eta kito!»

«Mikaelari komeni zaiona da, esan zuen Patxik; bera ere gaizki nola dabilen...» Hatz dardartiaz etxeko ataria erakutsiz: «Zakarrak ere kendu behar ditugu hortik.»

«Gero kenduko ditugu, Patxi, zu lasai egon.»

«Hor daukat karrua, esan zuen Pikutak; zer edo zer hartu behar bada.»

«Ez. Bi zaku dira...»

«Neronek eramango nituzke kontainerrera zakuak,» esan zuen Patxik.

«Zuk zer eramango dituzu; basotik behera nahikoa pinu ekarrita zaude... Horiek, arratsaldean edo jende gutxiago dabilela guk kenduko ditugu. Horiek ez daude enbarazutarako hor.»

«Mikaelaren alaba gazteak, sorgin horrek, atzo bota zituen purrusta batzuk...»

«Ederra da hori.»

«Eskolan egon behar zuen baina, elurraren aitzakiarekin... Eta, bestela ere, parkean egoten baita.»

«Hori, Tantoan tipi-tapa ikusi izan dut,» esan zuen Pikutak.

«Bai. Ez eskolaren aurretik pasatzeko, ez eskolatik ikusteko, buelta handi bat eginda etortzen da hortik.»

Ipurua tabernatik Juana etorri zen.

«Bukatu al duzue urarekin?»

«Oraintxe, Juana, oraintxe eramango dizut.»

«Ez dago presarik e... Hola, Patxi. Ondo ari al dira mutilak?»

«Ondo ari dira, ondo.»

Kale bazterreko lur banda pixka bat elurtuan zulo bat egiteari lotu zen Larrari begira, Juanak:

«Hara, hara, ze polita uzten ari zareten...»

«Hor arbola jarri behar dugu...»

«Arbola ere jarri behar al duzue? Baina, baina... Lan handiak hartu dituzue.»

«Beste zer eginik ez dute eta hauek,» esan zuen Pikutak.

«Beste zer eginik ez? esan zuen Gastonek; ohean egongo nintzateke oraintxe; gutxi iruditzen al zaik?»

«Ez zaik gaizki etorriko lan pixka bat egitea, tripa bajatzeko ere.»

«Beldur gutxi alde horretatik; hau aseguratuta zaukaat...»

Juana bazihoala, etxe txuritik etorki, Yago beso-hautsia haien parean gelditu zen, imintzio garratz bat eta irri gaixto batekin bankuari begira:

«Hori al dugu? Txapuza ederra egin duzue!»

«Heuk egitea daukak. No te jode... Hau auzo lana duk, hi. Ez gaituk profesionalak gu.»

«Igeltsero horrek etorri behar zuen, esan zuen Patxik; nola da...?»

«Mandi.»

«Eta, esan zuen Yagok, mangera zertarako behar duzue?»

«Mangera? Eman ezak buelta, erakutsiko diat nola funtzionatzen duen.»

Patxik hartu zuen erreleboa:

«Horma zahar hori pixka bat txukundu eta, goroldioak eta likenak pixka bat kendu eta.»

«Horiek garbitzeko presio handiagoa beharko genuke... Bah. Orain jende asko samar dabil eta, gero segituko dugu.»

Mangera horma aldera nolanahika bildu eta, galtzetako poltsikotik zigarro pakete murriztua

atera zuen, eskaini eta gero zigarro arrunt okertua eraman zuen ahora. Pikutak, sano-sano:

«Hori duk lasaitasuna, moteel...!»

«Hola egingo duzue zuek... zera!» esan zuen Yagok.

«Hi: lana, tamainan egin behar duk;» begi ñika eginez: «Gero istripuak izaten dituk eta.»

«Lana? atzera Yagok. Batere gabe, ederki gaituk.»

«Lana... diskurritzeko ona da,» esan zuen Patxik; besteen irribarreak sumatuz, barre irudian bera ere: «Bai: diskurritzeko...»

«Lana, esan zuen Pikutak, pentsa ze txarra izango den, egiteagatik pagatzen dute...»

Kale berritik errekarantza udaltzainen autoa pasatu zen altabozetik hizketan.

«Hara, esan zuen Gastonek, etorri dira Kijote eta Santxo... Zer ari da esaten?»

«Ura, esan zuen Pikutak, ez omen da edatekoa.»

«Bazakiagu ez dela edatekoa... Nigatik behintzat libre dituk uretako xomorroak.»

Autoa zubian gelditu, udaltzain bat jaitsi zen; Gastonek aurrera pauso bat eman, Larrak utzi zion ari zenari.

«Agustin; honekin kuidado gutxi...»

Pauso ez oso seguruaz inguratu, distantzia batera plantatu zitzaien Agustin udaltzain lodikotea. Beste udaltzaina autotik begira gelditu zitzaien.

«Zer... ari zarete?»

«Bai; arian ari.»

«Zer ari zarete?»

«E... Mejora batzuk.»

Isilune bat; kuriosoren bat gelditu zen; udaltzainak, bankua seinalatuz:

«Zuek egin al duzue?»

«Guk ez. Hori beti egondu da hor.»

«Ya... Eta hor, zer ari zarete?»

«Arbola aldatu behar dugu hor.»

«Arbola? Zeinek eman du baimena?»

«Baimena? Ezer ez dagoen lekuan, arbola bat aldatzeko ere baimena behar al da?»

«Hombre! Baimena gabe, ez dago kalean ezer egiterik.»

«Eta, zeinek eman behar du baimena?»

«Udaletxeak.»

«Udaletxeak egin behar duena, baimenak eman ez, egin behar duena da, berak egitea... Klaro! Berak ez du egiten egin beharko lukeena eta, bestek egin behar.»

Sineste urriko aurpegia jarri zuen Agustinek, musua okertu zuen; erdi buelta emanda:

«Legea bete beharko da... Ikusiko dugu;» autoridadea bera zelako pausoaz, geldi-geldi itzuli zen autora.

«To! Badakik hik mingaina dantzatzen,» esan zuen Pikutak.

«Koplarekin joan duk.»

«Mm, esan zuen Patxik; horiek berriz ere etorriko dira.»

«Etortzea dute, Patxi; ez daukagu zer ezkutaturik.»

Yagok, garratz, etxe txikiko hormari begira:

«Etxe hau zeharo okertuta dago. Ez al duzu ikusten?... Hori udaletxeak egin behar duena da, etxea bota, eta zuri eta Mikaelari Rotondan etxe berri bana eman.»

Patxik ikara antzean begiratu zion, Gastonek esan zuen:

«Zu zer zara, injenieroa ala?»

«Hi, hobe beharrez esaten diat e! Niri, allakuidaus.»

«Hara, hemen diagu obrako burua,» esan zuen Pikutak; izan ere, udaltzainen autoa joan eta, berean etorri zen Mandi; estoldako zulo gain-gainean gelditu zen, jaitsi eta handik bere gorro beltzarekin, irribarre handi bat eta burua-rekin kasu egin zien, bakatik arbola askatzeari lotu zitzaion.

«Hau ere ez duk ez sorotik behera amilduko...» esan zuen Gastonek; denak Mandiri begira; patxada ederrean heldu zelarik hura: «Hamaikak, hi; hauek al dituk orduak?»

«Ixilik egon hadi, esan zuen gozo-gozo Mandik, Lezoraino joan behar izan diat eta arbola honen bila;» harresiaren ondoan utzi zuen arbola.

«Lezon edozer gauza. Zer eman diate?»

«Astigarra.»

«Astigarra? Pikua edo, ez al genuen esan?»

«Bestela ere badiagu nahikoa piku hemen. Hi! Emandakoa... Esan zieat norako zen eta,

honek oso ondo hartuko omen dik. Honek, lurra epeltzen hasten denean...»

«Astigarra ona da, bai,» esan zuen Patxik.

«Ez edozein astigar e! Japoniatik ekarri omen ditek hau... Honi gainera, udazkenean hostoak gorrasten omen zaizkiok...»

«Neguan hostorik ez duena, esan zuen Patxik, holaxe behar du; bestela itzalak eguzkia kenduko bailiguke hor.»

«Hori ba...» Horma aldera itzuli zen Mandi, bekainak goititu zituen. «Zer egin duzue hor?» Barreak eman, ez eman: «Hori al da bankua?»

«Masa falta genian eta...» esan zuen Larrak.

Mandi hurreratu zen, hanka puntarekin ukitu, zemento puxka bat askatu zen.

«Masa? Hau porroskatu egiten duk eta.»

«Zer uste huen ba? esan zuen burlari Pikutak; betiko egina zela, ala?»

Mandik zemento eskukada bat hartu zuen eta:

«Ura sobera jarri duzue hor. Jelarekin ur gutxiago behar baitu morteroak. Eta, ladrillo hauek nondik atera dituzue?»

«Joakin ez zegoan; esan zioat zertarako ziren Etxezarretari eta, horiek eman zizkidak.»

Mandik adreilu bi elkarren kontra igurtzi zituen.

«Sendoak, bai, esan zuen; garestiak ere... Bai: porlanaz ere juxtu ibiliko gaituk. Kotxean zaku erdi bat bazaukaat baina... Zer egin duzue, gaizki kalkulatu ala?»

«Galdu ere pixka bat galdu diagu eta.»

«Horixe. Metro kuboetan neurtu behar baita, betelana egiteko.»

«Guk metro koadroetan neurtu diagu eta,» begi ñika Gastonek.

«Hik neurtu, zera egingo duk, esan zuen Yagok... Pixua neurtu beharko duk hik.»

«Lehengoan neurtu nian; bai... Arrebarenera joan eta, aspaldi nire berri ez zuela eta, balantzaren gainean jarrarazi nindian. Jarri ninduan... Eman dik orratzak esferari buelta, hiru kilo markatu ditik. Hik arrazoia, esan zioat arrebari, larogeita hemeretzitik hirura jaitsi naun, hasi beharko dinat zaintzen...» Nonbaitik jo zuen mobilen batek. «Hirea izango duk hori.»

«Ez diat uste,» Mandik; Larrarena zen. «Nik telefonoa etxean, eta deiak hartzeko bakarrik. Hilean behin deitzen zidatek, baina normalean ekibokazio bat izaten duk.» Larrak telefonoa jaso zuen eta, hari: «Zer? Ekarriko al ditugu zementoa-eta kotxetik? Batidora eta... llana ere beharko diagu, ba.»

«Hola, hola! Fundamentoarekin...» esan zuen Pikutak, farrasta-farrasta, eskobarekin xakar pilo txikia eskorgara inguratuz.

Larrak Gastoni eman zion aitzurra, Yagok agur esan zuen.

Txona eta Guridi pasatu ziren, erreminta kaja eta kable-luzagarri bat eramaki. Idoia ere bai, kotxezitoarekin; Guridi hari zer edo zer esateko gelditu zen, Patxik Txonari zerbait galdetu zion.

Kotxetik etorri eta, Larrak zemento zakua lurreratu zuelarik, etxe txikian sartzera zihoan Larraitzi kasu egin zion.

Linoleo gainean alfonbra sare bat, norvegiar kutxa bat, aulki bat arropa batzuekin, aparadorea, armairu zahar bat, kalefakzio gainean arti-

lezko galtzerdiak, mesanotxean baso bat eta botika kajatxo batzuk; sabaian bonbilla piztuta, gelako paretetan, lore ñimiñoekiko paper lastokara gainean, dekoraziotzat zenbait plater zeramikazko: Kordoba, Granada, Napoli, Palermo...

Mikaela ohean ezarrita zegoen: irrati txikia piztuta, bizkarpean almohada eta kojina, bufandarekin eta jertse lodi berde ilun batekin jantzita, eskuak edredoiaren azpian, hanka aldean katu beltza kiribildua, ohearen alboetan manta gorri pikardatua ageri zen. Masailak zimurtzen hasita, flekillo horia, begi urdinak geldi, goiti zetorren Larraitzen pausoak aditu zituen.

Haiek gelditu, giltza hotsa, atearen kirrinka, zoruko karraska, Larraitz sartu zelarik eskuak edredoipetik atera eta itzali zuen irratia.

«Hola...» saludatu zuen pasillotik Larraitzek; burua jaso gabe, hara begiratu zuen katuak. Gelara egin zuen Larraitzek: ile beltx-gorri tximatuekiko neska bixi potolantxa. «Egunon Mikaela...»

Irribarre ahula egin zuen Mikaelak.

«Egunon...»

Lepoko fularra erantzi, aulkiaren bizkarrekoan utzi eta, zamarrako kremallera ireki gabe:

«Aspaldiko; zer moduz?»

«Hementxe... Kaleko marmar hotsarekin entretenituta.»

Larraitz makurtu, bi musu eman zizkion:

«Baina, sudurra hotz-hotza daukazu...»

«Bai, neska... Berotu ezinda nago.»

«Ya. Hotz bat egiten du... Bizkarra, zer moduz duzu?»

«Hola-hola. Lehenago jaiki naiz komunera joateko eta, min handiarekin... Orain hobetoxeago nago. Botika hartzeko ordua ere badaukat eta...» Mesanotxera, imintzioa egin zuen.

«Zein duzu... Hau?»

«Bai: gorria; utzi; orain hartuko dut...»

«Itxoin. Ura ekarriko dizut.»

«Ura, ez dakit... Munipak pasatu dira orain-txe, zikina behar du.»

«Bai aditu ditut; irakiten jarriko dizut.»

«Zaude;» esku meharrez ohegainak pixka bat atondu zituen; «eseri zaitez pixka batean...» Larraitz jarri zelarik katua altxa, ohe gainean itzulitxo bat egin, lehengo toki bertsuan, pixka

bat haraxeago jarri zen; lurrun zurixka atera zuen Larraitzek ahotik. «Egun hotzak, e?»

«Gaur hotzena hala ere.»

«Elurra, eta... Herrian egongo zinen.»

«E? A, oporretan bai; ja ahaztuta nago... Badakizu: egun horietan, jan eta edan, ez da beste konturik izaten. Zuek ere egingo zenuten festa pixka bat?»

«Guk? Zer egingo genuen guk? Polboroi batzuk ekarri zituen Jonek...»

«Ahizparen etxera ez al zineten joan behar?»

«Baai. Urtezaharrarekin ez, errege egunean joan ginen azkenean. Arkumea eta, roskona eta, turroi pixka bat ere probatu genuen eta... Kanpoan izan baitziren ahizpa eta bere gizona; Portugalen... Ikusi, plater hori ekarri zidaten.»

Oheaz bestaldean, lurrean zegoen platera ikusteko altxa-okertu zen Larraitz.

«Re-don-do, irakurri zuen. Oso polita da.»

«Hango eszena tipiko bat omen da.»

«Hala izango da... Zuhaitz bat, bi emakume igitaiaz garia ebakitzen ari... Bi kardo handi ere badira edo, ez dakit zer diren horiek...»

«Bai; kardoak omen dira.»

«Eta hor, gizon bat ere, zahatotik edaten...»

«Ez; botijotik edaten ari da, esan zuen Mikaelak... Gero jarriko didazu paretan; kajoian badago iltze-kako bat. Zer iruditzen zaizu? hor edo... Han ere badago tartea...»

«Hor pare-parean ondo geldituko da.»

Mikaelak hasperen egin eta, isilune baten ondotik:

«Bazkalondoan, esan zuen, Uxuek kantatu zuen... Oso ondo kantatu zuen. Denak berari begira zeuden eta, bukatu zuenean, txalo ederrak egin genituen... Sumatu nuen, irribarrez ari zela. Gero, nire ondoan izeba Maria zegoen, Urnietakoa eta, hark esan zidan: 'Ikusi behar zenuen Uxueren irribarrea'... Eman zidan pena bat... Negar egin nuen...»

Eskua hartu zion Larraitzek.

«Klaro; zuk ere ikusi nahi...»

«Ikusi nahi nuen irribarre hori... Istant batez ikusi, foto bat egiteko denbora...»

Larraitzek eskua ferekatu zion.

«Pozik egongo zen Uxue...»

Zapitxoarekin malko bat xukatu zuen Mikaelak.

«Denbora asko zen, ez zuela kantatzen. Eta balio du. Balio du baina, ez du kasu egiten...»

«Jone ere han egongo zen. Ja bost hilabete izango ditu...»

«Ja sei hilabete... Orain lanik gabe gelditu da.»

«Bai? Ez esan...»

«Jaiak pasata eman zieten abisu: Hilaren hamabostean, zu eta zu, kanpora. Bost lagun joan dira kalera. Eguberriak ez puskatzeko ez omen zieten abenduan esan. Protesta egin dute... Alferrik. Noski kanpoan erosi behar omen dute papera... Hori esaten du nagusiak. Azken hitza berak nola baitaukan.»

«Eta, zer egin behar du orain?»

«Aste honetan hor ibili da, batera, bestera... Asteartean, neska bat behar zutela eta, denda batean izan zen. Nagusia hasi zitzaion galdera arraroak egiten, aber bakarrik bizi zen, aber deportea egiten zuen, aber umeak izateko pentsamenturik al zuen... Noski esan zion, haurdun zegoela eta... Badakizu.»

«Bai; orain ez dauka oso ondo.»

«Atzo joan behar zuen Billabonako enpresa batera, komertziala behar zutela anuntzio bat ikusi zuela eta... Ez dakit; horretarako kotxea beharko da noski.»

«Bera ez da etxean izango...»

«Ez; hura ja... Gero etorriko da igual. Uxue dago hor, lagun batekin; lehenago telebista piztuta izan dute eta... Orain isildu dira; ez dakit zer ari diren. Desbarajuste bat ibiltzen du... Esan diot, labadora jartzeko baina, zera.»

«Labadora nik jarriko dut.»

«Eez... Berak jartzea du. Lehenago sukaldean ibili da. Isilik zegoen eta, katua ez zen hemen eta: 'Zer ari zara, Uxue?' 'Zer, ba?' 'Badakizu ez zaiola galletarik eman behar Mixiri.' 'Bai badakit'... Eman egin dio, horixe.»

Larraitz jaiki zen; protesta imintzio bat egin zuen Mikaelak.

«Momentu batean, esan zuen Larraitzek... Ez da ezer kostatzen.»

«Zaude;» jaikitzekoa egin zuen Mikaelak; «emaizkidazu galtzerdi horiek; hankak ez zaizkit berotzen...» Tapakiak kendu eta, Larraitzek erantzi egin zizkion jantzita zeuzkanak. «Atzo,

hankak labean sartuta egon nintzen eta, goiko suarekin galtzerdien puntak erre egin zitzaizkidan.»

«Amaa. Zuk ere...» Erantzitakoak estufa gainean jarri eta, galtzerdi beroak janzten ari zitzaiola: «Nire amonak esaten du, hankak berotzeko galtzerdi barrenean mostazaren irina paratu behar dela. Hala esaten du: joaten omen da harekin oinetara odola...»

«Oinetara niri... nondik joango zait odola, maitea? Inon ez daukat berorik eta.»

Basoa hartuta, Larraitz sukaldera joan zen; kazo hotsa entzun zuen Mikaelak, metxeroa piztu hotsa...

Larraitz etorri zen eta:

«Zer pasatu da sukaldean? esan zuen; ze zulo da hori?»

«Bai, ez dizut esan... Lehengoan, zer zen?, asteazkenean noski, arratsaldean etxean bakarrik nengoen eta, soinu handi bat aditu dut sukaldean; joan naiz... Zoruan harri xehe batzuk, harraskan eta kubiertoen gainean hauts lodi bat eta eskaiola zatiak, dena kakaztuta zegoen... Deitu nion Patxiri... Berak ez zuen ezer sumatu;

berean ezer ez, haren sukaldean ez da ezer ikusten; justo haren suaren azpian izan da... Uxue auskalo non ibiliko zen eta, eskerrak Jone etorri zen iluntzean... Orain, berriz, ez dakit zer pasatu den, dutxan ez daukagu urik... Halako batean, etxea dena behera etorriko zaigu... Ostegunean pasa zion Patxik abisu linterneroari; gaur esan omen zion etorriko zela; ez dakit...»

«Nagusiari ez al diozue esan...?»

«Hari ez esatea hobe.»

«Baina, hori berak egin beharko luke.»

«Kasua egingo du ba horrek. Ezagutzen dugu.»

Larraitzek, aulkiaren gaineko arropengatik:

«Hauek zer dituzu, garbitzeko?»

«Ez, horiek ez; kolorezkoak lehengoan egin genituen... Saskian dituzu denak.» Larraitz pasillorantza zihoala: «Itzali kalefakzioa; automatikoak salto egingo du bestela...»

«Argia ere itzaliko dizut...»

«Bai, itzali; gauez piztuta utzi dut... Gauez dena itzalita, buruko mina ematen dit eta.»

Larraitz sukaldera joan zen. Arropa eta jaboia labadoran sartzen ari zela hotsak... Ontziak garbitzen hasi zelakoak ere etorri ziren.

«Utzi horiek! esan zuen Mikaelak; gero egingo ditut nik!»

«Ba!...» Geroxeago: «Kamamila jarriko dizut.»

«Bai!...»

Handik pixka batera etorri zen Larraitz.

«Kontuz, erre egiten du.» Basoa mesanotxean laga, zamarra erantzi eta: «Liburu bat ekarri dizut.»

«Ui! Ze liburu?»

«‘Cartas de Italia.’ Biajetakoa omen da; esan dit liburutegiko emakumeak, oso ondo dagoela...»

«Italia... Nire ilusioa izandu da beti...»

«Esan zenidan; horregatik gogoratu naiz.»

«Ahizparekin joatekoak ginen. Gero pasatu zena pasatu zen...»

«Gero irakurriko dizut;» liburua aulki gainean utzi, eta: «Ikusi dut badituzula porru batzuk hor... Porrusalda egingo dizut, bale?»

«Bai, neska; konformatuko gara. Tomate koxkor bat ere badago...»

«Ikusi dut, bai. Patatarik ez al dago?»

«Atzo afaltzeko jan genuen patata.»

«Ba; porruarekin ondo etortzen da beti ere patata...»

«Ez... Atzo afaltzeko patata... zegoen azkeneko patata jan genuen.»

Errieta doinuarekin, Larraitzek:

«Mikaela; jakin izatera zerbait erosiko nuen... Ogia ere gogor-gogorra dago eta; momentu batean jaitsiko naiz...»

«Ez jaitsi; frigorifikoan badago ogi puxka bat.»

«Frigorifikoan?»

«Bai; kanpoan jelatu egiten da eta. Atzo yogur bat kanpoan utzi nuen eta, gaur goizean izoztuta zegoen.»

«Zer esaten duzu?» sinesgaitz, irri doinuz, Larraitzek; «orain hemen baino epelago dago ba sukaldean...»

«Seguro baietz; Patxik ekonomika piztu baitu goizean; orain zulotik sartzen da beroa...» Larraitz berriz ere harantza: «Eduki bost minutu

sutan eta gero ekarri kutxara; gasa gutxi dago eta.»

Larraitz joan eta, Mikaelak pastilla gorria ahoan hartu eta tragu larri batez irentsi zuen. Kalean ahots sendo eta zalaparta batzuk aditu ziren, palaren soinu zakarra lurrean, baten bat kristoka, mutilen barreak. Etorri zen Larraitz.

«Hor, zer obra edo zer ari dira hor?» galdetu zuen.

«Hormaren kontra, bankua ari dira jartzen, esan zuen Mikaelak; esan zidan Patxik gaur jarri behar zutela; jartzeko ziren... aspaldi... Aizu; barre egingo duzu baina, lehenago kalean txerri bat kurrinka aditzea iruditu zait...»

«Txerri bat kurrinka?...»

Larraitzen irribarrea sumatuz, egin zuen irribarre Mikaelak ere:

«Ez dakit, ba; nire irudipena izango zen...»

«Igual bai, e, esan zuen Larraitzek... Herri honetan ja ez nintzateke ezerekin harrituko...» Hanka punten gainean, kaleari begira. «Bankua ez da hemendik ikusten...»

«Hor al dago Patxi?»

«Bai; hor zen lehenago behintzat... Orain ez dut ikusten...»

«Linterneroari kasu egiteko... Zein beste dago?»

«Hor da barrendero txiki hori eta, berarekin mutil handi bat, nola da hori? Kixmiren anaia, Joxemari uste dut... Arbola txiki bat ere ekarri dute. Badirudi hor aldatu behar dutela.»

«Aditu dut bai lehenago zer edo zer ari zirela arbola batetaz. Ez didate ba ezer esan... Non aldatu behar dute?»

«Kaleaz bestaldean dagoen lur zati horretan egin dute zuloa.»

«Parean al da?... Ernioren bista, ez al digute kenduko.»

«Bai... Zuloa nahikoa parean dago baina, txiki-txikia da arbola.»

«Gero handia egingo da.»

«Ez dakit zein arbola den... Galdetu egingo diet.» Leihoa ireki zuen; horma zabala zen eta, leiho barrenean gorputza luzatuz, orain bere bistapean ageri zen, ezpainetan zigarro okertua zerabilen Gastoni: «Aizu! Ze arbola da hori?»

«Hori? Astigarra.»

«Hori zer egingo da, oso handi?»

«Hori? Zer egingo da?...» Mandiri begira; honek, esku lepoarekin muki ttantta bat xukatuz:

«Zortzi-hamar bat metro edo. Gehiago ere bai igual, hemendik berrogeita hamar urtera. Zer, ba?»

«Ez; Ernioren bista kenduko ote duen...»

«Ernio?» Batera bestera begiratuz kalkulu batzuk egin eta: «Ez dakit ba. Pixka bat kendu egingo du horko bista igual.»

«Ezin al duzue harantzaxeago aldatu?»

«Harantzaxeago? Be... bai; ez da lan handia.»

«Bi-hiru metro harantzago edo...»

«Bai... badago tartea.»

«Ikusiko duzue, esan zuen Gastonek, honek udan ze freskura ederra...»

Kalean zeri-miran lagun batzuk gelditu ziren, eta:

«Hori egiten baduzue...» Atzera egin eta, agur gisa eskua jasota: «Eskerrik asko.» Leihoa itxi zuen.

«Ondo esan diezu, Larraitz. Argia ere, ez dugu eta sobera etxean.»

«Nahi al duzu hemen eseri, Mikaela? Izkina honetan eguzki pixka bat baduzu oraintxe.»

«Eez. Ez dut mugitu nahi oraintxe. Leihoaren zirrikitutik gainera, sartzen da haize bat... Hemendik nabaritzen dut. Zinta jarri behar genuela baina... Zein zen, Patxiren iloba?»

«Igeltseroa?»

«Ez; bestea.»

«Ez dakit; biboteko bat...»

«Bera izango da, bai: Gaston; mutil zabarragorik... Lehenago beste mutil batekin ari zen...»

«Larra?»

«Gazte bat... Mutil isila da hori. Eta, goapoa izan behar du...»

«Bai, hala da; zuk nola dakizu...?» Irribarre egin zuten biek. «Oso majoa da baina, ez da nire tipoa.» Musua zimurtu zuen. «Gainera, neska batekin dabil...»

Pausa baten ondotik, hasperen handi bat egin zuen Mikaelak.

«Ai!... Nahiago nuke gure Uxuek ere nobioa baleuka...»

«Zer esaten duzu...? Oso gaztea da nobioa izateko, Mikaela.»

«Bai, baina... Kezkatu egiten nau. Lagun horiek baditu baina, barru-barruan ikusten dut... oso bakarrik. Lehengo egunean bere gelan aditu nuen... Hasieran pentsatu nuen mobiletik ari zela. Baina zen soinu urratu bat... Joan nintzen isil-isilik bere gelarantza... Negarrez ari zen.»

«Normala da;» aulkian eseri zen Larraitz; «bere edadean edozein gauzarekin...»

«Bai; eta ez bere edadean bakarrik. Kezkatzen nauena da, ezer ez esatea. Ez baitit kontatu nahi ezer... Zer esango diot? Sentitzen dut urruti balego bezala, baina... hementxe dago.»

«Bah; orain nobioa esaten duzu baina, ikusiko duzu ze pena gero, joaten denean...»

«Hori bai. Jone joan eta gero, hura etxean asko egoten zen eta, orain Uxue gabe izango nintzateke... transparentea... Lehengoan diskusioa izan zuen ahizparekin. Jonek galleta horiek ekarri zizkidan eta, Uxuek: ‘Nola okurritzen zaizu galleta horiek ekartzea?’ Badaki ez zaizkidala komeni... Gauza horiekin oso sentitua da. Nik esa-

ten diot: ‘Nik badakit...’ Ez dut nahi, nigatik preokupatu dadin. Eta, aldi berean, eskertzen diot...»

«Gelan norekin dago?»

«Neska horrekin... Nadia. Orain dela gutxi egin dira lagunak. Horrek ere, ez du asko hitz egiten baina, behinik behin, kasu egiten dit; ez beste batzuk bezala... Bere etxean paliza ederrak hartua izan behar du. Horregatik etortzen da gurera. Neska leiala ematen du. Gustatzen zait Uxuek holako lagunak izatea... Orain biak egongo dira lo. Egon naiz lehenago sartu, ez sartu; telebista ikusi nahi nuen. Atzo hartu zidaten, hor gelditu da. Uxuek esaten dit: ‘Ama, zuk badaukazu irratia.’ Bai; badut irratia baina, ez da gauza bera. Programa hori, atzo gustora ikusiko nuen, nola da? emakume rubia horrena... Orain ez zait izena gogoratzen...»

Eskaileran gora pauso hotsak entzun zituzten.

«Hara. Hemen dugu Patxi.»

«Ez. Linterneroa izango da hori... Portala irekita utzi al duzu ba?»

«Hala zegoen eta...» Txirrina jo eta, Larraitz jaiki zen, ireki zuen atea.

«Egunon!» saludatu zuen Taxik.

«Berdin... Sartu, sartu; hor dago Mikaela.»

«Larraitz! hots egin zuen Mikaelak. Ekatzazu eltzea!»

Larraitz sukaldera joaki, katuak ohetik salto egin, Taxik pasilloan kaja lagata egin zuen Mikaelaren gelara: begi txikiak, ile urria, ahoan espresio burlati samarra.

«Egunon Mikaela. Hots!...» Katua hanka artean sartu zitzaion. «Garaiz al nator?»

«Bai; uste nian ja ez hintzela etorriko.»

«Lehenago etorri nahi nuen baina... Enpresatik hona etortzeko, autobian sartzera joan naiz eta, horko kruzean dago krixto bat... Kamioi bat irauli edo ez dakit zer pasatu den, ordu erdia eman dut gutxienez hor geldi-geldirik... Eta, zer sorpresa dugu gaur?» Eltzea zekarrela etorri zen Larraitz; hura norvegiar kutxan sartu eta almohadilla eta taparekin ongi itxi zuen. «Etxe honetan, beti izaten da sorpresaren bat eta.»

«Zera, esan zuen Mikaelak, sabaia erori duk sukaldean.»

«Sabaia? Nola ba?»

«Sabaia erori eta... hor tuberiaren bat izango duk noski, orain dutxara ez baita ura etortzen.»

«Ura dutxara? Zer esaten ari zara?... Aber...» Larraitz aurrean zuela, sukaldera egin zuen; handik haren hotsak: «La ostia. Hori da aberia... Bai. Mantxa atera da hor... Hor badago ihesen bat, bai. Ez da ba normala. Hori konpontzeko... fu!»

«Hi! hots egin zuen Mikaelak... Aizak!» Mutila etorri zen eta: «Motel, nola haiz? Beti ahaztu egiten zaidak hire izena.»

«Ramon. Lagunentzako Taxi.»

«Taxi, hori duk. Ez zakiat horrekin zer ikusia izango duen baina, orain komuneko bonbak ere hamar minututik gora behar dik betetzeko...»

«Bonba?»

«Bai eta, oso goian zagok eta, aulki batean igota belarria jarri behar diagu, zergatik urez betetzeko bonba, lababoko grifoa ireki behar diagu eta, errekaren hotsarekin ez duk aditzen bestela...»

«Jesus, zer da hau? Intxixuak sartu ote dira etxean?»

«Ez zakiat zein izango den sartua... Aber hik bilatzen duan.»

«Oraintxe ikusiko dut... Hor dena sukaldekoa ez da izango e? Esaten duzunagatik, hor matxura bat baino gehiago dago.»

«Dutxa behintzat...»

«Bai; ikusiko dut ba, zer egitea dagoen;» kaja hartu eta komunera egin zuen. Larraitz eseri zen ohean.

«Bost egun dutxatu gabe,» esan zuen Mikaelak.

«Ya. Neguan ez da hainbeste behar, baina...»

«Ez baina, ilea daukat...»

Hatz-buruekin Mikaelari ilea apur bat harrotu zion Larraitzek.

«Ondo daukazu.»

«Mm... Zikina daukat.»

Komunean, lababoko grifoa ireki eta, hango ispiluak dar-dar pixka bat egin zuen; Taxiren ahotsak:

«Baduzue balde bat?» Larraitzek jaikitzekoa egin zuen, baina: «A, hemen dago bat; bale, bale...»

Isilaldi baten ondotik, apalsko:

«Honekin ibiltzen omen da Migel,» esan zuen Mikaelak.

«Bai; ikusi izan ditut elkarrekin kuadrillan.»

«Horrek ere...» musua okertu eta, klink egiteko sinua egin zuen Mikaelak.

«Zein, Migel?»

«Bai; lanetik tabernara bidea badaki baina... Lehengoan, Jone sukaldea garbitzen aritu zenean, bera kalean egon zen... Hor egon zen zain: aditu nion, zintz egiten zuela... Esan nion Joneri: 'Uste dut zure nobioa katarroarekin dagoela...' Ez dakit, ba. Ezkondu egin behar dute eta, ni ikustera lau edo bost aldiz etorri bada... Esan didate zatarra dela, baina...»

«Zatarra? Bai zera. Normala da. Gainera, hori...»

«Bai, badakit gutxienekoa dela; gainera, Jonek hura nahi badu...» Bonbaren soinua etorri zen komunetik. «Ez du poz handirik izan gure alaba horrek; izan dezala hori behinik behin: ezkondu dadila, eta gero...»

«Gero gerokoak.»

«Gero... gizonak errespetatu dezala; ez dut besterik eskatzen.»

«Orain, lana bilatzen badu... Asko izango da hori.»

«Hori bai... Ai... Errezatzen ez dakidalako, bestela... Lehengoan telebistan, atera zen rubia hori, Elena Barco!, hori, esaten zuen: ‘Hemen gauzak hola izaten dira: emakumeek itxoin egiten dute, eta zaharretan onak izaten dira; gizonek edan egiten dute, eta zaharretan erotu egiten dira.’ Ze gauza, e!»

Katuak aharrausi egin zuen. Etorri zen komunetik Taxi.

«Bueno. Bonba ondo jarri dizut. Bestea... Tuberia zati bat aldatu behar dut; Fonsatik ekarriko dut. Arratsaldean etortzen banaiz...»

«Hemen egongo gaituk.»

«Hor zulo barrenean ikusten da egurra... Pf! Oso hondatuta dago.»

«Ya; pipiak janda egongo duk hori...»

«Pipia edo... Zulo handi samarrak dira, igual beste eskarabajoren bat ari da kirri-karra hor. Hori dena, ondo utziz geroz, fumigatu egin beharko litzateke.»

«Labezomorroak ez dira ba izango? Orain Patxiren labetik...»

«Ke-ba. Etxea dena dago...» Lurrean zanpa egin, karraskotsa atera zen.

«Ez fuerteegi zapaldu, esan zuen Mikaelak, igual behera joango haiz eta. Eta zuloa tapatzeko, hi...?»

«Hori nik ez... Igeltseroak egin beharko dizu hori.»

«Mandi dago behean,» esan zuen Larraitzek.

«Horrek ez du igual holakorik egingo,» galde egin zuen Mikaelak.

«Hori edozeinek, esan zuen Taxik. Orain denek denetik egiten dute; ez da lehenago bezala.»

«Igual horri esatea...»

«Neuk esango diot, nahi baduzu.»

«Esaiok bai, faborez...»

«Nik gaur tuberia jartzen badizut... Astelehenean etortzeko esango al diot?»

«Astelehenean, ondo.»

«Bueno... Laurak-bostak aldean etorriko naiz. Kaja hor uzten dizut.»

Agur esan eta, Larraitzek atea itxitakoan, leihora egin zuen.

«Mm, esan zuen; eguzkia ezkutatu da...»

Goiak estaltzen ari, kalean gora eta behera jendea, Larra paleta zabalarekin masari eraginez eta Mandi llanarekin bankua nahikoa moldatuta artean, Gaston berriz, kaleaz bestaldean esku biez pikoaren kirtenari eutsita, berari eta Joxemari handiari Pello bizarbeltza keinu eta espantuka ari zitzaien.

«...Eta, ja Etxabera ailegatzen ari ninduan eta, halako batean, hango ukuilutik bezala ahots handi batzuk aditu nitian, gelditu ninduan eta, abisatu gabe hi, tiroa tiratu zidatean! Salto egin nian eta... eskerrak horri, bestela bala hori niretzako zuan! Astoa noski askatu egin zuan eta sustoarekin maldan behera joan zuan arrapaladan...»

Hartan Taxi, kalera irten eta, haiengana joanda, Joxemariri saihetsez:

«Ze: lanik eza dagoela...»

Joxemarik, serio antza, arrunt itzuli gabe:

«Ixo... Oraintxe libre utzi ditek.»

«Zein?» Pellori: «Hi? Non izan haiz ba?»

«Kuartelean.»

«Eta hori?»

Pellok ezaxola plantan, harrotasun puska batekin sorbaldak kixkurtu zituen.

«Eta? esan zuen Gastonek; segi ezak: tiroa tiratu ziaten eta...»

«Bai, tiroa... Eta, nik salto egin nian eta, astoa bazihoala ni ere saiatu ninduan handik barrena ospa egiten baina, zutik jartzearekin gainean bi guardia nitian... Buruan kolpea jo eta besoan giltz txar bat eginda eraman ninditean Etxabeko ezkaratzera eta, han hiru edo lau lanrober edo patrol horietakoak zeudean eta, izkina denetan eta sasiartean ere zibila mordoa, denak txanoa jarrita, haietako patrol batean sarrarazi ninditean eta, sartzearekin eta batere galdetu gabe di-da, di-da, goian eta behean zartako ederrak eman zizkidatek eta, gero: 'Tú quién hostias eres?' galdetu zidatek, eta nik: 'Pello...' Danba! Me caguen dios... 'Pedro... Pedro Otxondo!' Danba!... Joder, ez al naiz ba Pedro Otxondo?... 'Dónde están los otros?' 'Los otros? No... yo estoy solo,' esan zieat eta, kaputxa jarri zidatek eta, abiatu gaituk...»

Mandik masa aldia bukatuxe eta, Larra banku aldean paleta jardunean lagata inguratu zen.

«Bidean ni zeharo makaldu eta goitika egin diat; ezer garbitu eta ezer gabe behintzat, presa batean kuartelera iritsi eta sartu naitek gela txiki batean eta, han hasi zaizkidak Artola delako batetaz galdezka: non zen Artola eta, non gorde genuen eta... Orma gazteaz ere galdetu zidatek: Tapaxez; non zen eta... Esateko dena... Nonbait haren bila zebiltzaan, nonbait haren zain zeudean Etxaben... Eta nik, Artola hori ez nekiela nor zen eta Tapaxen berri ere ez nekiela aspaldi, egunak neramazkiela ikusi gabe. Eta: non bizi nintzen ni; zergatik, karnetean Idiazabalgo helbidea baitago jarrita. Eta, nik hori ez niean esan nahi, zergatik esanez gero igual joan egingo zituan etxera eta, arrebak gero krixtonak esango zizkidaan; baina, insistitu egin ditek eta, azkenean esan egin zieat eta, hala ere, orain koinatuarekin hitz egin diat eta, ez omen dituk guretik azaldu... Gero hasi zitzaizkidaan zapatillarekin kaskatekoak ematen, eta: Aber zer egiten nuen astoarekin Etxaben. Esan zieat astoa hangoa zela, Olakuan lagunekin egon eta astoa azaldu zela hara eta hura laguntzen joan nintzela Etxabera baina, haiek ez zitean hori aditu nahi eta,

kiski eta kaska, haiek berenarekin: nonbait zerbait egina izateko susmagarria ninduan eta, uste zitean baten bat nintzela: Artola hori norabait eramatekoa nintzen eta nora eraman behar nuen eta, noski nik banekien non gordetzen zen eta: ‘Dónde lo tenéis?’ Nik azkeneko: ‘Joder, en un zulo estará!’ Eta: ‘Dónde está el zulo?’ Eta nik: ‘El zulo?... En el monte estará!’ Sartu zidatek ahoan zapatilla, gero esan zieat: ‘Qué te voy a decir? Yo no sé de qué zulo me hablas...’ Eta: hitz egiteko ‘de usted’. ‘De usted? No sé yo de usted...’ Kaska, kaska!... Gero inutiltzat utzi naitek, orduko beste bat ekarri zitean: Erdoizta, hura ere gauean Olakuan gurekin zegoan eta, hari, ondoko gelan krixto bat eginda zegoan eta, bera ere astoarekin edo ez zakiat nola harrapatu duten, esaten baitzioten: ‘Rebuzna!’ Eta Erdoiztak, hasieran ez nahi eta, gero berriz, joder rebuznar, gozo-gozo egin dik arrantzan... Ni han bakarrik egon nauk... hiru bat orduz igual, aldian-aldian bat pasatzen zuan eta hitz politen bat esaten zidaan, gero besteak ekarri ditiztek: Kakoren ahotsa aditu diat behintzat...»

«Kako han al dago ba? galdetu zuen Mandik; me caguen dios, Tximitxan bazkaria genian...»

«Kakorena eta, Tolorena ere bai, ai-ai-ai eginez; Txemiñe ere bai... Horiek denak bart gauean Olakuan zeudean, han atxilotuko zitiztean edo... Nirekin berriz, paperak eta denak ondo nitian eta, azkenean konturatu dituk ez nintzela ezertako mobida horretan, buru egiten zuenak esan dik: 'Ese a la puta calle que es un gilipollas.' Eta, nirekin zen gazte batek esan zidak: 'Pues, para qué andabas escapando?' Eta, nik esan zioat: 'Joe, me tirasteis un tiro! Queríais hablar conmigo? Para qué me tirasteis un tiro?'... Eta, hola atera nauk...»

«Besteak han gelditu al dira?»

«Geroztik ez badira atera... Nik taxia hartu eta bakarrik etorri nauk behintzat.»

«Ander ez zen ba tartean izango, esan zuen Gastonek; ongarri puxka bat berak ekarriko zuela esan ziguan eta...»

«Ba, seguru asko bai e! Ze, hura ere Olakuan gurekin zegoan...»

«Familiek ba al dakite?»

«Batzuek bai behintzat. Lehenago Txemiñeren aitarekin egon nauk eta, Edurnerekin hara zihoaan oraintxe;» erlojuari begiratu zion; «ostia, ordu bata pasea... Bakailaoa erosi behar diat.»

«Azokara al hoa? esan zion Taxik; hirekin noak. Hago...» Mandi aparte hartuta, hari hitzerdi bat esan, eta: «Goazen!»

Abiatu ziren Pello eta biak, haraxeago Xeberi zaharrarekin topo egin eta harekin berriketan gelditu ziren. Jende gehiago zebilen orain: erosketak egiten ari zirenez gain, poteoko kuadrilla batek edo bestek ere kalera egin zuen. Gastonek zigarroak atera zituen; Mandik esan zuen:

«Artola horren bila ibiliko dituk... erotuta.»

«Zein da hori, esan zuen Joxemarik, kartzelatik martxa egin duena, ala?»

«Bai: Jose Ignacio Artola; ez ditek esan nolaz egin duen baina... Ederra sakatu ziek.»

«Kontrolak eta, horregatik izango dituk...»

«Noski horregatik... Orain, Tapaxen bila...» Ez sinestez, karantza luzatu zuen Mandik.

«Hori ekibokazioren bat izango duk, esan zuen Gastonek; atzo arratsaldean txatarrerian

izan ninduan... Han hartu nian burdina hori; eta, han zegoan bera... normal.»

«Hark zer izango du ba? esan zuen Joxemarik; hark ere, horrek bezalaxe eta nik eta hik bezalaxe: zotza!»

«Horiek amorrua zigutek...» esan zuen Mandik.

«Ke-ba! esan zuen Joxemarik sendo. Hori industria bat duk... Hik badakik zenbat jende bizi den hortik: zenbat juez eta zenbat polizia eta zenbat paper-zorri? Horiek kriminalak, ez diren tokitik atera behar ditiztek. Bestela, nondik biziko dira? Ez bailitzateke horientzako lanik, horregatik geroz eta gauza gehiago delitu dituk.»

«Goizean goiz, esan zuen Mandik, horren fotoa erakusten ibili dituk ertzainak azokan. Gure lehengusinari erakutsi omen ziotek eta: 'Niri zer erakusten didazue? esan dik Maxunek, fotoa egindakoan zergatik ez duzue harrapatu? Orduan bazenuten aukera'...»

«Begira, esan zuen Gastonek, han zoak haren semea furgonetarekin.»

«Bai. Horrek ere injuriengatik epaiketa zaukak.»

«Nonahi ere delituak, esan zuen Joxemarik, nik esaten dudana...»

«Bueno mutilak, esan zuen Mandik, hori bukatu behar diagu... ja! Aber ordu bietarako...»

«Ea ba,» esku ahurretan listu egin zuen Joxemarik; «zer egin behar da?»

Mandik harrituta begiratu zion.

«Zer? Ez al huen atzo monoa errekara bota?»

«Lanik gabe hogeita lau ordu, esan zuen Gastonek, gehitxo Joxemarirentzat.»

«Hori duk. Ezin etsi!»

«Hartzak ba pala, esan zuen Gastonek, eta berdindu ezak horko zulo hori...» Piku lanari ekin zion berak; pikukada bi, eskuekin harri kosko batzuk bota zituen errekara. Joxemarik, berriz, horma ondotik pala hartutakoan, Larrari begira gelditu zen: kapazoan orain, masa arina ari zen adorez iraultzen.

«Hori duk sasoia hori...» Gero, espatulaz llanaren ertzak garbitzen ari zen Mandiri: «Hori masadora batean...»

Mandik, lasai ederrean:

«Masa izerdiarekin egin behar duk. Ez al dakik hori?»

«Ez duk ba samurra izango gaur izerdiarekin egitea.»

«Ez,» tentetu zen Larra, irribarre eginez; Mandiri lekua utziz, zerura begira: «Berriz ere elur giroa jartzen ari da.»

Mandik masa palekada batez hornitu zuen llana, bankuaren gainaldea raseatu zuen.

«Hola, hola, esan zuen Joxemarik, ertzak ondo leunduta; bestela umeren batek mina hartuko dik hor.»

«Horixe; zer uste duk ba? Dena kalkulatuta zagok.»

Pixka batean begira egon, eta:

«Naturan ez zagok angulorik,» esan zuen, burua gora, Joxemarik; eta Larrari: «Hi beti mendian ibiltzen haiz eta, konturatuko hintzen: harriak eta fruituak eta, denak izaten dituk formaz biribilxeak.»

«Bai, ezta? Hezurrak ere...»

«E? Hezurrak ere?... Seguru asko bai. Denak.»

Plater batean txistorra pintxoak zekartzala etorri zen Juana; haren atzetik Iñaki, kamareroa

ere, ardo botila bat eta baso batzuekin; haiek lurrean utzi eta, Mandik Juanari:

«Zer dugu hau?»

«Patxiren partez...»

«Baina, baina... Viña San Pedro eta...»

«Ari zaretela, eta...»

Gaston, arbolaxka artaziekin apur bat kimatzen ari zen eta, hura bertan behera lagata, gozo-gozo etorriz:

«Ordu onean,» begia kiñatu zuen; «tripako zorria oihuka hasi zitzaidan oraintxe.»

Larra basoerdiak zerbitzatzen ari eta, Joxemarik Juanari, espantu puxka bat eginez:

«Niretzat ere ba al dago? Nik ere pala badaukat.»

«Hartu, hartu...»

«Usaina adituko huen hik, pala hartzerako...»

Ardo beltza eta txistorrarekin argitu ziren lagunen aurpegiak. Mandik, masa bukatu behar eta, pixka batean segitu zion. Juanak, eskuan platera zuela, miretsita haren obrajeari begira:

«Mm... Ederra gelditzen ari da.»

«Oraintxe liso-liso utzi eta, bihar arte... Aber inor ez den esertzen.»

«Bai... Hor igual eseri egingo da ez dakienen bat.»

«Plazan badira balla batzuk eta, haietako bi edo hiru ekarrita...»

«Bestela, almazenean baditut burdin batzuk udan toldoak jartzeko horietakoak, horiek atera-ko ditut eta zinta batekin...»

«Ez da txarra, hori;» Mandi zutundu eta, pin-txo bat hartuta: «Eskerrik asko.»

«Besteak ere hartu...»

«Nik bai,» esan zuen Gastonek, eta Larrari: «Hik hartu bestea, honek bi hartzea gehitxo izango duk eta.»

«On egin dizuela;» Juana, zihoan hartan, itzu-li egin zen eta: «Alde hori garbitzen hasiko naiz igual...»

«Utzi Juana, esan zuen Gastonek, hori guk bukatzen dugunean eskobarekin egingo dugu eta momentu batean.»

Juana tabernara sartu eta, lagunak puxka ba-tean hitzik trukatu gabe, jan-jan eta zurrut geldi-tu ziren.

«Mm, esan zuen gero Joxemarik, gaur espero diat bart gauekoa bezalako amets txarrik ez dudala egingo...»

«Zer amets egin duk ba?»

«Pentsa, tornuan ari ninduan eta pixt! begian txiribiri bat sartu zaidak.»

«Bai, esan zuen Mandik, komeni duk antiojoak jarrita lo egitea.»

Barre egin eta, bere basoa apuratuta, Larrak:

«Bueno... Nik joan egin behar dut.»

«Itxoin ezak motel, esan zion Gastonek, oraintxe bukatu eta eskuak garbitu eta gora eramango haut.»

«Ez. Hor gelditu naiz...»

«A; nobiarekin...»

Koloreak pixka bat aterata, bazihoan Larra.

«Hi, esan zion Mandik, lan ederra egin duk e... Zer edo zer ateratzen bada, bazakiat norengana jo.»

«Bale...»

Arte hartan, bere mertzeriatik atera zen Maite, ateari giltza eman eta, berengana kopetilun eginez:

«Zer? Hor jarri al duzue orain arbola?»

«Gaizki al dago ba?» esan zuen Gastonek; Maitek ezpainak bihurritu, hotz juzgatu zuen; «beste horretan Mikaelari bista kentzen diola eta.»

«Mikaelari bista kendu?... Bueno.»

«Total, esan zuen Joxemarik, hemen jarri edo han jarri, zu beti ezkonforme egongo zara.»

«Ez da hori,» doinua pixka bat eztitu zuen Maitek; «hor malda behera hasten da eta, txakurrek hanka jasotzen dutenean, txizerreka dendaraino etorriko da.»

Gastonek, Maitegana urrats erdi bat emanda:

«Zuk ba al dakizu zertarako den horko hesi txiki hori?»

«Hori? Nondik atera duk hori?»

«Arbolaren inguruan jartzeko da hori!»

«Egingo diote ba kasu txakurrek burdin zati horri... Bertan txiz egingo ditek.»

«Nahiago, txiza bakarrik egingo balute txakurrek herri puto honetan,» esan zuen Joxemarik.

Maitek, barre antza:

«Kaleko zulo horiek eta tapatu itzazue; ja, ari zaretela...»

«Hori udaletxean esan!»

Maitek esku keinu bat eginda kalean gora joan, denbora berean Uxue eta Nadia atera ziren etxe apaletik; plastikozko txamarra serratua, galtza kanpanak, suela lodiko oinetakoekin Uxue. Apenazko begirada bat, koket-koket joan ziren haiek ere gorantza.

«Egunon, e!» Kasurik ez haiek, begi ñika egin zuen Gastonek, zigarroa ezpainetan hartu, lagunei ezin eskaini, paketea bukatu zitzaion. «Lehenago Agustin etorri da... Legea beteko omen ditek, hi.»

«Legea? musturtu zen Joxemari; zer ikusia du legeak hor?»

«Ya. Aire freskoarekin joan duk...»

«Legea beraiek jartzen ditek, ala? Beraiek arauak bai, jarriko ditiztek baina... La ostia. Legeak gainean zaudek, haiek ez ditiagu ukituko, baina arauak...»

«Horrekin zaudek.»

«Hori abstraktoa duk; edo... Nola duk? Abstraktoak koadroak izaten dituk, bizitza zer izaten da... Absurdoa!»

«Legea duk... paisajea, figurakeria,» esan zuen Mandik.

«Legea, bakoitzak berea,» Joxemarik.

«Bueno, hala ere margen pittin bat badiagu: hau egin zezakeagu, bestea... Ez diagu Juan Carlos primeroren semeak bezalako margenik baina...»

«Felipe.»

«Ez zakiat nola den; hori.»

Istant hartan pisuren batetik kortxozko tapoi bat erori zitzaien.

«Bazkaltzeko ordua, esan zuen Gastonek: Korneliok ireki du botila.»

Mandik basoak erdi bete, eta:

«Hau edan eta jaso egingo diagu; ba?»

«Hori di-da egingo diagu. Ekarri taladroa...»

Joxemarik tragua jo, ezpaina ezpainarekin igurtzi zituen.

«Badakik zer pentsatzen ari naizen? esan zion Mandiri... Bizitza elur-paisaje bat bezalakoxea dela...»

Hara begira, pixka batean pentsakor gelditu ziren biak; gero Mandik:

«Igual bai e, esan zuen; hala ere... horrekin zer esan nahi duk justu-justu?»

«Hi...» Begiratu izugarria jaurti zion bere lagunari Joxemarik. «Ez nauk filosofoa, ni!»

Zubi aldetik trajez jantzitako tipo bat etorri, haiei begiratu gabe eta kableak eta ladrilloak saihestuz etxe txikian sartu zen.

Larraitz liburutik irakurtzen, Mikaela erdi etzanik, burua kojinean ezarrita, begiak itxita zegoen.

«Treinta años atrás, el viajero catalán de turismo por Italia ponía ante la pasta su cara de máximo estupor y absoluto descontento. No le gustaba la pasta al burro, con mantequilla, ni al pomodoro, con salsa de tomate, ni al sugo, con carne picada. Por suerte, todo esto es ya pasado. Todo catalán distinguido y cultivado considera hoy día que la pasta es un plato apetitoso, sanísimo y suculento, sobre todo si el queso que la acompaña es parmigiano. En este punto, estamos a todas luces dentro de la corriente...»

Hartan, ateko txirrinak jo zuen; Mikaelak begiak ireki zituen.

«Ui, esan zuen; zein izango da?»

«Uxueri giltzak ahaztu edo...»

«Ez; adituko genuen... Aber, begiratu xulotik.» Larraitz ate aldera joan zen, karrask egin zuen zoruak bere oinetakoen azpian. «Zein da?»

Larraitzek, pauso bat gelarantza emanik, apaltxo:

«Gizon bat, korbatarekin.»

«Ai... Pentsatzen dut zein izango den... Aber zer nahi duen, ireki ezazu... Zaude, ekarri Mixi; ez zaio gustatzen korbatako jendea.»

Larraitzek ireki zuen atea.

«Arratsalde on, esan zuen agentearen ahotsak; Mikaela etxean al da?»

«Bai, hor dago...»

Gelara egin zuen agenteak: gabardina beltza, traje gris iluna, larruzko kartera besapean, aurpegi txikian begi bizi-hezeak, ezpain fin-ubelak, ile apurrak atzeraka orraztuak.

«Arratsalde on.»

«Berdin.»

«Zer moduz, ondo?»

«Betiko moduan.»

Zerbaiten bila balebil bezala bere inguru txikian begiratu zuen agenteak.

«Abrigoa, esan zuen Larraitzek, nahi baduzu... Ekarri.»

Gabardina erantzi zuen agenteak.

«Eskerrik asko. Hara... Ez duzue bero handirik hemen.» Mikaela isilik, eta: «Ez al zara hotz?»

«Hotza? Zertarako nahi dut?» Begiak bazterkatu zituen.

«Noski... Jarri naiteke?»

«Jarri. Zertarako da?»

Agenteak ez zuen erantzun; Larraitzek aulkiaren bizkarreko arropa puxkak hartu eta, pasillora zihoala:

«Sukaldean egongo naiz e, Mikaela...»

Agentea jarri egin zen eta, arnasa sakon hartuta, belaunen gainean kartera zabalduz:

«Pentsatuko duzu, zertara natorren...» Folio batzuk atera zituen. «Zure espedientea ikusten egon gara eta... Gauzak ez daude batere txukun... Alkilerra ordaindu gabe badaramazu...» Paperetatik irakurriz: «Sei hilabete, horrek egiten du... mila bostehun eta hirurogei euroko zorra.»

«Orain zer zaude, nagusiekin ere tratuan?»

«Ez. Nik nagusiarekin ez daukat ezer baina, hark udaletxean egin du erreklamoa eta, noski ikusi dute kontua blokatuta duzula... martxotik; ze, bestalde badituzu, zuzendu nazazu gaizki banago, ordaindu gabe, bi kredito: bat Guipuzcoanoarekin eta, noski Kutxarekin bestea... Horiek ere pendiente daude eta... denborarekin interesak handituz doaz. Oraintxe baduzu, bi banku horiekin... hiru mila eta berrehun euroko zorra. Bada ba zerbait.»

«Kutxakoa, ia kitatu genuen.»

«Ia-n dago koxka. Horretan falta dituzu... seirehun eta berrogeita hamar euro. Bestea, larogeita hemeretzian eskatu zenuen.»

«Senarraren entierroa pagatzeko zen.»

«Badakit. Badakit gaizki ibili zaretela, badakit historia, zure gurasoak ere ezagutu nituen...»

«Bai; beti diru eske.»

«Nahi ezta ere, hori da nire lana... Kontuak halaxe daude.»

«Baina, kreditu horiek, orain ezin ditugu pagatu. Nire pentsioarekin doi-doia iristen zaigu... Badu zazpi urte ez didatela igotzen.»

«Badakit hori; baina, etxea? Etxearekin zer pasatzen da? Laguntza hartzen ari zara udaletxetik.»

«Gauza asko daude... Eskolako komedorerako aurten kendu digute laguntza; argindarra ere pagatu behar da. Zuk ez dakizu...»

«Baina, etxeko laguntza etxea ordaintzeko da, Mikaela.»

«Alaba zaharrari inplante bat jarri diote. Zuk ba al dakizu zer gastu den hori?»

«Nik ez dakit zer ari zareten. Kontuak ez dira ateratzen...»

«Dena oso garbi dago. Hor ditut fakturak!»

«Kontua honelaxe dago: nagusiak zorra ordaintzeko bi hilabeteko epea ematen dizu; bestela... tribunaletara joko du. Hori ebitatu behar da.»

«Bi hilabete... Erraz esaten duzu.»

«Ez da nik esana.» Artega, paperak ordenatu zituen. «Orain, inporta ez bazaizu, etxeari begiratu bat eman beharko nioke.»

«Zer ikusi behar duzu?»

«Ondasunen inbentarioa egin beharra daukat.»

«Lehenago ere eginda zaude!»

«Berriz egin behar da. Hemen daukat ordena; nahi al duzu irakurtzea?»

«Niri ez irakurri ezer.»

«Nahi baduzu, neska hori izan daiteke lekuko.»

«Bai. Larraitz!» Zalukara, apuratuxe etorri zen Larraitz. «Aber. Gizon honek etxea miatu nahi du eta, begiratu zer egiten duen.»

Irribarre zuria egin zuen agenteak.

«Aber, hasi zen, hemen...» Gelako altzariei gain-begiratu bat emanik: «Ezer berririk ez dago; bueno...» Paperean begiratu zuen; «estufa hori lehenago ez zenuen baina, ez dugu kasu egingo... Bale.» Larraitz atzean zuela, pasillotik hara zihoala:

«Ondo begiratu e! hots egin zion Mikaelak; ondo begiratu... Zer uste duzu! Ni, azken hemeretzi urtean bertan bizi naiz eta, ez dut ezer berririk ikusi, ezta bista neukanean ere, eta zuk, oraintxe jainkoak daki nondik etorri eta, uste duzu zerbait bilatuko duzula!»

Haiek hara, Mikaelak irain batzuk murduskatu zituen, esku dardartiz ura edan, katua laztan-

du zuen. Taladroaren hotsa zetorren kaletik. Agenteak, berriz ere etorri eta:

«Thomson hori berria duzue...»

«Ez da gurea telebista,» zirt-zart Mikaelak.

«Ez al da zuena? Behar nuke froga agiri bat.»

«Nola froga agiria! Ahizpak erosi zuen, hark izango du!» Dar-dar egiten zion matrailak. «Sukaldeko zuloa ere jarri! Ez al duzu ikusi? Hori ere berria da!... Zulo hori ere guk pagatu beharko dugu!»

Larraitzek, alboan eserita, leunki:

«Lasai, Mikaela...»

«Ganbaran...» esan zuen agenteak hotz.

«Ganbaran!... Fabrikan istripua izan nuenetik ez naiz hara igo! Joan, joan, han bilatuko duzu urrea!»

Kartera hartzearekin irribarre goibela egin zuen agenteak.

«Sinets egidazu, ez zait atsegin hau egin behar izatea.»

«Ya; batek egin behar, ezta?»

Agenteak, prestuki, berri on bat dakarrenaren doinu samurberaz:

«Hara; bankuarekin hitz egin dut, Guipuzcoanotik, hilean ehun eta hogei euro ordaintzea proposatzen dizute. Neurrikoa da. Zer esaten duzu?»

«Zer esango dut... Aber zer egitea dagoen.»

«Saiatu zaitez. Ez du merezi horregatik mikaztea.»

«Ahorratzea baduzu lastoa.» Agentea ez baitzen beretik higitzen: «Ba al duzu besterik?»

«Bai. Uxuez hitz egin nahi nizun.»

«Hitz egizu ba.»

«Kontua da... Aspaldi ez omen da eskolara joaten.»

«Jo egiten zuen eta, irakasle batek.»

«Ez da hori esan didatena... Irakasle guztiekin baditu problemak, eta ikasleekin ere...» Beste paper bati so: «Egin ditu... hiru delitu gelan; patioan beste bi; portaera txarragatik eta insultoengatik ere baditu parteak; anonimoak bidali ditu... Horietaz aparte, kalean behin, eta trenean beste behin atxilotu dute. Ez omen dabil konpainia onean...»

«Hori ez da zure gauza.»

«Ez da nire gauza; bien. Dena dela: hola segituz gero, esan didate zuri esateko, eskolaz aldatu egin beharko dutela.»

«Korrekzionalera bidaliko dutela, esan nahiko duzu.»

«Korrekzionala ez da baina, horretan utziko dugu. Hori baino lehenago behintzat, gizarte laguntzaileak harekin hitz egin nahi du. Lehengo hilean eman zion zita, Uxue ez zen azaldu... Beste zita bat jarri dio. Astelehenean, goizeko hamarretan. Nahitaez joan egin beharko du zita horretara... Badakizu, Mikaela: IMIa kendu egingo dizuete, hura eskolara joaten ez bada.»

«Kendu? Ez al digute nahikoa kendu? Urtearekin, sei mila pesetan laburtu digute laguntza!»

«Hori denei egin dietena da.»

«Bai! Aprobetxatzen dira, ez dugulako eskolarik...»

«Bestalde... jakin dute Jone azken sei hilabetean lanean ari dela.»

«Lanean? Horixe... Ez da sekretu bat hori. Zer, ba. Etxea pagatzeko doia ematen digute eta, ez al da normala, alaba zaharrenak lanen bat egitea? ‘Lan egin behar da, lan egin behar

da!’ ari dira beti eta, ez dute kondenatuko orain, lanean hasi delako. Zertatik biziko da bestela?»

«Horiek ordea, deklaratu behar dira; zuk badakizu hori, deklaratu behar dituzue... sarrera guztiak. Bestela santzioak izango dira. Astelehenean bilduko da teknikoen batzordea, erabakitzeko etxea ordaintzeko laguntza eman ala ez.»

«Laguntza hori, ez ahal digute kenduko!» Bere gauzak biltzen hasi zen agentea. «A! Pobreak geure burua desterratu beharko dugu hemendik!»

«Hori da dena, esan zuen agenteak. Barkatu... Nik ere nahi nuke berriz ez etortzea.» Ate aldera egin zuen, bertan «gero arte» lehor batez agurtu zuen Larraitzek; berau itzulian zetorrelarik:

«Laguntzak kendu, esan zuen Mikaelak; ikusten duzu?... Ez!, guri ez dizkigute kenduko laguntzak!»

«Zergatik ez diozu esan Jonek lana galdu duela?» galdetu zuen Larraitzek.

«Ez dizkiot gure pena guztiak kontatuko horri...»

«Etxean ez dela behintzat esan behar zenion.»

«Hori ezin diot esan: alaba bakarrarekin, oraindik ere gehiago jaitsi egingo bailigukete diputazioko laguntza.»

«Baina, orduan, haurdun dagoela esan behar zenion; hartara...»

«Eeez... gaixoa; enteratzen badira hura nola dabilen, kapaz dira umea kentzeko... Ui! Zuk ez dituzu horiek ezagutzen.»

Egin zen isilean, kanpoan burdina arrastaka eramateko hotsa aditu zen, agur oihu bat. Katua emeki jaiki, bizkarraz Larraitzen izterra ferekatu, isil-isila pasillora egin zuen.

«Iluna dago, esan zuen Mikaelak... Zer pasatu da?»

Larraitzek leihotik hara begiratu zuen eta:

«Mm... Dago kolore bat...»

«Oraindik hor al da?» asaldatu zen Mikaela.

«Zein?»

«Ernio...»

Arbolaxka zutik, lanabesekin auto aldera joana Mandi, Joxemari eta Gaston eskoba-palarekin obrako kondarrak zemento zakuan sartzen ari ziren.

Eskuak galtzetako poltsikoetan, Txonaren aita bankuari zurrun begira zegoen.

Joxemarik kapazoa hartu, autorantza egin zuen.

Gastonek ere: etxe txikiko bebarruan zakua eta pala-eskoba utzi, irten eta, Txonaren aitari agur esanik, lagunen atzetik abiatu zen.

Kalean beste inor ez zen...

Elurra hasi zuen.

Lagunak barruan zirela, autoak demarratu zuen.

Ireki zen Mikaelaren gelako leihoa.

«Aiba, esan zuen Larraitzek. Elurra hasi du...»

Leihoa ireki, eskua luzatu zuen; maluta sendo batzuk urtzen utzi zituen ahurrean.

Bazihoan, txapela malko txuriz pintakatua, kalean gora sigi-saga Txonaren aita.

Bestaldean: estoldako zulotik, txerrikume bat besapean zuela, ijito bat atera zen.

Zubiaren zokoan orduantxe, amona bat azaldu zen: buruan painueloa, sudurra luzea, katiuskak...

Atea itxi baino lehen, nahi ditut gogora ekarri bide-lagunok:

Yordan Raditchkov, *Les Récits de Tcherkaski*.
Françoise Morvan, *Vie et moeurs des lutins bretons*.
Jaroslav Hasek, *Xveik* eta *Cuentos*.
Bohumil Hrabal, *Les palabreurs* eta *Vends maison où je ne veux plus vivre*.
Diane Tong, *Cuentos populares gitanos*.
Deszö Kosztolányi, *Le traducteur cleptomane*.
Liu Xinwu, *Murs noirs*.
Xabier Amuriza, *Herri eta irri*.
Xanti Begiristain, *Barreak eta haserreak*.
Txomin Peillen, *Allande Elixagarai ligiarraren ixtoriak*.
Juan San Martin, *Zirikadak*.
Joxantonio Ormazabal, *Antonio Bolas*.
Ronald Blythe, *Mémoires d'un village anglais*.
Jean-Louis Maunouryk bilduta: *Sublimes paroles et idioties de Nasr Eddin Hodja*.
Hugo Claus, *Le chagrin des Belges*.
James Kelman, *Le Poinçonneur Hines*.
Jack London, *Les terribilissimes Iles Salomon*.
Olivier Razac, *Histoire politique du barbelé*.
Jean Pierre Levaray, *Putain d'usine*.
Ghersi-Castoldi, *Recetario doméstico*.

Jean Pierre Duvoisin, *Laborantzako liburua*.
Fleurygrand, *Manual del perfecto timador*.
Orixe, *Euskaldunak*.
Castelao, *Betiko biak*.
Jorge de Riezu, *Nafarroako euskal kantu zaharrak*.
Jose Migel Barandiaran, *El mundo en la mente popular vasca*.
Xabier Lasa, *Gerra zibila andoaindarren begietatik*.
Vladimir Maiakovski, *Mi descubrimiento de América*.
A.N. Afanassiev*, Contes érotiques russes*.
Anton Txekhov, *Oncle Vanya*.
Josep Pla, *Cartas de Italia*.
Danilo Dolci, *Despilfarro*.
Orobat eta bereziki gogoan *Egunkaria* zeneko «Han-hemen» saileko kazetariak.
Filmok ere izan dute zer-ikusia zerbait liburu honen egitean (haien zuzendariak parentesi artean):

La estrategia del caracol (Sergio Cabrera).
The dreamers (Gregory Mosher).
Nueve reinas (Fabián Bielinsky).
The last warrior (Carol Reed).
Dis-moi que je rêve (Claude Mourieras).
Undertaker's paradise (Matthias X. Oberg).

Ten minutes older, the trumpet (Aki Kaurismäki, Werner Herzog, Chen Kaige).
The score (Frank Oz).
Too much flesh (Jean-Marc Barr, Pascal Arnold).
Street angel (Frank Borzage).
Magonia (Ineke Smits), eta
Raining stones (Ken Loach).

Azkenik baina ez azkeneko, maisu Pieter Bruegel zaharra aipatu nahi dut.